



Bordari-Satarka

LITERATUR LEHIAKETA

BORDARI eta SATARKA
Literatur lehiaketako lanen bilduma

Argitaratzailea
Hondarribiko Udala
Euskara Zerbitzua

Inprimaketa-maketazioa
 **antza** KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



Hondarribiko
Udala



HONDARRIBIA
EUSKARAZ

AURKIBIDEA

ALKATEAREN AGURRA 7

HITZAURREA 9

2013

GENESIS: ZIRRIBORRO HERRARIEN ANTOLOGIA BAT
(Mikel Arruabarrena Larrarte / SATARKA / A MAILA) 11

NIRE GALDEREKIKO OIHARTZUNA
(Inge Salaberria Muñoz / SATARKA / B MAILA) 19

BAKARDADEA (Urt Zubiaurre Otamendi / BORDARI / A MAILA) 23

IHESLARIA ETA NI (Laura Gallego Apecechea / BORDARI / B MAILA) 30

2014

URTAROEN MEMORIAZ (Ane Garcia Lopez / SATARKA / A MAILA) 38

ATZO BERTAN (Jone Roncal Beraza / SATARKA / B MAILA) 43

OINORDETZAK (Olatz Mitxelena Larreta / BORDARI / A MAILA) 45

MADDIREN KOADERNOA (Asier Olaizola De Diego / BORDARI / B MAILA) 49

2015

ATZERAKO ISPILUTIK MINTZO (Itziar Ugarte Irizar / SATARKA / A MAILA) 57

ESKUTITZ BAT AMETS GALDUEI
(Jon Aperribay Calvo / SATARKA / B MAILA) 64

AMETSETAN HEGAN (Rose Samb / BORDARI / B MAILA) 69

GALTZERDI ZULOEN JATORRIARI BURUZKO TEORIA
(Ainara Elizondo Lizarraga / BORDARI / A MAILA) 74

2016

SUSTRAIAK HAN DITUENAK (Mitzel Arzac Iridoy / SATARKA / A MAILA).....	82
IRONIA HUTSA (Saioa Ventura Iturralde / SATARKA / B MAILA)	86
DOMINGO GOÑI ARTOLA (Beñat Egues Cuesta / BORDARI / A MAILA)	89
URAK (Lorea Lekuona Legorburu / BORDARI / A MAILA).....	97
ZENBAKI ARTEAN IGERIAN (Itsaso Albisu Urkizu / BORDARI / B MAILA)	104

2017

EKINOZIO BETE GALES (Gorka Salces Alcalde / SATARKA / A MAILA).....	109
BIHAR ARTEA (Olaia Baigorri Vales / SATARKA / B MAILA)	115
ERRINOZERO ANDREAREN MENDEKUA (Iñaxio Lopez De Arana Arrieta / BORDARI / A MAILA)	118
IRUDIMENAREN ARAZOA (Beñat Alkain Epelde / BORDARI / B MAILA).....	123
IPUIN BAT, OPARI BAT (Laida Miranda Sarasola / BORDARI / B MAILA).....	128

2018

ZER EGINGO DUGU EGURREZKO SUDURRAREKIN? (Iraiti Goikoetxea Asurabarrena / SATARKA / A MAILA)	132
EGUNSENTIKO ARGIA BESARKATU NAHIAN (Urko Sagartzazu Flores / SATARKA / A MAILA).....	139
EURI BELTZA (Karmele Mitxelena Etxebeste / BORDARI / A MAILA).....	143
TXIKITZEN (Lur Alkain Epelde / BORDARI / B MAILA).....	150

2019

LOA, IHESI DOA BIHURTU NINTZENETIK GURASO (Mari Joxe Azurtza Sorrondegui / SATARKA / A MAILA).....	155
BARRUAN GORDETAKOA (Ander Villancian Crespo / SATARKA / B MAILA).....	160

2022

URTARO PANDEMIKOEN JOANEAN

(Iñigo Legorburu Arregi / SATARKA)166

KOARTA ZURIA (Iñaki Sanz Azkue / BORDARI)173

ABENE (Maria Perez Garrote / BORDARI)181

2023

HEROIAK (Gotzon Plaza Jaio / SATARKA)188

AMONAREN EGUZKILOREA

(Jon Balerdi Goikoetxea / BORDARI)195

2024

DEIADARRAREN ANTOLOGIA BAT

(Rakel Pardo Perez / SATARKA)201

KUKUAREN KANTOREA (Maria Ainhoa Aranburu Puente / SATARKA)205

GARBITZAILEA (Imanol Sorondo Baltasar / BORDARI)209

JON ALDERRAIA (Oscar Azkona Garcia / BORDARI)222

2025

IZATEAK

(Amaia Sarasola Auzmendi / SATARKA)231

BIDASOAREN AGURREKOAK (Josu Salegi Garate / SATARKA)235

INORK EZ NAZALA HORRELA IKUSI, JAINKOAREN

(Maitane Arizti Ugarteburu / BORDARI)241

BAZKALOSTEKO KAFEAK

(Leire Sarasola Auzmendi / BORDARI)244

ALKATEAREN AGURRA

Bordari-Satarka literatur lehiaketak 40. edizioa beteko du 2025 honetan. 1984an hasi zuen ibilbidea —bide batez, literaturzaleontzat zenbaki adierazgarrian—. Orduko agiriek jasotzen dutenez, Kultura Batzordeak Osoko Bilkurari galdegin zion “Hondarribian euskara bulztatu nahirik, idazle berrientzat Literatur Lehiaketa bat eratu dezala”.

Ordutik, Udalak bere egin du konpromiso hura, eta urtez urte berritu du euskarazko sorkuntza literarioa sustatu eta herrian literaturak merezi duen tokia emateko grina. Ipuinak Bordari sarien bidez, eta poesia Satarka sarien eskutik, bi genero nagusi horiek izan dira lehiaketaren ardatz eta bihotz, belaunaldiz belaunaldi idazle askoren lehen urrats edo indartze-gune. Emaria pandemiak soilik eten zuen, 2020an, bi urtez, eta, jakina, ezinbestean. 2022an, berriro heldu genion bideari, eta, hala, 2025ean, 40. ediziora iritsi gara. Hamaika dira urte hauetan guztietan epaile, parte-hartzaile, laguntzaile eta sustatzaile aritu direnak. Atzera begiratuta, esan daiteke lehiaketak arrasto sakona utzi duela, eta gure herriak, apurka-apurka, bere aletxoak jarri duela letren uniberstoa zabal eta aberatsean.

XXI. mendean, teknologiak giza-gogoa gaintitu nahi duela dirudien garai honetan, har dezagun harro atzera begiratzeko tarte bat. Eskuen artean duzun antologia honek ipuin eta olerki onenetako askoren lekuko izan nahi du, egindako bidearen aitortza eta eskertza, etorkizunera-ko pizgarri.

Gure hizkuntzaz ari garela, 2025ak askotan errealitate distopikoaren zantzuak dituela dirudien arren, segi dezagun gure bidetik. Hondarribiarren izenean, eskerrik beroenak eman nahi dizkiet urte hauetan guztietan Bordari eta Satarka sariak posible egin dituzten guztiei: sortzaileei, epaimahaikideei, antolatzaileei eta literaturzale guztiei. Harro gaude elkarrekin egindako bideaz, eta ilusioz begiratzen diogu etorriko denari. Jarrai dezagun, beraz, euskaraz amets egiten, euskaraz sortzen, eta euskaraz bizitzen.

Igor Enparan Araneta

Alkatea

HITZAURREA

Eskuen artean duzun antologia honek, gure herriak euskarazko letren munduari egindako ekarpenaren zati bat jasotzea du helburu. Bordari - Satarka Literatur Lehiaketak 2025 urtean 40. edizioa duela ospatzeko bazegokigun, ezer baino lehen, aurrez aritutako udal teknikari, arduradun politiko eta herrikideek egindako lanari segida emateaz gain, egindakoa borobiltzea, biltzea, jasotzea eta bereziki, argitara ematea.

Konpromiso horrekin sortu dugu antologia hau. Aurreko antologia 2013an argitaratu bazuten ere, 1984 eta 2012 bitarteko lanak jasotzen zituenez, bigarren bilduma honek 2013 eta 2025 urte bitarteetan sarituak izan diren lanen aukeraketa jasotzen du.

Ipuin eta olerkiz osaturiko bilduma hau baliagarri dugu baieztatzeko lehiaketak bere helburua hein handi batean lortu duela, euskal idazle berriak sortzea, alegia. Berrogei edizio hauetan saritutako askok dute edo izan dute euskara ogibide edo lan tresna, batzuk agerian –sona handia lortu duenik ere bada–, eta, beste batzuk, ezkutuagoan, baina beti letrekin jolasean. Ofizio ez duten horien artean ere agerikoa da euskal literaturak txoko berezia duela haien barnean, eta euskarak, oro har, haien egunerokotasunean.

Lehiaketa hau gure hizkuntzaren ispilu da. Momentu zailak bizi izan dituen arren, herri gogoari esker aurrera egin du beti. Orain ere erronka handiak ditugu aurrean, eta herri nortasunari eusten diogun bitartean, lehen zabaldutako bide horretan aurrera jarraituko dugu.

Garoa Lekuona Izeta

Euskara zinegotzia

2013





SATARKA / A MAILA / Hondarribia

1. SARIA

Mikel Arruabarrena Larrarte

GENESIS: ZIRRIBORRO HERRARIEN ANTOLOGIA BAT

Big Bang (*Prologoa*)

*Ikusten dugun edo dirudigun guztia
amets bat besterik ez da, amets baten barne.*

Edgar A. Poe

Ezerez gordin honen baitan
hondar ale sentitzen naiz,
eterrezko hodei bat bezain hegazkor:
*iratxo odolzaleen ezpatetatik,
eldarnio gaizto ororen oinazetik salbu;
fereka sukartuen plazeretik egotzirik*
Balizko existentzia baten zamak
olaturik olatu ametsetan itoko banindu bezala

[Bat batean, sugar lizun batez erditu da
gauaren mihise birjina;
eta haren uhara kiskalian
zirriborro artega uzkuratzen naiz,
izar(r)arte izoztu baten begietan biluzi]

I. Genesis

-Deskriba iezadazu bere bihotza.

-Laku izoztu bat ematen du,

eta haur itoen aurpegiak

ezabatzen ari dira bertan.

Kirmen Uribe

Begiak itxi eta arnas hartu;
Odolustu barrena ausikitzen dizun
samin horren arrangura,
Eta egin putz,
memoriaren hareetan grabita dezan
(betiereko jitoan hondorat)

*-Erdi asegabeen nebulosa gori honetan,
izaki bakoitzak izatea zor dio itzalari,
(des)oreka arritmiko batez
kausalitatearen zurrunbiloan atzera nahasiaz -*

Begiak itxi eta arnas hartu;
Une batez, eman bide
ihes egitearen ideal nartzisistari,
Eta beheratu lotzen zaituzten kateak,

biluztasun oro ortzian izkiriatur
(izar usoen lorratz iragankorraz)

*-Sortzearen egoitza letargikoetan
izaki bakoitzak izatea zor dio itzalari,
simetria kamuts honen
zorizko hari ilaunetik zintzilik -*

[Ez esan inoiz sinetsi zenuenik
erraietako samin hori
saihets baten kontu besterik ez zela]

II. Harraren erbestean herrari

*Denok behar dugu beste zerbait
barruko harra asetzeko.
Denok dugu hitz bat gutxiago
besteri esateko.*

Kirmen Uribe

Konformismoaren Edenetik at,
Jada ez da zentzuzkoa
gure atzerriratzearen zilegitasuna eztabaidatzea:

Hatzetako mamiak lohiturik ditugu
sagarrezko tinta gosetiaz;
ilargiaren isla ferekatu eta
gure bularretako geometrian izkiriatu nahi izanagatik

III. Spiders (Armiarmak)

*Bitartean heldu eskutik, eskatzen zigun,
ez dut promesarik nahi, ez dut damurik nahi,
maitasun keinu bat besterik ez.*

Kirmen Uribe

Hontzak ulu batez urratu du gauaren esfera:
haizearen esku izoztuak,
euriaren ezpain likatsuak,
ortziko armiarma sareen enezko zelata.
Eta bi zapata bakartiren oihartzun isila.

Abstrakziozko hodei batean murgildurik,
poetak etengabe erregurgitatzen ditu
betiko kuestio muinean zentzugabeak.

Ustekabean, barraskilo zapaldu baten burrunba lehorra:
Mila kristal zatitan txikitu da gogamenaren amarauna,
Hotzikara urdin batek zeharkatu dio erraietako mapa ospela.
Eta desanparuaren atzaparretan uzkurtuz,
poetaren gogamen asaldatuak ezin
tarantula den osotasun azabatxearen
besarkada hutsa besterik aurkitu.

Hontzak ulu batez urratu du gauaren esfera:
haizea, euria, esnezko armiarmen zelata;
eta bi zapata bakartiren oihartzun bustia.

IV. Alter ego

*We're just two lost souls
swimming in a fish bowl*

Pink Floyd

Bereizten gaituen beira honetan
zure izena idatzi dut;
Bateratzen gaituen beira honetan,
atzekoz aurrera:
existentziaren errainu ezkuturen bat aurkitzeko esperantzaz edo

V. Ajea

*Beste izaki bat makurka dabil zure izatearen barnean,
Eta lo egin behar duzu.*

Zure oinetan esnatu arte. (...)

Sekula ez gera guban bilakatuko.

Martxel Mariskal

Bart nire zainetan egin zenuen igeri,
kiskalgarri bezain izoztu.
Eta zure destaina iragazki da orain,
odol lohi hau
tantaz tanta dekantatuaz:
naizena,
nahi nukeena

VI. Reptilia

*I thought I told you
this world is not for you*

The Strokes

Leihoak zabaldu
eta distira berde batek itsutu du
nire barrunbeetan beltzena ere:
sugandila, basilisko eta krokodilozko ibaiak,
eta kezko eta odolezko zilarrezko ur arreak.

“Homo homini lupus” zioen Hobbes-ek:
ez dago dudarik,
beranduegi jabetu naiz gizakiaren musker kondizioaz

Sugandila, basilisko eta krokodilozko ibaiak;
kezko eta odolezko zilarrezko ur arreak.

VII. Apocalipsis edo Ilargiaren Hezurduraz

*...heriotza ez da egoera guztiz berri eta arrotz baterako
trantsizio kontsideratu behar, gure baitarako itzulera baizik,
zeinetik bizitza ez den absentzia labur besterik izan.*

Arthur Schopenhauer

Muino higituaren gibeletik
tupustean zabaldu du bere marfilezko orri zorrotza;
sartalde odoldua izarrarte lauso batez ernalduz,
espantuzko uhar bat lau haizeetara zabalduz

[Inurri ilara geometriko bat
-pala, kasko eta guzti-
kantuan ari da hilmendian goiti:
*Nuestras vidas son los ríos
que van a dar a la mar,
que es el morir...*]

Saihets, hegal zein orno,
igoera apokaliptikoan
fisionomia eskualidoaren adar orok
heriozko pulsu izoztuak igortzen ditu
tragikomediako ~~personaia~~ biktimen korneetara:
Eta izar sarda geldikor,
gauaren mingainean biltzen dira
ilusio, suhar, ametsak;
Nikelezko esmalte mortu, bizi batez ehunduz
ilargiaren hezurdura izugarria,
Muinoaren apogeoan zulo beltz

[Lurrazala arrakala batez erdibitu da,
saguzar hordituak ere amildu direlarik
itzalezko eztarriaren aseezintasunerat;
sortze eta suntsitzearen arteko simetria makabroari
algara zoroak eskainiz,
labazko ibai goriek lurra hondar ale urtzen dutela]

Baina atzen epaiaren oren konplutuan,
ustekabeen,
herioak bere hezurrezko begi laruaz gelditu du
denboraren fluxu urratua;
abismoaren ertzean irribarre bat marraztu duen
sator zaharraren garaipenaz hunkiturik,
ukaturik

Eteignes la lumière (*Epilogo*)

*Begiratzeko, nahitaezkoa da argia; ikusteko, argiak enbarazu egiten du.
Argiaren hondamenean dago edertasunik behinena.*

Karlos Linazasoro

Itzali argiak
eta besarka nazazu itzaletan;
Bil gaitezen salamandra heze
gauaren oihal goxoetan

Itzali argiak
eta besarka nazazu itzaletan;
fosforozko izpi batez erre ditzagun
joan diren segundoak, etortzeko diren mendeak:
haurren esnezko irribarre xaloaz,
orain honen betierekotasunean bizi



SATARKA / B MAILA / Hondarribia

1. SARIA

Inge Salaberria Muñoz

NIRE GALDEREKIKO OIHARTZUNA

Nire galderekiko oihartzuna

Bueltaka dabil nire burua, urduri, aztoratua
irteera bakarra ez duen gela batean sartua.
“Zer izango gara?” esaldiak utzi nau erabat galdua
arkatza sentitu da nire eskuaz jabetua
eta ondoren ekin dio bidaiari, ziurtasunez, ez beldurtua.

Espazio txiki bateko arima jostariak
plastikoak egin gaitu ala jostorratz eta hariak?
Plastilina modura eraldatzen hasiak
ezagutza pixkanaka bildu du gure molde berriak
prozesua bukatu da, eta dagoeneko itzali dira fabriketako argiak.
Ez gara denak berdinak, batzuk txikiak besteak handiak
denoi ez digu aukera bera ematen biziak
gustura eztabaidatuko nuke zurekin, non zaude? Ezkutatu al zaitu hiriak?

Energia hutsa gara, hots, ezin gara guztiz suntsitu.
Bizitza deituriko bidaia esperimentalala biziki sentitu.
Momentuak partekatzen ditugu, pertsonekin konpartitu,
nahiz eta maltzurkeriak haien bihotza batzuetan zatitu,
lasai egon, oroimenak aireak dantzan eramaten baititu.
Ez dago inola ere kezkatu beharrik, ixo eta aditu:
eraldatzen gara, ezin gara ez joan ez gelditu.

Sentimenduz osaturiko puzzleak bezala
piezaz pieza osaturikoa dut azala,
arnasketa eskaleen joeraren antzekoa da, erabat apala;
gure barneko odolaren eginbeharra ez da lan makala,
haren bideak marrazten du gorri koloreko espirala.
Arte lan horren suntsipen nagusia da tiroak lagun duen bala,
ondorioz, txori zauritu baten antzera, ezingo dugu astindu hegala
Ameriketako legeak erabat makurtzen du nire morala
hainbat biktimen heriotza zein bidegabeba den, ezta hala?

Bizitzaren haziak gure barnean landatzen dira,
sustrai nahiz hostoak bertan dabilta jira eta bira,
behin lore bilakatuko balira...
lorategi koloretsuari geratuko natzaio begira.
Gu fantasia gara, eguneroko norberaren ametsaren distira.

Energia huts desager ezina
eraldatzeko gaitasun nahi adina
batzuk duten biziarekiko jakin mina
alde batera utziz sentimendu gabeko panpina

ukitu izan banu bezala basoan osina
ondoren arrosaren arantza fina.
Errealitateak egin dit izugarrizko mina
mundutik joateko zer behar da hauts magikoa ala irina?

Biluzik dagoen neguaren antzera jaioa
gizakion lehen negar nahiz txorien txioa
egunez egun amari handitu zaion ilusioa
hainbat galdera erantzun gabekoa.
Aurretik doa lasterketan odol jarioa
Elene, Ane, Nora ala Saioa?
Lehenik burua, azkenik zangoa;
argia bezala piztu zaio bizitzeko gogo.

Pausuz pausu nabil bidean
utzi beharra diot bizitzeari zure menpean
urteen poderioz handitu naiz estalaktiten modura leizean
zubiak eraiki ditut oztopoen artean
elur malutak ditut jadanik ilean
hemen nago zuri agur esan ezinean
topo egingo ote dugu denok leku berean?

Ordua da, ez dago denborarik
bat-batean ahoa geratu zait korapilaturik
aurrean daukat unibertso berri bat iluntasun eta isiltasunaz jabeturik,
aspergarria benetan, bertan ez baitago bizirik.

Damutzen naiz, ez nuen erabili behar ez hauts ez irinik,
hemen ez dago nirea ez den arima gehiagorik;
harrapaturik nago, amesgaizto batetik esnatu ezinik,
mila gauza esan eta egin behar nituen nik.
Berandu da jadanik,
hala ere, nork esan du heriotza erraza denik?

Giza metamorfosia

Oskola hausterakoan sentitu dut lehen bizi-sentsazioa,
ez naiz gai nire kabuz ezer ere egiteko, baina aurrera noa
arrastaka nabil zuk bidea erakutsiko didazulakoan
gustura sentitzen naiz zu edukita alboan
zer izango ote da ikusten dudana, egiazko ezagutza ala haren islada?
Dagoeneko urruntzen hasi da ardura ematen duen haize bolada;
denboraren poderioz, estalki babesle batek inguratzen du nire gorputza:
lehenik burua, ondoren bularra, jarraian sabela, azkenik behatza.
Ez da oso astuna hasieran, eroriz gero zutitu naiteke
prozesu hau har baten metamorfosiarekin alderatuko nuke
nire agintarien hitz faltsuek gaixotzen naute: berdintasun, zoriontasun eta bake.
Oso zaila da pinpilinpauxa baten antzera bititzea aske.
Estalki hau erabat suntsitzeko irtenbideren bat egongo ote?



BORDARI / A MAILA

1. SARIA

Urt Zubiaurre Otamendi

BAKARDADEA

Nobody knows you,
when you're down and out.

ERIC CLAPTON

Egun euritsu bat zen. Hotza baino are nabarmenagoa zen euria. Baina badakigu euria gauza berezia dela, ez baitira euri guztiak euri berbera, sua eta itsasoa bezala. Badaude euri lasai eta eztiak, espaloiak etengabe laztantzen dituztenak; badaude, ere, euri gogor eta amorratuak -tarte-ka gelditzen dira eta berriz hasten direnean, pare bat minutuz kazka-barraren antzeko tanta sendoak botatzen dituzte, hotsa ere antzekoa dute, eta etxe batetik bestera bidean harrapatzen bazaitu, itxaron ez duzulako artean, kolkotik sartzen zaizkizu eta buruan harrikada batek bezala kolpatu.

Azken hauetakoa zen egun hartako euria, kristaletatik ikusten nuena.

Nik neuk aukeratua nuen zitaren lekua, eta aukeratzeko bi arrazoien artean, leiho handi hori izan zen bigarrena, norbaiten esperoan beti

atseginagoa baita leihoaren kontra begira egotea. Kafetegi barruan, goxo, epel, baina aparte aldi berean. Lehenengo arrazoia nire bizkarra zen, hara eraman ninduen arrazoia alegia. Hain zuzen ere, kafetegi hark zituen-eta, nire sorterrian, aulki dezente bakarrak. Beste kafetegietan ez nuen bizkarra jartzeko egurrik atzean, gehienetan banku luzeak izaten baitziren edo, bestela, taburete txiki eta txepel batzuk. Gasteizen aukera gehiago izaten nuen eta nire bizitza hobea izaten zen puskaz (nola botatzen nuen faltan Alde Zaharreko taberna hura, harriz eta egurrez egina...), baina herri txikietan aukera mugatzen da, eta huraxe zen nire sorterrian kafe huts bat hartzeko nuen modu duin bakarra.

Itxaroten ari nintzen pertsona iristerako euriak bizpahiru atake eginak zituen. Hasten zen mantso, tanta ozen batzuekin, eta, segituan, bolumena igo eta uholdearen hasiera zirudien, baretu eta lasaitzen zen arte. Gero, eraso batetik bestera, eguzkiari masailen bat erakusten lagatzen zion.

Bisita sartu zenean, emakumea zela ohartu nintzen lehendabizi. Gero, barrara gerturatu eta zerbait eskatzean, aterkirik ez zeramala jabetu nintzen. Antza, suerteko zebilen, ez baitzekarren bustitasunik ez zapa-tetan ezta ilean ere. Bere pausoak pauso luzeak ziren eta, nik keinurik nimiñoena egin gabe, nengoen mahaira hasi zen gerturatzen.

-Ez dut oraindik erabaki –esan nion aulkian jezarri zenean.

Ez dakit zergatik esan nion hori, ezen esaldi horrek kontrakoa baitzirudien nire eztarrian, hau da, erabakia hartua nuela dagoeneko eta berak jakitea nahi zukeen lehen gauza horixe bera zela. Nolabait esateko, ez zuen gure elkarrizketa alferrikakoa baino egiten.

Lehenago ez nintzen horrelakoa. Gauzak luzatzea eta patxadaz hartzea gustatzen zitzaidan: jendea ezagutzea, hitz pare bat asmatzea..., baina nire arazoa hain luze zihoan, hainbeste egun eta hilabete eta urte, ezen ni nintzena ere gezur bat zen jadanik, umetako argazki bat begiratzeari ez zaudela dakizun moduan nekien nik hori.

-Ondo da –esan zuen berak-. Hitz egitera etorri naiz soilik. Besterik ez.

Igarri nion, ordea, hori ere ez zela egia. Begietara begiratu baitzidan, eta erreparatu nion aditzen zuela nire bozak benetan esaten zuena, nirekin zazpi urte bizi izan balitz bezala begiratzen zidala, emeki, lasaitasunez.

-Bizkarrean da, ezta?

-Bai.

-Zenbat denbora daramazu horrela?

-Bederatzi urte.

Bere begiek berriro epaitu ninduten. Otu zitzaidan, oraingoan ere, jakin zuela ez zirela bederatzi, ezta hamar ezta hamaika. Ale batzuk gehiago ziren, baina hainbeste alditan gezurra esaten duenak ez du erremediorik jada, eta berak ere hala uste zuenez ez zidan ezer esan horri buruz.

Horixe baitzen hain justu nire bizitzaren erroa. Eta baita bisita haren muina ere. Jada inori ez nion egia esaten. Inori ez nion nire bizkarraren kontua aitatzten. Denak bihurtuak ziren nire etsai eta munduak galdua zuen niretzat fidagarritasun osoa.

Hori antzeman zuen berak erraz, eta ulertu nuen (orain nik ere irakurtzen bainuen bere gogoia) gehiegi itxaron nuela berari deitu aurretik eta ez zuela merezi horrela bizitzeak.

-Badakit nola iritsi zaren hona –esan zidan-. Denok iristen zarete antzeko tesituran. Hasten zarete kexuka, bizkarra dela, belauna dela, edo zer dela... Joaten zarete medikuarengana eta gero espezialistarengana eta frogak eta bestea eta hurrengoa...

Bere hitzak errobat batenak ziruditen. Ateratzen ziren bata bestea- ren atzetik, eta zirudien arnasik ere behar ez zuela solasteko. Ez ninduen harritzen batere, bere ofizio bitxia aintzat hartuta, zenbat aldiz esango zituen hitz horiek?

Eta hala ere, jakin arren diskurtso hura hamaika aldiz egina zela, niretzat ihintza bustia bezala ziren bere gogoetak, entzun nahi nituenak alegia. Nik ere egina bainuen medikuen buelta txepel hura. Lehendabizi kabezerakoarengana, gero espezialistarengana; baita traumatologo pribatuan dirutza galanta utzi ere. Eta denengan jasoa nuen erantzun berbera: nire gaitza ez zela “muskularra”. Ez zela froga zientifikoetan agertzen. Eta hain era merkean lapurtu baitzidaten, lehenengok denbora eta bigarrenak nire autoestimaren zati dezente... Eta gainera bazirudien euren ezintasuna nire errua zela, euren ez jakitea edo interes falta ene errua..., nire gaitza neronek sortuko banu bezala.

-Hori ez da okerrena -atera zitzaidan.

-Ez, noski. Okerrena zure lagun eta familiarena da. Hasieran sinesten dizute. Eta errukiz begiratzen dizute.

-Erruki hori balitz bakarrik!

-Baina errukia aldatu egiten da. Zeren hasierako pasio hori, urtetan aurrera zoazenean, aldatu egiten zaie. Hasieran minaren errukia da, euren ez duten sufrimenduarena. Gero nazkatzen dira zure kexuekin, eta beste alde batera begiratzen dute.

-Bai.

-Gero azkenean nazkatzen dira beste aldera egoteaz, eta nahiko luke te zu eurengana bueltatzea, eta uste dute soilik egin dezakezula minarena ukatuz, ez aipatuz, finean zu baitzara mina duena (edo mina duela dioena) eta ez beraiek. Zu zara segi eta segi ari zarena. Zu zara bakar tzen zarena.

-Bai. Erruki hori askozaz okerragoa da.

-Nahasia dagoelako gaitzespen batekin. Eta azkenean aukeratu behar duzu. Edo antzeztu eta jende artean jarraitu edo minari eutsi.

-Horixe bera.

Nik azken hamabost urteak neramatzan desafio horrekin. Zer egin?

Egia esaten jarraitu? Nola baina!: jada ia ez nuen lagunik, jada ez zidaten deitu ere egiten. Dena zihoan okerrera, eta, hori gutxi balitz, mina ja ez zen hasieratako min intermitentea. Orduan, gaztea nintzela, joan eta etorri egiten zitzaidan eta, azkenean, nazkatzen nintzenean, ez nion inori esaten, banekielako alde egingo zuela. Uste nuen, nire inozentzian, neguak edo hotzak eragiten zidatela. Gero ordea udaberrian eta udan ere irauten zidan. Eta ez zen sekula joaten, pare bat aldiz urtean eta laster bueltatzeko.

Nire gertukoek ezin zuten jasan. Ez nintzelako joaten inora, ez nuelako lanik bilatu nahi edota ohean pasatzen nuelako bizitzaren zati handi bat. Eta hori aguantatzen zuten estoikoki.

Baina norbaitekin hitz egin behar nuenean..., orduan belzten zitzairen keinua. Ze komeriak arreta aurpegia mantentzeko, “entzuten dizut” aurpegia paratzeko. Eta badakit etxeratzean zer zen pentsatzen zutena. Pentsatzen zuten: “ezin dut tipo hau jasan”, gaizki sentitzen baitziren, batzuk, nire min imaginarioa segitzeagatik, eta, besteak, aldiz, ezekin gaizkok merezi duen estimua itxuraz soilik eskaintzeagatik.

-Badakit ez dutela kulparik, baina...

-Hori da –esan zuen-: denak hilko zenituzke.

Edaten ari zena ez zen alkohol gogorren bat baizik. Whiskya edo rona behar zuen, kolore iluna ematen baitzion zerbaitek. Gainontzekoan trago txikiekin egiten zion aurre bere lanari. Eta basoa mahaiean uzten zuen bakoitzean bere begi berdeekin begiratzen zidan.

-Ekarri al duzu dirua? –bota zidan derrepente.

Orduan ikusi nuen argi. Konturatu nintzen nik behar nuen hizketa (ez psikologoak ez apaizak ez Santa Teresak eman ezin zidana) bereztat hamaika aldiz entzundako kexua besterik ez zena. Nire lagun eta harreman guztiak batuz gero, ez baitzen hainbeste kalamitate entzundakorik. Eta, egia esan, hizketan jarraitzeak gauzak luzatu besterik ez zituen egiten.

Normala zen beraz elkarrizketa etetea. Eta hala egin zuen berriz ere.

-Badakizkizu tarifak?

-Bai. Hamar mila euro. Edo...

-Edo hogeita mila, zure begiekin lekualdatzea ikusi nahi baduzu.

Eskua luzatu nuen nire motxila gorrira. Eta lasaitu nintzen nire behatzek sobrea ukitzerakoan, inoiz ez bainuen hainbeste diru soinean eraman.

Kontatzen hasi zenean erreparatu ahal izan nion lasaiago. Ordura arte ez baitzituen bere begiak jaitsi eta ez baitzidan, ondorioz, bere aldartea benetan zein zen jakiten utzi. Bera zen ni epaitzen eta sailkatzen ninduen, ez ordea jendeak egiten zuen era maltzurtean, saiheska eta iskinean gordez. Berak zuzenean epaitzen ninduen, baina nik ezin nion kargurik hartu horregatik, zeren eta berak ezagutzen ninduen inork baino hobeto, edota, modu egokian esateko, berak ezagutuko baininduen inork baino hobe.

-Banekien –esan zuen kontatzen amaitzean-: denek egiten duzue gauza bera.

-Barkatu –atera zitzaidan; baina hitzok ere ez zuten deus ere balio, inoiz esan nituen faltsuenak eta gaiztoenak baitziren.

Berak ez zuen ezer esan. Basoan geratzen zitzaion tanta miazkatu zuen, mantso, bigun, garai bati agur esaten dionak bezala. Eta orduan harrapatu ninduten bere begiek azken aldiz, eta une horretan hasi nintzen aldaketa sumatzen bere begietan, zeren estutu baitziren eta lotu bere nerbioetara, eta besoa eraman nahi izan zuen leku hartara (bizkarrak eta gerriaren arteko muinaren muinera), baina zerbaitek, duintasun klaseren batek edota urte askotako jakinduriak, alferrikakoa zela esaten zion.

Nik ez nekien zer egin: han geratu edo kafetegitik irten. Baina hantxe egon nintzen bera agoniara ohitzen zen artean, bere eraldaketa isila ikusten. Eta ez bakarrik ordaindu niolako. Izan ere, zerbatek hantxe irautea zor niola esaten baitzidan: konturatzean -ari baitzen kontura-

tzen- zein merke ziren hogeï mila euro, edo berrogeï edo laurogeï mila..., ni iraintzeko edo are jotzeko aukera eman behar niola... Halere, bere begietan ez zirudien errurik ezer leporatzen zidanik, baizik sinpleki tratua egina zela eta zintzo jokatu nuela hasi eta bukatu zen artean. Eta egon beharko zukeen, plazer zitalegia sentitzen bainuen berari begira, sekula sentituko ez dudan plazer erabatekoa alegia.

Azkenean, bera izan zen jaikitzen lehena. Eta ikusi ahal izan nuen nola emakume hura zen sendotasunaren irudia, eta nola ateratzen ziztaion arnasestu bat pausu bakoitzean, eta nola hasperen ia ezin aditua zerion bere ahoari, eta nola kafetegiko bezeroek ez zuten gauza horien berri, ez baitziren bera eta nire galaxian bizi.

Kristalean euria zen nagusi, eta ostatuko ataria ere gero eta gehiago bustitzen zuen haizeak. Emakumea dudan egon zen. Ez zekien pausoa luzatu edo atertzeari itxoin. Baina nik banekien ezingo zuela sostengatu eta ibilzeari ekin beharko ziola; nonbaiten etzateko beharrak irentsiko zuela; zutik mina gehiegizkoa baitzen. Eta, euriak atertzera egitea opa nion arren, aterkia hartu eta bera tapatzera joateko imintzioa egin arren, egia esan, ez nuen hanka bat bera ere mugitu. Beste kafe bat eskatzea otu zitzaidan. Berea ez baitzen jada nire arazoa.



BORDARI / B MAILA / Hondarribia

1. SARIA

Laura Gallego Apecechea

IHESLARIA ETA NI

Begirada zeruan.
Burua are urrutiago.
Belardian eserita.
Eskuak belarretan jarrita.
Entzungailuak belarrietan jarrita.
Hegazkina.

Han goian egon nahiko nuke. Nonbaitera bidaiatzen. Lekuz aldatzen.
Hiriz aldatzen. Jendez aldatzen. Gainera kakahueteak ematen dizkizute
dohainik.

-Nonbaitera al zoaz?

Atzerantz begiratzen dut. Irati dago, bidaia-poltsari begira. Entzun-
gailuak kendu eta eskua jarri dut begien gainean. Eguraldi ederra ari du
eta eguzkitakoak ahaztu zaizkit. Baina ezin etxera itzuli.

-Bai.

Begira gelditzen da, zerbaiten esperoan. Arrazoiaren bat edo. Nik erlo-
jua begiratzen dut. 15 minutu.

-Nora zoaz?

-Aitarenera. Berarekin bizitzera noa.

-Bai zera. Txantxetan zabilta.

-Badakizu benetan ari naizela. Mundu guztiak daki, hemendik alde egin nahi dut. Ez dut hemen bizi nahi. Ez dut institutura joan nahi. Ez dut hemengo jendea maite. Denak dira hain ergelak ... Zu ez Irati. Badakizu zu gustuko zaitudala.

-Bai, beno... Ez dut uste benetan joango zarenik.

-Autobusa hartuko dut 10 minututan. Ikusiko duzu.

Nire gauzak hartu eta martxan jarri naiz, muinoan behera, tren geltokira. "Bidai on!" esan duela entzun dut.

Eskerrik asko.

Txartela erosi dut Bordeaux-era. Ondoren Bordeaux-en trena hartuko dut Parisera eta Paristik nire aitaren etxera.. ez dakit. Inprobisatzen ari naiz.

Autobusa badoa. Kale zikinak agurtzen ditut begirada zorrotzez. Tren geltokiko ingurua itsusia da oso. Gutxi dago ikusteko. Etxebizitza gehiegi zenbatzeko. Denak grisak, berdinak, tristeak, malenkoniatsuak. Haien atarietan, gazte talde batek egindako graffiti lizunak. Parkean, ezkutuan, haur talde bat bere lehen zigarroak erretzen. Garajeetan, "yonki" bat, azkenekoa izan daitekeen dosia hartzen.

Atzean usten dut nire auzoa.

Autobusa institutuaren aurrean gelditu da orain, trafikoa dela eta. Nire klase-kide batzuk ikusten ditut, seguruenik biharko azterketarako liburutegian ikasten gelditu direnak. Hauek ez dira nire auzoan bizi. Eta gogorarazi egiten didate egunero. Hala ere, nazka handiagoa ematen didate beraiek eta haien azaleko mundu hori, igande goizean, nire auzoko kaleetan topatzen ditudan okadak baino. Nire gelakoek ikusi nauten eta begira daude. Eskua itxita altxatzen dut, baina ez dut agurtzen, erdiko behatza agerian uzten dut. Inoiz arte.

Bi ordu.

Gasolindegian gaude, atsedenaldia da. Eguraldi ederra dago, jendeak dendan zerbait erosten duen bitartean belardian etzango naiz. Hain dago ederra eguraldia..

Loak hartu nau. Kaka. Autobusa. Ez dago. Joan da. Galdu dut. Baina zein ondo egin dudan lo, aspaldiko partez.

Kafetegian sartu naiz hurrengo autobusa noiz etorriko den galdetzerara. Nire frantsesa mailaz arro nago. Aitak erakutsi zidan. Frantsesa da.

-Ezin dugu jakin noiz etorriko den hurrengo autobusa. Ez da beti gasolindegi berdinean gelditzen.

Nireak egin du. Baina ez naiz etxera itzuliko. Ez diot nire amari deituko. Ingurura begiratzen dut: Kamioilariak, Brandy tanta bat baino gehiago daukaten kafean daude murgilduta. Bere gauzetan pentsatzen, bere zigarroak erretzen, nahiz eta debekatuta egon. Bat ezik.

-Nora zoaz?

-Bordeauxera.

-Ni Nantesera noa. Nahi baduzu eramango zaitut.

Zerbitzariak betondoa iluntzen du, edalontziak garbitzen ari den bitartean. Zentzudun jokatuta, ezetz esan beharko nuke. Ez dut ezagutzen. Kamioilari potolo, zahar (eta agian gordin) bat da, eta ni hamazazpi urteko neskatxa bat.

-Ongi da.

Beti amestu dut kamioi batean bidaiatzearekin. Musika zaharra jarri du eta zigarreta bat piztu du. Helplessly Hoping – Crosby, Stills & Nash. Pablok musika ona balioesten erakutsi zidan aspaldi. Bat eskaini dit. Ez, eskerrik asko.

-Gazte dirudizu bakarrik bidaiatzeko.

-Eta erretzeko ez?

Orduan, Jainkoak daki zergatik, nire bizitza kontaktzen hasi natzaio. Ez bakarrik nire ihesa. Ezta nire bizitza osoa ere, baina nola banandu

ziren nire gurasoak, elkar bizi ezin zutelako, elkar maite ez zutelako. Nire aitaren arteak, ulergaitza zirudienez guztientzat, dirurik ekartzen ez zuela. Nire amaren mespretxua berarekiko, berak gogor lan egiten zuelako. Builak, istiluak. Agurra. Malkoak. Aita urtean bitan ikustea, bantzerakoan jaioterrira itzuli zelako. Nire anaiaren metamorfosia. Horrek ekarri zituen arazoak. Nire ama egongelan, asteazken arrunt batean, goizeko bostetan, bere zain. Ni ohean, etortzen zeneko builak ez entzuteko, loak noiz hartuko ninduen zain. Drogak, borrokak, polizia, erreformatorioa. Bisitak. Heldua egin zenean, ihesa. Ihesa kartzelara joatetik, etxetik, gure bizitzetatik. Beste agur bat. Malko gehiago. Nire amaren axolagabekeria. Horrek nigan eragin zuen gorrotoa. Gizonekin egoteko erraztasuna. Astero tipo ezberdin bat ikustea nire sukaldean gosaltzen, nire katiluarekin, nire zerealak jaten. Horrek eragiten zidan nazka. Nire eskola, nire klase-kideak. Nire lagun falta.

-Lagun bat gutxienez izango duzu.

Bai, egia esan, badaukat bat. Neukan. Daukat. Ez dakit. Ez dut agurtu. Baina beti esan ohi diot egunen batean alde egingo nuela. Eta Pablok bazekien benetan ari nintzela. Beraz, abisatuta zegoen. Ez dut uste nire ihesak gehiegi harrituko duenik. Barkatuko didazu, Pablo?

Bi ordu.

Iritsi gara Bordeauxko tren geltokira. “Zorte on” bota du leihotik, eta nik “eskerrik asko”, “mila esker”, oihukatu dut, eskuarekin agurtzen nuen bitartean. Benetako aingeru zaintzaileek tatuajeak daramatzate beso iletuetan eta zigarretak erretzen dituzte.

Bederatziak dira ia, baina hamaikak arte ez dago Pariserako trenik. Paseatzera joango naiz pixka batean. Geltokiaren aurreko errepidea luzea da oso, eta farolek argizatzen dute. Eta hauen gaintik, telefono zutoinen kableek amaigabeak dirudite. Gutxi argizatutako espaloitik noa, ezkerrean tren geltokia eta eskuinean etxe lerroa dudala. Aurrera joan ahala, Graffitiz betetako paretak eta itxura txarreko industrialde bat ikusten dut. Nire auzoa ekartzen dit gogora. Ordu bat pasa da. Itzuli egin behar naiz.

Behin nire eserlekuan, mp3a pizten dut. Kanta honek nire soinu-banda pertsonala dirudi.

Eta herri hau utziko dut, jende suntsitu hori guztia utziko dut

Nire botak diamantezko errepedean, karga pisutsua atzean

Eta itzuliko naiz egunen batean, ez badut bidea galtzen

Ez negarrik egin neskato, utz ezazu trenaren txilibituak zugatik egin dezan

Trenetik jaistean mugikorra begiratzten dut, hurbileko ostatu edo aterperen bat bilatzeko. Ping. Ping. Bi dei galdu. Biak nire amarenak, duela bi ordu. Ordu ona etxean falta nintzela konturatzeko. Aizu, ez naiz kexatuko. Bi dei jaso ditut eta ez nuen bat ere espero. O! Mugikorra irristatu zait nahigabe trenbidera. Ezin izango dut ostaturik begiratu. Nire amak ezin izango du gehiago deitu. Tamalgarria.

Goizeko hirurak dira. Parisen nago, Quai de Bercy-n, zehazki. Ez dakit zer hostia egin.

Sena ibaia eskuinean eta bidaia-poltsa ezkerreko sorbaldan daramadala, gaua pasatzeko toki baten bila nabil, eta ez dago jenderik kaleetan galdetzeko. Metro pare bat aurrerago, parke bat dagoela dirudi. Hesiarren gainetik egin dut salto. Dena berde, ilun, garbi, isil. Bat-batean, gizon bat. Banku batean etzanda dago, lo zakuaren barruan goxo-goxo. Ze inbidia. Motxila bat eta bi ardo kartoi ditu lurrian. Zuhaijketan ezkutatutik, bizikleta marroi ilun bat. Etortzeko keinua egiten dit eskuarekin.

-Arriskutsua da neska politak bakarrik ibiltzea gaueko hiruretan.

-Ez daukat non lo egiterik.

-Eta gainera atzerritarra! Zatoz, hartu tapaki bat, soberan ditut.

Artilezko tapaki bat eta beste lo zaku bat atera ditu motxilatik. Eman dizkidanean bere aurpegi zimurtuak zirrara handia sortu dit. Zahartua eta higatua izan arren, oso aurpegi polita du.

-Axola zaizu hemen ondoan geratzen banaiz?

Irribarre egiterakoan gehiago zimurtu zaio aurpegia.

Eta horrela, Pariseko erdigunean, isiltasun ederrean, ezagutu dut Olivier. Olivier musikari ohia. Olivier alarguna. Olivier etxegabea. Eta nola ez, nire bidaia kontatu diot, eta baita bidaiaren arrazoiak ere.

-Badakizu zer? Uste dut autobusa nahita galdu zenuela. Kamioilariarekin joan zinela, gauzak aldatzeagatik edo. Eta orain, helburutik hain gertu, hemen gelditu zara nirekin, iritsi nahi ez duzulako. Zerbait gertatzea nahi duzu, zerbaitek iristea galaraztea. Zuk bidaia egin nahi zenuen, handik alde egin, baina helmuga finkorik gabe. Aitzakia zen, besterik ez.

-Baliteke.

-Eta ez duzu zure lagun horretan, nola da.. bai, Pablo horretan pentsatu? Beste zerbait merezi du, ezta? Eta zure amak. Zer egingo du zure amak, zu gabe, “zabortegi” horretan? Eta zure anaiak itzultzean? Zer pentsatuko du zu ez zaudela ikusita? Ez duzu uste gauzak beste modu batean egin behar direnik?

-Baliteke.

Lo zakuan sartu dut burua, argi utzi dut lo egiteko unea iritsi zaidala.

-Non bizi da zure aita?

-Viels-Maisons – herriaren izena murmurikatu dut, lo zaku barrutik.

-O Viels-Maisons! Bizikletaz lau ordutara dago, erritmo ona hartuz gero..

Esnatzerakoan, goizeko eguzki izpiez gain, zuhaixken hostoen ihintza da ikusten dudana lehenengo gauza. Gero haur txiki bat bere amaren eskutik helduta, niri begira. Ondoren Pariseko parke batean nagoela, lo zaku batean. Azkenik ez dagoela Olivier. Ez dago bere lo zakua, ez dago bere motxila eta ez daude bere ardo kartoiak. Baina bere bizikleta dago.

“..bizikletaz lau ordutara dago, erritmo ona hartuz gero..”

Eta erritmo ona hartzen dut. Hiruretarako, herriaren sarreran da-
goen Pariserako kartela atzean utzi dut. Atzerago “Route de Paris”.

Arratsaldeko hirurak eta laurdenetan lorategiaren aurrean nago, nire aitona-amonen harrera irudikatzen. Baina ez da harrerarik egongo. Txirrina jotzen dut, ez dago erantzunik. Atariko eskaileratan dagoen zeramikazko ipotxa altxatzen dut. Nire aitonak esan zidan: “Inoiz etor-tzen bazara, jakin ezazu Pierrek sartzen utziko dizula.” Pierre ipotxak berak baino gehiago iraungo zuela iragarri zuen.

Etxe barruan dena dago ilun, eta usain txarra dario. Egongelan, lu-rrean botatako mihise eta botilen artean, mahai bat dago, eta papera eta pintzel guztien gainean zerraldo botata nire aita, suposatzen dut. Bere gorputza bultzatzen dut, baina ez da mugitzen. Ile likatsua. Ron usaia. Arropa zikina. Hautsontzia beteta. Burua hustuta. Arrastaka ko-munera eramaten dut, eta kostata baineran sartzea lortzen dut.

-Alicia..? Alicia, zeu al zara?

Ez naiz zure emazte ohia.

-Marie..?

Ezagutu dudan zure azkeneko neskalaguna ere ez.

-Libe naiz aita.

-Libe? Zer..? Zertan.. Zergatik zaude zu hemen?

Zer, zertan, zergatik. Galdera onak. Bizi naizen tokia gorroto dudalako. Etxetik ihes egin dudalako. Jendea ergela delako. Setatsua naizelako. Musikaz dakien kamioilari batek salbatu zidalako. Musikaria izan zen etxegabe batek bizikleta utzi zidalako. Maite dudan jendea daukadala konturatu naizelako. Ergel horiek izorratzen jarraitu nahi dudalako. Ni-rekin ez daudenak faltan botatzen ditudalako. Aske sentitu naizelako. Nire buruaz baliatu naizelako. Bakarrik. Ni neu. Baina batez ere ikasi dudalako, garrantzitsuena ez dela helmuga, bidea baizik.

-Etxera bueltan eraman behar nauzulako.

2014





SATARKA / A MAILA / Hondarribia

2. SARIA

Ane Garcia Lopez

URTAROEN MEMORIAZ

Aspaldi ito nintzen. Orain, puztuta, hondoan etzan naiz.

Arrainak nire barnean dira bizirik.

Itsasoa agortzen ari da.

Bertolt Brecht

Begi hutsez begiratzen du hiria naufragoak.
Antzinako kanta bat kantatu zidan behin,
ez dakit hiri honetan
edo beste batean.
Aurpegi honekin
ala beste batekin.

Esan zidan kale kantoietan esertzen zela egunero
esan zidan egarri zela gauza guztiez beteriko mundu honetan,
ez zuela zer edanik.
Botilen hondoarekin topo egiten zuela maiz

eta
udazkenari orbelak lapurtuta
garagardo botilatan udaberriari bidaltzen zizkiola,
etor zedin.

Nork daki urtaroen memoriaz?

Semaforoak baino ez zituen ikusten,
haien barneko irudi gorri eta berdeak
elkarren bila.

Zer da esperantza?

Begi etsiz begiratzen du hiria naufragoak.
Itsasoa haien barnean da.

*Lydia, gure udazkena datorrean,
haren altzoan negua dakarrela...*

Ricardo Reis

Maitaleak neguan

Maitaleak neguan
izara artean dantzan
kimuak egiten
udaberria iristean
zuhaitzetan itsasteko.

Zer da esperantza?
Zure ahoa
zauri ireki bat da.
Zer gara gu
neguan
loratu diren zauriak baino.

Esaiozu udaberriari etortzeko.
Bere argiek
zuhaitz gorpuak,
antzinako elurretan
jainko greziarrak imitatu nahirik
estatua bihurtu zirenak,
laztandu behar dituela.

Eta zure gorputza berriz bizirik.

Ihintza neguan

Gaur hasi da negua,
leihoak esan dit.
Ireki eta ihintza sartu da,
euririk isilena.

Zure azalean pausatu eta urtu,
hiria leku krudela da eta ihintzak
ihintz izan nahi du,
urez jantzi,
jausi gabe zarata egin.

Leihoa itxi,
zure alboan etzan,
nik ere ihintza izan nahi dut,
azala uztearen artea.

Dantzarik primitiboena.

Barrena

*Baina, oh maitea,
esadazu zuk ere egingo zenukeela barrenera igeri,*

*esadazu bilatuko ninduzula,
hemen behean ezin arnasarik hartu-*

Kathleen Jamie

Laku baten erdigunera joan nahi nuke zurekin
eta hiria kanpoan laga.
Arroparekin batera kuzkurtuta ahantzi
gure beldurrak eta batzuetako itolarria,
ez dagozkigun zamak.

Lakuaren erdigunera joan nahi dut zurekin
gogoratzeko ez garela malko, izerdi eta listu artean
itoko, eta inguratzen gaituen ur geza
gu bezain biluzia eta babesgabea dela.

Lakuaren erdigunean laztanez urrutira

bidaliko dut orain itotzen zaituen hori
eta etxera bueltatzean,
gure ohearen sakonenean zure bihotza ukituko dut,
nire eskuetan bildu
uretatik kanpo den arraina balitz bezala
lasaitzeko,
eta zu inguratzen zaitudan artean aitortzeko
nigan igeri egin dezakezula.

Nola deskribatuko zenioke sua itsu bati?

Raymond Carver-en "The cathedral" irakurri artean

Lehen dardara

Begira, sartu da udaberria.
Hostoak ernatu dira poliki,
atera dira kimuetatik
haur jaioberrien eskutxoan
indarraz eta dardaraz.
Zimurtuta edan dute lehen
airea, hiriko aire zikina.
Eguzki esnatu berriak itsutu ditu
eta halere
nagiak ateratzen jarraitu dute,
zuhaitzen nekea izanik mundu honetan
ahaztu nahi duten lehen gauza.



SATARKA / B MAILA

1. SARIA

Jone Roncal Beraza

ATZO BERTAN

Atzo bertan jaio nintzen,
atzo bertan hazi,
atzo bertan bizi.

Bizitza egun pare bat dira,
bi egun era mila gau.
Mila gau era bi egun,
haize bolada bat
eta lau arnasaldi.

Atzo bertan hasi nintzen ibiltzen,
atzo bertan hitz egiten,
atzo bertan irribarre egiten.

Pausu ziurrak ematen ditut,
konfiantza aurkitu behar dut
neure buruarengan,
sentitzen dudan hori
nire zerua den horri esan
eta nire irrifarra bere eskuetan utzi.

Atzo bertan hasi nintzen bizitzari abesten,
atzo bertan berari dantzatzan,
atzo bertan barre egiten.

Atzo bertan galdu nintzen,
atzo bertan erori,
atzo bertan altxatu.

Batzuetan
nire barrunbeetan
ez dut irtenbiderik aurkitzen,
eta etsita sentitzen naiz,
baina ez dut amore emango, ez,
ehun aldiz erorita ere.

Atzo bertan ikusi nuen, atzo bertan ezagutu, atzo bertan maitemindu.

Aingeru bar, bakeroekin jantzita, urrezko ilea, diamantezko begiak,
izarren distira baino are indartsuagoa.
Hain eder, hain zoragarri. Ez zaitez nire albotik joan.

Atzo bertan ikasi nuen bizitza miresten,
atzo bertan momentua bizitzen,
atzo bertan zoriontsu izaten.

Inguratzen nauten pertsona hauekin hain zoriontsu izaten,
haien beroa sentitzen,
daukaguna miresten.

Atzo bertan jaio nintzen,
atzo bertan hazi, atzo bertan bizi.
Atzo bertan,
gaur arte.



BORDARI / A MAILA

1. SARIA

Olatz Mitxelena Larreta

OINORDETZAK

Barre ikaragarri itsusia zuen, nazkagarria. Normalean alaitu egiten gaitu beste bat barrez ikusteak, eta batzuetan irribarrea sorrarazten digu; ba Martaren barreak barrenak nahasarazten zituen kasik. Ahoa gehiegi zabaltzeko modua, sorbaldak gora eta behera dar-dar anakronikoan, eta orroa, batez ere orroa. Ez zen emakume itsusia, baina munstro txiki bat ematen zuen barrez hasi orduko.

Gorroto nuen beraien etxera joatea, baina patuaren kapritxo zitalak: senarrak lagun-minak ziren. Hitz egina genuen Iñakik eta biok, elkarrekin afaltzera joateko planik ez egiteko, kosta ala kosta saihesteko, mendira joateko elkarrekin edo pilota partidak egiteko edo taberna zuloan sartuta egoteko, baina elkarrekin afaltzeko planik ez. Esajeratu egiten nuela esaten zidan Iñakik, ezin nuela hain mokofina izan, txorakeria bat zela barrearena, aitzakiarik ez jartzeko.

Xabiren urtebetetzea zela eta afaltzera gonbidatu gintuela esan zidan gau batean Iñakik, lepo aldean musu ematen hasi zitzaidanean.

- Berdin didate musuek, ez dut pentsatzen beraien etxera afaltzera joaterik. Eta nahikoa hitz egina dugu honetaz. - Bizkarra emanaz.

- Ezin izan diot ezetz esan. Gainera semeak ere lehenengo urtebetetzea omen du laster, eta joan beharra dugula esan dit, sinfalta.

- ...

- Zer, bai?

- Ez! Ez al zaizu argi geratu?!

Gogoratzen dut azkenekoz elkarrekin afaltzera joan ginenekoa. Ordukoan lortu zuen Iñakik konbentzitzea, gustukoen nuen jatetxean ginen eta afaltzekoak. Postrearekin batera izan zen. Kopa baten eta beste baten eta beste baten ondoren Martari grazia handia egin zion Iñakiren txiste txar batek; niri batere ez. Barrez hasi zen, bueno, edo barre egin nahi duenean egiten duen gauza hori egiten, eta hasi zen ahoa zabal-zabal eginda orroka, begiak itxi-itxita eta ahoa zabal-zabal, eta sorbaldak gora eta behera erabat modu desordenatuan, eta eskuekin ez zekien zer egin eta traba egingo baliote bezala mugitzen zituen -nahitaez egin behar zioten traba egia esan esku haiek-, eta orroka segitzen zuen eta arnasa falta zitzaion momentu batzuetan; orroak sudurrak egiten zion soinu arraro batekin nahasten ziren orduan, eta hainbeste mugimendurekin mantxa arrosa itsusi batzuk atera zitzaizkion lepoaldean eta aurpegian, eta Xabik ere barreari ekin zion orduan (nik uste dut espektakulo lotsagarri hartan emaztea bakarrik ez uzteagatik egin zuela) eta Martari grazia handiagoa eman zion horrek eta ahoko zuloa are ageriago eta eskuak eta besoak ere traban eta sorbaldak erritmo berri batean eta orroa. Etengabe orroa. Batez ere orroa. Tripan korapiloa egin zitzaidan, eta ezin izan nuen nire gazta-tarta gustukoena jan.

Gogoratzen dut lehenengo aldia ere, Martaren barrea -edo gauza hori- ezagutu nuenekoa. Ez dakit zer ospatzea okurritu zitzaien Xabi eta Iñakiri, kontua da elkarrekin bazkaldu genuela gure soziedadean. Bazkariaren hasieran izan zen. Marta barrez hasi zen, nik artean ez nekien ezer, eta begira-begira geratu nintzaion, harrituta, aurrean nuena ezin sinetsita. Xabik irribarre egin zidan “bai, normala da, horrelakoa da Marta” esanez bezala. Bazkarian ahora koilarakada bat eramaten nuen aldiro etortzen zitzaidan burura Martaren irudia, ahoa zabal-zabal eginda, gorputza dar-dar deabrutu batean, eskuak beste gorputz batenak izango balira bezala, eta orroa. Gero eta zailagoa ari zitzaidan egiten mokaduak irenstea, eta ondoezik nengoelako aitzakian kama-

mila hartu nuen. Horrela ezagutu nuen Marta. Horregatik, Martaz hitz egiten genuen bakoitzean orro hura eta kamamila gustua etortzen zitzazkidan gogora.

Atsegina zen, emakume jatorra, baina barrea. Pelikula tragikoak ikustera joatea zen berarekin egin nezakeen planik seguruen. Horixe proposatu nion Iñakiri, pelikula bat, trago pare bat hartu eta etxera. Bizkarra berak eman zidan orduan.

- Afari bat da, ez dut ulertzen nola jartzen zaren horrela -esaten zidan haserre Iñakik.

Ulertzen nuen Iñakiren haserrea eta ulertzen nuen lagun-minaren etxean afari bat egin nahi izatea eta ulertzen nuen ni konbentzitzen saiatzea ere, baina barrea.

Gogorra da bene-benetan nahi den haren aldeko borroka. Euliak egongelako leihoan kristalaren kontra nola, halaxe aritu nintzen behin eta berriz eta behin eta berriz aitzakia onen bat jarri nahian. Buruko minak, pelikula on bat estreinatzen dute, ilobaren urtebetetzea, amari lagundu behar diot, laneko kontuak, eta zergatik ez bi gizonezkoak bakarrik?, hilerokoa, bizilagunaren txakurra zaindu behar dut, dieta, kontzertua beheko tabernan, lagunekin afaria aspaldiko partez, ongi da. Konstantzia gupidagabe eta alferrikakoa, azkenean amore eman behar izan nuen.

Ez dakit zein irizpideren arabera hartzen diren erabakiak, zerk eragiten duen “ez” batetik “bai” batera pasatzea; baina aldaketa ez da hizki kontua soilik. Badira mundua aldatzen duten erabakiak, eta mundua aldatzea erabaki eta ezer aldatzen ez dutenak. Ez dakit zer esango luketen horiek eta ez dakit zer esango luketen filologoek, baina erabakiak damuen familia semantikoan sartu behar lireratekeela konbentzizuta nago. Damua da erabakiaren habitat naturala.

Iritsi zen eguna eta joan ginen Xabiren eta Martaren etxera. Irribarretsu hartu gintuzten, oso atseginak dira egia esan; eta hango eta hemengo kontu batzuen ondoren mahaian jarri ginen. Aitor ere, semea, harro-harro zebilen urtebeteko baldartasunean, lurrera erori ez ero-

ri dudatan balebil bezala. Ni ere Aitorren antzera, baina beldurtuta, munstroa azaldu eta lurrera noiz eroriko zain kasik. Elkarrizketa bide onetik zihoan: Iñakiren enpresa bezala, Martarena ere gainbeheran zihoan eta protestak egiten ari ziren duela bi hilabetetik hona. Egoera jasangaitza, EREak, nahi dutena egiten digute, ez dago eskubiderik, langileon indarra, baina ez da aski.

- Zenbat langile kanporatu dituzte zuen enpresan? -galdetu nion Martari.- Xabirenean berrehun bat bota dituzte eta hurrengoa bera izango ote den beldurtuta gaude.

Pelikula tragikoak baino seguruagoa zen krisiaren gaia. Burura etorri zitzaizkidan datu guztiak bota nituen bata bestearen atzetik: %26ko langabezia, pobrezia energetikoa, haurrak janari faltan, aurreikuspenen arabera ez du hobera egingo... Aitor zen afariaren tonu grisarekin keaxtzen ari zen bakarra. Aspertzen ari zen, nonbait, eta mahaira eta hitz ulergaitzetara lotzen zuen aulkitxotik atera nahi zuen. Eskuekin parean harrapatzen zuen guztia lurrera botatzeari ekion zion, garrasi batean. Ongi atera zitzaion estrategia: bi segundoren buruan begira-begira zituen zortzi begi, irribarretxo ezin atseginagoak eskainiz.

- Begira, ez dakizue ze algarak egiten dituen horrela jarrita -eta Xabik masailak puztu-puztu eginda jarri zituen eta bi eskuez belarriak neurri sinestezinetaraino zabaldu.

Aitor geldi-geldirik geratu zen une batez. Aitari begira irribarre zabal-zabala egin zuen, eta are zabalagoa, eta zabalagoa, eta orro baten antz handiegia zuen barrea hasi zuen, eta sorbalda txikiak dardara sataniko batean murgilduta, eta eskuak airean galduta, bat-batean gorputzaren koordinazioa erabat galdu izan balu bezala, eta arnasa falta zitzaion nonbait eta orroa sudurraren soinu arraroekin nahasten zitzaion tarteka, eta mantxa arrosez bete zitzaion aurpegia, eta orroa. Etengabe orroa. Batez ere orroa.

1. SARIA

Asier Olaizola De Diego

MADDIREN KOADERNOA

Maddi arte modalitateko batxillergoko bigarren mailan dagoen ikasle bat da. Oso gustuko du marraztea, hain beste, marraztu behar ez duen klaseetan ere horretan dabilela. Gehien marrazten duena ipuin ilustratuak dira. Hauek irakurtzea eta egitea maite du, izan ere, berak ilustratzaile izan nahi du heldu izatean.

Behinola, historiako klasean asper-asper eginda zegoela, istoriotxo bat otu zitzaion. Bertan mutil bat eta neska bat agertzen ziren eta istorioaren mamia neska limurtzeko mutilaren saiakeretan zetzan. Beregan ohikoa zen erara, marrazten eta idazten hasi zen.

Arkatza hartu eta mutilaren aurpegia marrazten hasi zen. Ile motzekoa marraztu zuen, ezpain oso nabarmenduak egin zizkion, baita begirada sarkorra bekain beltz finek eta begi marroiek eragina. Sudur txikia ere egin zion. Emaidza oso gustuko zuenez, gorputza marrazteari ekin zion. Argala eta altua egin zuen mutila. Ez zion ezaugarri nabarmen gehiagorik eman, beraz, "izaera" hitza idatzi, azpimarratu, eta bere pertsonaiaren izaeraren ezaugarriak idazten hasi zen. Ausarta, adoretsua, argia, sentibera, marrazkilaria ona...

- Beno, hauekin nahikoa izango da...- xuxulratu zuen Maddik bereztzat.

- Maddi! Zertan ari zara? - galdetu zion irakasleak haserre, kasu egiten ez ziola ohartu zenean.

- E... Ez... Ezertan... - erantzun zuen Maddik baxu-baxu.

- Egiozu jaramon ikasgaiari.

- Bai, baraktu.

Irakaslearen aginduari entzungor eginda neska marrazteari ekin zion. Mutilarekin egin zuen bezala, lehenengo eta behin, aurpegia marraztea erabaki zuen, baina oraingo honetan ez zen egindako lanaren harro gelditu eta aurpegiaren erdia baino ezin izan zuen bukatu. Horregatik bizkor pasatu zen izaera deskribatzera. Neska bere buruaren oso antzeko irudikatu zuen Maddik; Alaia, setatia, etxeokoa, femeninoa, lotsatia... Une horretantxe etxera joateko ordua zela adierazten zuen txirriña entzun zen. Maddik gauzak jaso eta erdizka utzi zituen marrazkiak zeuzkan koadernoan, nahi gabe, idazmahailan sartu eta bertan ahaztu zuen.

Eskola hutsik gelditu zen eta guztiak arrunt jarraitzen zuelaren antza zeukan. Baina zerbait arraroa gertatzen ari zen: Maddiren mahaiepean zerbait mugitzen hasi zen... Bere koadernoan. Bertatik zerk edo nork ateratzeko gogoia izango balu bezalaxe. Dardarak koadernoan mahai azpian zegoen aulkira erorarazi zuen. Pixkanaka koadernoko azalaetako bat irekitzen hasi zen eta... Hau ezustekoa! Maddik marraztu zuen mutila nekez atera zen bertatik. Bere ingurua begiratu zuen, gero bere eskuak, hankak eta azkenik ipurdia ere begiratu zituen. Pozaren pozez dantzan hasi zen. Besoak astintzen zituen, hankak ere bai, ondo pasatzen zuelaren itxura zeukan. Baina zerbaiten falta sumatzen zuen: musika!

Maddiren mahaiazpian berriro begiratu eta kutxatila bat begiztatu zuen. Hura hartu eta bertatik borragomadun arkatx bat atera zuen. Orduan, irrati bat marraztu zuen koadernoan, xehetasun guztiekin. Amaitu orduko "play" botoia sakatu zuen eta Tom Jones-en "It's not unusual" abestia hasi zen. Honek dantzatzeko gogo biziak piztu zizkion eta halaxe egin zuen. Dantzatzen zebilela, halako batean bira bat eman

eta neskaren marrazki amaitu gabea ikusi zuen. Berehala irratia itzali zuen eta eskua begien aurretik pasa zion neskari erreakzioen bat izango zuen itxaropenez baina ezta gutxiago ere, neskak ez zuen zirkinik ere egin. Mutila nahiko argia zenez, azkar pentsatu zuen mugitzen uzten ez ziona, marrazki amaitu gabea izatea zela, eta, beraz, bukatzeari ekin zion. Aurpegiko beste atala eta gorputza marraztu zizkion ziztu bizian eta baita ondo egin ere baina hala eta guztiz ere, neskak mugitu gabe jarraitzen zuen. Zertxo bait hausnartu ondoren pentsatu zuen agian izaeraren ezaugarriak osatu behar zituela neskak mugitu zedin, eta betetzeari ekin zion. “Dantzari aparta” eta “hiztuna” bezalako adjektiboak erantsi eta “lotsati” hitza kendu zuen zerrendatik.

- Orain bai, funtzionatu behar du... - Zioen beretzat.

Baina marrazki jadanik amaituak ez zuen mugitzeko asmorik erakusten eta mutikoa, etsipenak jota, bizkarra eman eta eseri egin zen aulkia-
ren ertzean hankak zintzililik zituelarik.

Neska paperetik atera zen baina berak ez zuen entzun.

- Zergatik zaude hain kopetilun? - Galdetu zion neskak.

- Ba han atzeko marrazkia mugitzeko denetik egin dut, baina ez dut lortzeeeeHHH! Baina, azkenean mugitu zara! - Egin zuen oihu - Ba-ba-barkatu... - burua jaitsiz agur bat eskaini zion.

- Nola duzu izena mutil? - galdetu zion neskak jakinguraz.

- Ba... egia esan, nire sortzaileak ez dit izenik jarri... Ba al duzu zuk izenik?

- Ezta, zu bezalaxe nago...

- Zer moduz Sia? Ondo doakizula deritzot.

- Gustuko dut - irribarrez - Baina zuk nire izena aukeratuko baduzu niri zurea aukeratzen utzi behar didazu, konforme?

- Noski - erantzun zion alai.

- Ikustagun... - pentsakor - Badakit! Zer iruditzen zaizu Eiz?

- Gustuko dut, nahiko arraroak dira gure izenak ez duzu uste? - zioen barrezka burua hazkatzen zuen bitartean.

- Bai horixe jajaja. Horiek horrela, nahi al zenuke zertxobait dantzatu?

- Bai noski, ez naiz oso ona baina aurrera - erantzun zuen Eizek.

- Ni ere ez naiz oso ona, beraz lasai.

- Gezurti hutsa zara, nik idatzi dut eta dantzatzen dakizula.

Biek egin zuten barre berriz. Eizek berriro irratia piztu zuen eta oraingo honetan Flash dance-n agertzen den "Maniac" abestia entzuten hasi zen eta jarraian biak dantzatzen hasi ziren. Sia oso ondo mugitzen zen, Eizek ere ez zuen gaizki egiten, baina Sia ez zegoen eroso, mutilak soineko bat marraztu zion eta.

- Eiz, utziko al didazu arkatza unetxo batez?

- Noski, hartu lasai - erantzun zion dantzatzeari utzi gabe-

Siak arkatza hartu, soinekoa ezabatu eta kamixeta eta galtza pare eroso batzuk marraztu zituen. Orain bai, orain Siak bere dantzarako dohain guztia erakutsi zezakeen. Harrigarriak ziren mugimenduak egiten zituen musikaren konpasera eta Eiz txundituta utzi zuen.

- Horrelakoak egiten erakutsi behar didazu mesedez - adierazi zuen liluratuta.

- Noski, nahi duzunean - eta irribarre bat eskaini zion.

- Badakit! Zuk jarraitu dantzatzen.

Eizek koadernoan altxatu eta aulkiaren hanketako baten aurka eseki zuen bertikalki utziz. Gero zerbait marrazten hasi zen. Bizpahiru marra diagonal, horizontal bat eta beste bertikal pare bat egin, Siarantz itzuli eta "ikus!" esan zion. Sia papererantz hurbildu zen eta aho zabalik gelditu zen.

- Zabu bat! Igo naiteke?

- Noski, nik kulunkatuko zaitut.

Sia zabura igo zen eta Eizek atzetik bultzatu zuen kulunka zedin. Oso ondo pasa zuten, biak irribarreka, gau osoa jolas eta marrazki artean goizeko zazpiak iritsi ziren arte. Ordu bete baino ez zen gelditzen Maddi eskolan sartu eta koaderno hori ireki zezan. Orain hasi ziren kezkek. Eiz dena ezabatzen hasi zen Maddik azkenekoz ikusi zuen bezala uzkteko asmoz baina ezin zuen Sia eta bere nortasuna ezabatu, bazekien eta hurrengoan marraztean ez zela berbera izango. Siari triste begiratu zion, Siak begirada berdin itzuli zion. Jada ordu erdi baino ez zen gertatzen baina ez zuen Sia ezabatzeko asmorik, ezta hurrik eman ere. Ideia bat otu zitzaion azken unean.

Zortziak zirela ohartarazten zuen txirrinak jo zuen eta ikasle guztiak euren gelatan sartu ziren. Maddik bere lekua hartu zuen eta esertzera zihoanean koaderno aulki gainean aurkitu zuen. Ez zion garrantzi handirik eman mahaiazpitik erori zela pentsatu zuelako. Koaderno hartu, mahai gainean jarri eta ireki egin zuen. Oso harriturik gelditu zen ireki zuen orrian marrazki bat aurkitzean. Zuhaitz bat zen, oso errealista, baina arkatzez bakarrik zegoen egina. Jakin-minak bultzatuta hurrengo orrira pasa zen. Han beste marrazki bat zegoen. Oraingoan aire-beroko globoa zegoen irudikatua bertan baina estilo abstraktuago bat erabili zen. Orriak eta orriak pasa zituen, bakoitzean marrazki bat, teknika ezberdin batekin eginda zegoelarik. Ikusgarriak ziren marrazkiok eta Maddi txundituta zeukaten. Baina galdera bat egiteko geldialdia iritxi zitzaion.

- Nork egin du hau guztia? - galdetu zuen beretzat.

Azkeneko orrira iritxi zen eta bertan kaxa bat zegoen marraztuta. Oso soila zen, soilegia aurreko marrazki guztiak ikusita. Hiru dimentsiotan irudikatua izateko behar diren lerroak eta ertzak baino ez zituen. Haren azpian honela zioen ohar bat zegoen idatzita: “mesedez, ez ezabatu gu. Aurreko marrazkiak zuretzat dira, nahi duzuna egin diezaiezun, baina ez gu ezabatu.”

- Maddik hitzok ahoskatu orduko, kaxa irekitzen hasi zen. Maddik egundoko sustoa hartu zuen eta amen batean itxi zuen koaderno. Ezin zen izan, nola mugituko zen marrazki bat? Guzti horrek ez zeukan zen-

tzurik. Bestalde, nork marraz zezakeen bere koadernoan eskolan geratu ba zen? Gainera bere gelakide batek ere ez zekien hain ondo marrazten. Burua galderez eta zalantzez bete zitzaion. Ez zuen koaderno berriz ireki nahi baina jakinmina askoz ere indartsuagoa zen atzera botatzen zuen sentipena baino.

Komunera joateko baimena eskatu zuen, irakasleak eman eta hara joan zen korrika materiala eskuan zuela. Dena konketan utzi eta aurpegia garbitu zuen lasaitzeko. Ez zizkion buelta gehiago eman nahi eta adorez bete eta irekitzera ausartu zen.

Koaderno pixkanaka irekitzen hasi zen Maddi, beste orri batean orde. Kaxa marraztua zuen orria bilatu zuen eta hau itxita zegoela ikusi zuen. Eldarnio hutsa izan zela pentsatu zuen baina zihurtatzeko behatz batez bi kolpe eman zizkion marrazkiari. Izugarria izan zen ondoren gertatu zena: kaxa ireki egin zen. Barrutik Eiz eta Sia atera ziren eskutik hartuta eta Maddiri begira gelditu ziren beldur aurpegiarekin. Maddik ez zekien zer esan, bi aldeetara begiratu zuen beste norbaitek ikusi ote zuen egiaztatzeko baina inor ez zen begira ari.

Maddik zoratuta edo lotan zegoela pentsatu zuen baina bere masaiean atximur egitean dena egia zela konturatu zen.

- No-nor zarete zuek? - esan zuen Maddik ezer ulertzen ez zuelarik.
- Eiz dut izena. Zuk sortu ninduzun. Hau Sia da, nik bukatu dut... - Erantzun zuen.
- Eta zuk egin al dituzu marrazki horiek guztiak?
- Bai...

Maddik ezin zuen sinetsi, egia izatea gustatuko litzaioke baina ala ere ezin zuen sinetsi. Begiak indar handiz itxi zituen eta gero berriro ireki, baina han jarraitzen zuten bere bi sorkuntzek. Hain moñoñoak ziren, biak eskutik hartuta, ez zitzaiola burutik pasatu ere egin ezabatzea.

- Zure laguntza behar dugu. Oso ahulak gara eta erraz apur gaitezke
- eskatu zion neskak.

Maddi pentsatzen hasi zen. Haiek bere laguntza behar zuten eta bera-ri mutilaren marrazteko esku ona ondo letorkioke ilustratzaile izateko. Talde ona egin zezaketela pentsatu zuen.

- Eiz, horrelako zenbat marrazki egin ditzakezu?

- Nahi adina.

- Ongi! Tratu bat proposatuko dizuet: nik babestu eta mantenduko zaituztet, janaria, etxea, eta abar marraztuz eta Eizek, ordainetan, ilustratzaile izaten lagunduko dit. Ados al zaudete?

- Marrazkiek elkarri begiratu zioten eta soinubakarrean esan zuten: Ados.

Arrezkeroztik Eiz, Sia eta ni elkarlanean aritu gara. Asko kostatu zitzaidan arren ilustratzaile izatera iritsi naiz eta hirurok pozik bizi izan gara. Eizek egureno laguntzen dit marrazten eta ilustrazio liburu asko argitaratu eta lehiaketa ugari irabazi ditugu. Oso ondo zaintzen dugu elkar eta oso zorionsu bizi gara.

2015





SATARKA / A MAILA

2. SARIA

Itziar Ugarte Irizar

ATZERAKO ISPILUTIK MINTZO

Diogunak ez dauka beti gure antza.

J.L.Borges

Autoan sartu eta herritik lekora gidatzen hasi nintzen
noraino helduko nintzen axola gabe
nire biografian estreinakoz

uztaila zen, ilargi ia betea ikus zitekeen
gaua iristeko falta zen arren

gidatzeko onenak diren
iluntze orduak ziren.

Atzerako ispilutik begitartea
irakurri niezazukeen
zakur aldarteaz, muturtua

zertan dihardu, gaixoa, bere bizitzarekin,
pentsatzen zenuen

inguruak larrutzen ninduen artean

hala nahi izan gabe
bakartzen ari nintzela.

Ea kontaidazu,
ekin zenion

oskol aldakor horren azpian zer duzun ezkututzen,
aldarrikatzetik azalean bizitzerako zubian
alde batetik bestera ibiltzearen interesaz,
ulergaitzarekin hunkitzeko duzun atrebentziaz,
kalkulu (a)tenporal-emozional-antzuen fruituaz

ez nuen erantzun nahi
ez nuen erantzunik

eta erantzun nuen:

zergatik galdetzen didazu hau...

Nartzisista hutsa zarelako, higungarri izatera arte sarri,
jasan behar izan nuen
esan gabe

ez nauzu ezagutzen
nire egun libroetan

hesteetatik zikinkeria bailitzan
burutik zurrupatzea
desio ditudanak
okatzera
behartu ninduzun:

negar-zotinka aritzeko modu deskontrolatu hura, zaintzen nautenak
etengabe deslaitzen, eta gizarteari leporatzeko ene nahikari eta arran-
gurak.

beti betikoa:
garbai eta kulpa

gutxietsi ninduzun
barkamena ez dela horrela eskatzen

hortik ez nintzela biktimen bazkatik libratuko
ordua nuela egi zulatuen zakuak utzi
lubakitik gudu-zelaira umil agertu

benetan inportante denetik ez nintzela mintzo
nehoiz ere.

Atzerako ispilitik beha
errepidean aitzina, aurre hartu nizun
elean

badut besterik:

buru-mailukadak gaurko egunetan nola hotzenetan, kalean gurutzatze-
ko gogor diren begiradak eta naizena ez naizenean bihurtzen nautena

segi nuen ...

garaiz ulertu ez nituen promesak, gura eta ezinaren balazta denbora-
ren herdoilak jaten
eta nire zedarri guztiak

ni eta zu, gu, haiek, zuek, gu, ni nor da gu, nor ez zuek, hori da panpina
errusiarren jolasa, gaizki batu duten jolasa

dixosozko bihotzak ...

ai, barik bizitzerik bazenute
sentitu nizun urguilua

eguna bezain hantuts.

Kito?

bai, baina hobe zenuke
poetei kasu eman

harritu ninduzun

istoriorik ernaldu ez dezazun
bizitza bera baizik

behin entzun nuen

kolpatu zenidan.

Ez dit balio!,
ez naizela gehiegi fio
jaso nuen boza atzerako ispilurantz

zainetako pultsua orri zuriaren gainean suizidatzen ahalegintzen da
garrasia biriken kaiolan espetxeratzen
hozbera jaiotzeak sortu didan giza-beroaren premia
eta dena karraio
merezi gabe egurtzen dudan gorpu honek

mina eta bere aldagai guztiak
... jakinmina

begi-ninietako ubeldurak eta eroaldien
erroak deskubritzea ederra litzateke,
uste dut gaur
arriskuak asko du ederretik

poesiaren atzetik zabilta, hori da dena
esan zenidan

baita gidatzen duzunean

eta autoa gelditu nuen.

Erran ba,
zer egin behar dudan
atseden hartzeko

erreguka aurkitu nuen nire burua

aspalditik amesten dut
odolezko armairu batekin,
aitortu nizun
etsipena edo frustrazioa deitzen dutenetik

jakingo bazenu
zeinen den eder nire ametsetan...
irudikatu,
armairu hori nire bihotza bezala
horrela badudala
sikiera
neure baitan gordetzeko toki bat
mundu
honetan

biluzik biltzeko besoen altzoan

ezer galdu ez dezan inork nigan

itsu luze etzateko bertan
fetu jarreran

inon itotzekotan
katarsi betean

baina zuri,
bost.

Motorra piztu nuen berriz eta
zuk atea ireki, despedidaren imintzio

berriz erreguka nintzen
aizan, *conscience*...

joan aurretik
arren
erran
zer egin behar dudan.



SATARKA / B MAILA / Hondarribia

1. SARIA

Jon Aperribay Calvo

ESKUTITZ BAT AMETS GALDUEI

Hondarribia, abuztuaren 21a

Amets,
eskutitz hau idazten dizut
aurrez aurre esateko gai ez naizen hitzak
zuregana iristeko nahiarekin,
zuregana iristeko beharrarekin.

Badakit ez garela denbora luzez ikusi,
eta agian ez zara nire izenaz gogoratzen,
baina nik urte amaigabe hauetan
ezin izan zaitut ahantzi:
gogoan dut eman zenidan lehen musua,
gogoan ditut esan zenizkidan azkeneko hitzak.
Ezin izan dut inoiz zure begirada gozoa ahaztu,
ezin izan dut zure barre ozena burutik kendu,
ezin izan dut zure irribarre maitekorra atzendu,
begi marroi horietako distira nigandik urrundu.

Luze egon naiz zure begiek liluratuta,
sorginduta naukate bi sorgin balira bezala,
baina zutaz gogoratzean
begiak ixten ditut, malkoz beterik,
eta nire malkoez osatutako ozeanoan
itota sentitzen naiz,
norabiderik gabe, galduta.

Gauero Malkoen Itsasoan itotzen naizela egiten dut amets,
kate ikusezinek preso nautelarik,
baina zu olatu artetik agertzen zara nire arima salbatuz,
eta biok elkarrekin paradisura ihes egiten dugu,
aske,
paperezko hegazkinak bagina bezala hegaldatuz,
sasi guztien gainetik, hodei guztien azpitik.

Itsaso ilun baten gainetik hegoak astinduz,
zeruertz goiztiar batera abiatzen gara.
Zerua laranja-zukuz dago dindatuta
eta hodei arrosek azukrezko kotoia dirudite,
marrubizko zapore eta guzti.
Urrunean irla bat ikusten da;
Machadoren mendi urdinak zilarrezko hondartza batez inguraturik:
Paradisua, ene Eden partikularra,
bereizkeriarik ez dagoen tokia,
jainko bakarrak denok garen tokia:
Zu eta ni elkarrekin gauden tokia.

Uhartea erreka batek zeharkatzen du,
ortzadarrez margoturiko ura daramana
eta erreka zeharkatzeko
kolorerik gabeko Erromako zubiaren gainetik joan behar *dena*.
Badago ere laku bat,
antzigar beroz eta lurrun izoztuz egindakoa,
malko zoriontsuz eta ametsez osatutakoa ur-azalean,
zalantza, urduritasun eta bereizkeriaren itzalak behealdean,
itsasontzi hondoratuz betetako itsaso bat bailitzan.
Arbolen itzalek istorioak kontatzen dituzte
aurretik pasatzen zaren aldi bakoitzean;
txoriek olerkiak kantatzen dituzte
zure pauso-hotsen erritmoan.
Lorategi batean lurreratzen gara,
hondartzatik gertu, itsasoaren aurrean,
gauaren argipean,
izarren dirdiraren begiradapean dantzan.
Itsasertzeko haize gozoak ilea lardaskatzen dizu,
begirada zeruertzean galduta daukazularik.
Zuregana hurbildu eta musu bat ematen dizut,
ezpainenetan,
behinola musukatu ohi ginen bezala.

Bat-batean, zu arrosa zuri bilakatzen zara
baina hartzen *saiatzen naizen bakoitzean*
zure arantzek galarazten didate
eta zuk, nire hatz tartetik egiten duzu ihes
eta *ni, zu jarraituz,*
ametsetik irteten naiz

eta konturatzen naiz ez zaudela nire ondoan,
konturatzen naiz jada ez nauzula maite.

Ikusi egin zintudan,
atzo.

Zerua lainotuta zegoen,
baina hodeiak jada ez ziren arrosak,
jada ez zuten marrubizko zaporerik
eta jada ez zegoen laranja-zukuz dindaturiko zerurik;
zerua ilun zegoen,
zure begi-niniak bezain ilun.
Urrutian olatuen talkak entzuten ziren,
haserre,
txalupak erasotuz, behin eta berriz;
Indarkeriaren Sinfonia Gorra.
Arboletako hostoak gorritzen hasiak ziren jada,
lotsatuta,
beren kolore berdea airean lurruntzen zen bitartean,
udazkenaren etorreraren seinale.
Tristuraren malkoz bustitako aire ziztu batek
ezpainak mozten zizkidala nabaritu nuen,
baina ez zidan minik ematen,
ez nuen ezer sentitzen.

Uste nuen ahaztu zintudala,
ez nintzela berriro zure iruzurretan eroriko,
zure begiradak ez ninduela preso utziko
baina zu berriro ikustean

ahaztutako oroitzapen guztiak,
elkarrekin egon ginen momentu guztiak,
lapurtu zenizkidan negar eta barre guztiak
nire barruan berpiztu ziren,
nire barruko itzaltako argia piztuz.

Niregana etorri zinenean
zure begirada isila nuen entzun berriro,
zure azal ezta nuen usaindu berriro,
zure ezpain gorrien irribarrea nuen dastatu berriro.
baina gure ezpainak banantzean
joan egin zinen
eta ni,
bakarrik geratu nintzen kalearen erdian,
bakarrik jendetzaren artean.
Zuregana joaten saiatu nintzen,
baina ezin: hankek ez zidaten uzten.
Oihu egiten saiatu nintzen,
baina ezin: hitzak ez zuten atera nahi.

Maite zaitut, eta zu zara nahi dudana bakarra.
Ez dut ezinezkoa den altxor bat nahi;
ez urre, ez ospe, ez betikotasun, ez ilargi,
ez dut ezer nahi.
Nahi dudana bakarra hegan egitea da,
zurekin,
sasi guztien gainetik, hodei guztien azpitik.

2. SARIA

Rose Samb

AMETSETAN HEGAN

Medikurik onena sendagai gehienen alferrikotasuna ezagutzen duena da... zioen Benjamin Franklinek.

Goizeko seiak dira, iratzargailua jo eta o ari da. Azkenean iritsi da hainbeste espero nuen eguna. Txiki-txikitatik gustatu izan zait besteei laguntzea eta medikuntzarako ikasketak ateratzeko eman ditudan ordu guzti horien erakusle da egitear nagoen bidaia hau.

Duela bi egun jaso nuen horrenbesteko gogoarekin itxaroten ari nintzen deia. Kristina zen, Jordaniako Za'atari errefuxiatuen kanpamentutik deika ari zitzaidan. Aipatu berri dudan kanpamentuko medikuen burua da. Esan berri dit gerraren eraginak oso nabariak direla gehienbat behartsuen artean. Gainera, "Dengue" izeneko izurritea dela eta gorriak eta bi ikusten ari direla bertako biztanleak, izan ere denbora pasa ahala geroz eta gehiago hedatzen ari omen da. Ondorioz boluntario gehiagoren premian daude. Kristinak esandakoa ondo pentsatu eta deia moztu ondoren egin nuen lehen gauza amonari deitzea izan zen. Beti esan izan dit aitonaren antza handia nuela, hura ere edozein egoeraren aurrean jendeari laguntzeko prestu agertzen baitzen. Amonarekin hitz egin ostean, orduan eta argiago neukan bidaia egingo nuela nahiz eta nire gurasoek kontrakoa pentsatu. Jada badituz 22 urte eta beraiekin bizitzen jarraitzen dudan arren, nire erabaki propioak hartzeko gai naiz.

Gurasoak azken aldiz agurtu, motxila erraldoia bizkar gainean hartu eta leihora hurbildu naiz Xabierrekin ordu honetan gelditua naiz eta. Xabier, nire mutil laguna da, eta kanpoan egongo naizen denboran asko faltan botako dudalakoan nago, izan ere, beregandik urrun egotea inoiz ez baitut ondo eraman.

Aireportura gerturatzen goazen heinean, Xabier geroz eta tristeago nabaritzen dut, nahiz eta berak irribarre egiten jarraitu. Azkenean iritsi da Xabierri azken adioa emateko momentua. Bion masailetan behera, malko lodi batzuk isurtzen ari dira inoiz bukatzea nahi ez dudan besarkada bat ematen garen bitartean. Kontu handiz ibiltzeko esan eta pixkanaka-pixkanaka, jendetzaren artean desagertu da.

Hegazkineko leihotik begiratzerakoan, burua lurretik geroz eta urrunago sentitzen dut. Nire aitona behin eta berriz etortzen zait gogora. Bidaia honek, badu zerbait berarekin lotzen nauena, amonak dio oso harro egongo litzatekeela nitaz. Bidaia luzea izango denez eta iristean zer aurkituko dudan ez dakidanez, kuluxka bat botatzea erabaki dut. Begiak itxi eta seko geratu naiz.

Teby eta Kristina nire bila etorri dira aireportura. Za'atarirako bidean, funtsezko bi aholku ematen ari zaizkit: Lehenengoa, herrialdeak bizi duen egoera soziala dela eta, inortaz ez fidatzeko, gerra batean edozer gerta baitaiteke. Eta bigarrena, izurritea duten kutsatuekin prebentzio neurri gogorrek hartzea ezinbestekoa dela.

Konturatu orduko errefuxiatuen kanpamentura heldu gara. Alde batetik gerrak ezer gabe utzi duen jendea dago eta bestetik zaurituak eta "Dengue"-z gaixoturik daudenak. Denek jaima moduko batzuetan daukate euren bizitokia nahiz eta gaixo daudenak, segurtasuna dela eta ezin diren gainerakoekin batera egon.

Kristinak esan berri dit Denguez gaixoturik daudenak zaintzea tokatu zaidala, beraz nire motxila hartu eta haien jaimetarantz abiatu naiz. Ilusio handia eragiten dit nire lehen mediku lanak hastear daudela pen-

tsatzeak. Jaimara sartu baino lehen, Kristinak bere eskua nire sorbal-
dan jarri eta oso ahots serioarekin nigan konfiantza osoa duela esan
dit. Pauso batzuk eman eta barrura sartu naiz. Uste nuena baina jende
gehiagorekin egin dut topo, ehun kamilla inguru eta hamar bat mediku.
Haietako bat gerturatu zait ongi etorria ematera eta eguneroko lana
nolakoa den azaldu dit gainetik. Motxilatik gurutzedun bata atera eta
gaixoengana hurreratu naiz.

Hilabete bat pasa da hemen nagoenetik, egunerokora ohitzen hasia
naiz oso gogorra den arren. Gaixo berriak etengabe etortzen dira Ae-
des euliaren hedapena dela eta. Izan ere, euli honen ziztada da Dengue
gaixotasunaren eragilea. Sintoma nabariak sukar oso altua eta bar-
ne-hemorragia oso larriak dira. Heriotza ere eragin diezazuke. Azken
asteotan adibidez, hamar pertsona joan zaizkigu, horien artean gurekin
lan egiten egon den mediku bat. Egunero jendeari sukarra jaisten saia-
tu arren, emaitzak benetan beldurgarriak dira eta gerran egoteak ez
du batere laguntzen. Hori gutxi balitz, genituen medikamentu apurrak
bukatzen ari zaizkigu.

Gaurko arratsaldeak ez dauka itxura onik. Azken astean zaintzen
egon naizen umea geroz eta okerrago dago. Sukarrak ez dio gorantz
egiteari uzten eta ez daukagu berari emateko nahikoa dosi. Kristina-
rengana joatea erabaki dut, zerbait egin beharra baitago egoera ho-
nen aurrean. Berak, berri onak dituela erantzun dit, bihar eguerdirako
gurutze gorriak medikamentuak eta janaria bidaliko dizkigula. Baina
haien kamioiak basoa gurutzatu ezin duenez, Teby eta biok haien bi-
la joan beharko dugula. Bihar goizean, harantz joatekotan gelditu naiz
berarekin.

Ohean sartu naiz azkenean, Ezin dut lorik hartu. Xabi etortzen zait
burura behin eta berriz. Hona iritsi naizenetik bere karta bakarra jaso
dut, ez zaizkit ahazten bere hitz haiek:

“.. Asko botatzen zaitut faltan maitea. Zaindu zaitetz...”

Edozer emango nuke orain nire alboan edukitzearren.

Ohiko kafe mingotsa trago batez edan eta Tebyren kotxerantz jo dut. Bertan dago nire zain, irribarretsu. “Bonjour madmoiselle!”. Kristina agurtu eta bidaiari ekin diogu. Tedy-k bertako musika jarri dit eta bere kantek entretenigarriagoa egiten ari didate bidaia.

Basoa zeharkatu eta errepede bazterrean kamioi txuri baten ondoan gelditu gara. Gurutze gorrikoekin elkartu eta Tedy kotxean lekua egiten ari da nik kaxa bat hartzen dudan bitartean.

Ziztada moduko bat nabaritu dut besoan baina kasurik egin gabe kaxak kotxean sartzen jarraitzen dut. Kaxekin bukatu dugu eta kotxean sartu gara Za’atarirako bidean. Besoan min arin bat sentitzen dut, baina ez diot garrantzi handirik ematen.

Kanpamentura iristen ari garela enbarazu dezente egiten didan buruko mina jartzen ari zait. Iritsi gara. Kotxeko atea ireki eta jaisterakoan, zorabiatuta nagoela ohartu naiz. Kristina nigana korrika dator. Dena belztu da.

Begiak ireki ditut, iruditzen zait urte bat pasa dela kanpamentua azkenekoz ikusi nuenetik. Nahiz eta oso irudi distorsionatuak ikusi, Kristina niri begira dagoela nabaritzen dut. Oso ahul sentitzen naiz, ez daukat batere goserik eta gorputza oso bero sentitzen dut. Nire ezker besotik kable bat zintzilik dagoela antzeman dezaket. Ahots goxo bat entzuten dut baina ez dut lortzen zer esaten duen ulertzea. Besoan zerbait arraroa sumatzen dut, handitua egongo balitz bezala. Oraintxe bertan ohartu naiz lehengoan kaxak jaisten nabaritutako mina ziztada bat zela. Denguez kutsatuta egon naitekeela pentsatzen hasia naiz. Beldur handia daukat. Behar dudan bakarra nire familia eta Xabier ondoan izatea da. Nire nahiak ahoskatzen saiatzen naiz baina ez dakit entzuten nauten, oso nekatuta sentitzen bainaiz. Berriro ere argiak itzali dira.

Esnatu naizenean, ondo ikusteko gai naiz, badakit eman dizkidaten pilulen ondorioa dela baina medikua naizenez gero badakit nire osasuna okerrerantz egiten ari dela. Ia seguru esan dezaket Denguez kutsatuta nagoela. Burua eskuinerantz biratu eta nire ohe ondoan nire

senideak ikusten ditut. Negar egiteko gogoia dut, baina ez zait malkorik isurtzen ezta hitzik ateratzen ere.

Berriro ere ondoeza nire gorputzaz jabetzen ari da. Nire gorputzeko berotasuna geroz eta altuagoa da. Beldur naiz. Xabiren esku leuna nirea laztantzen ari da. Ezer sentitzeari utzi diot, iluntasuna besterik ez.

Lo kuluxkatik esnatu nau azafataren ahots zakarrak, Jordanian lur hartzeaz gaudela esanez **abisuarekin**. “Wellcome to Jordania”.



BORDARI / A MAILA / Hondarribia

HONDARRIBIA SARIA

Ainara Elizondo Lizarraga

GALTZERDI ZULOEN JATORRIARI BURUZKO TEORIA

Baserriko osaba Inazio mutilzaharrek behin apustua eginda, ez nuen atzera egiterik. Nahiago hil bere aurrean jokaturako Marie Brizard anis botilak galtzea baino.

-Faktura ekarri beharko didak apustua irabazteko, aittu? Bestela ez diat sinistuko... — bota zidan enbidoa, berak bataiatutako bi “Mari Bizar” botilak etxeratuko banituen.

Lehen trantzea egunkaria hartu eta zenbaki bila hastea izan zen. Txinatarrak, brasildarrak... Aitorren hizkuntz zaharra menperatzen zuen hautagairik ez, antza. Euskaldunok deman eta harri jasotzen ibiltzeaz gain, bertute gutxi ohe kontuetan. Halako batean, ordea, *Maria, donostiarra, isila, ederra, bular mamitsuak...* eta gaitasun anitzeko neska baten zerrenda amaiezina. Hitz gutxitan, mirariz beteriko amabirjina. Coca-Cola botilari bizpaihu zurrupada eman, kafeinaz lepo egin eta adorez beteta telefonoa hartu nuen. Horra! Kaka zaharra. Lehen saiakera ustela. Zenbakiz nahastu eta Tolosako apaizetxera deia. Infernuarekin hitz egin nahi eta San Pedrorekin hizketan aritzea bezalatsu. Osabak baleki apustuari ze hasiera eman nion...

Gauzak ez nituen argiegi eta hanka sartu aurretik, bi txistor puska barneratu nituen. Betiko esaera da tripa betearekin hobeto pentsatzen dela. Baleak antxoak bezala, mauka-mauka txerrikoa barrura. Jakia hortz artean xehatzen nuen bitartean, telefonoari zeharkako begiratua. Bi anis botilengatik hogeituro urteko mutilak burua zenbat hauts dezakeen inork gutxiak jakin.

Ogi apurrak mahai gainetik uxatu eta berriz ere egunkaria zabal-zabal jarri nuen mahai gainean. Bigarren errepassoan agian aukera hobetik topatuko nuelako esperantzaz. Alferrik. Berriz ere *Maria, donostiarra, isila, ederra ...* aukera jo nuen begiz. Oraingotik, mutilzaharrak bi botilak askatuko beharko zituen, bai ala bai!

Sukaldera joan eta gurasoak alde eginak zirela ziurtatu nuen, badaezpada. Telefonoa belarri

ondora hurbildu eta gogoz eutsi nion tramankuluari, eskuko izerdiaz irrist egin gabe. Kopeta ere

heze, ipurdi azpia eta hankarte bezala. Bat-batean, emakumearen ahotsa telefonoaren beste muturrean. Beste hainbat konturen artean, justu-justuan entzun nuen *“astelehenean bostetan”* eta ahazteko bel-durrez, eskura nuen lehen ezpainzapien iltzatu nuen hitzordua, txistorraren olio gorriaz zipriztinduta. Kitto apustuaren erdia, astelehenean beste erdia ahal bezain ondo burutu eta botilak etxera. Hain zaila ere ez zuen izan behar emakume batekin ohera sartzeak. Osaba Inazio horretan aritua bazen, ni ere ez nintzen eskasagoa izango. Egia esan, osabarekin maindire azpian aritu behar zuenak bi botila ez ezik, hamar botila ere gogotik irabaziak izango lituzke. Baserriko ukuilutik sukaldera etortzen zenean, esaterako, Frantziako perfumerik garestienak ere estaliko ez lukeen kirats arrastoa uzten zuen. Gizon ona bai, baina arimatzeke modukoa ez gehienetan.

-Ondo dotore zaude, Mikel. Nondik erori zara gaur, etxe azpiko pikon-dotik?— ozpinez beteriko amaren eztenkada.

Amek beti izan dute erantzun ezin daitezkeen galdera inozoak egiteko dohaina, une ezin aproposagoetan gainera. Noizbait ezkutuan zerbait egin nahi izanez gero, lasai egon norberaren ama beti ibiliko da eta zelatan han-hemenka. Beste askotan bezala, gelako atea itxi eta ez nion deus ere erantzun. Eleganteagoa zen amak neskaren batekin gertua nintzela pentsatzea, bere anaia mutilzahararekin apustu egindako bi anisete botilen truke ezezagun batekin estreinakoz txortan egitera nindoala jakitea baino. Esaten ez denak esaten denak baino xarma handiagoa duenez, bere kabalak egiten utzi nuen egongelan, eta nik nurean jarraitu nuen gelako ispilu aurrean. Hori bai, pista bakarra eman nion bakean utz nintzan: dena delakoa Donostian bizi zela eta lanean zebilela. Horrekin pozik utzi nuen emakumea, eta arratsalde osorako telefono hizketagai eman nion izeba Martxelarekin, bi ahizpak abokatu edo zirujau baten alabarekin nenbilela erabaki ezinik.

Autobusa hartu eta libre zegoen lehen eserlekuan jarri nintzen ondokoari erreparatu gabe. Bi patata zaku erostetik zetorren atso gizen baten ondoan egin nuen ordu laurdeneko joana. Haren

besapeko kiratsa eta nire ileko kolonia usaina ez ziren oso lagun egin bidaiak iraun zuen hamabost minutuko bidean. Larrutan ordu laurdena uste orduko pasako da, baina autobusean... Bera ni baino lehenago jaitsi zen. Gaitzerdi. Geltokira iritsi eta Neil Armstrongek ilargia lehenengo zapaldu zuenean bezala sentitu nintzen, etxe giroko orbitatik kanpo. Balu amak nire balentriaren berri, izebarekin telefonoz kiniela egiten egon beharrean...

Berehala aurkitu nuen etxe zahar haren zenbakia: 20. atalondoa, 2. eskuina. Eskuina eta zikina. Manoleteren garaiko egurrezko eskailera batzuk eta halako batean zeruko atea. Txirrina jo nuenean, ez zen berehalakoan agertu atearen bestaldean. Ederki ezagutzen zuen denboraren kontrolak arrarengan sor zezakeen testosterona dantza eta bizpahiru minutu eduki ninduen atea noiz irekiko zain, odola borborka eta bihotza bragetatik ateratzeko kinkan. Atea parez pare zabaldu zenean, espero baino gazteagoa zen umemokoa ikusi duenaren etsipenaz agur-

tu ninduen; nik, aldiz, zeru-lurrei eskerrak eman nizkien espero baino arropa gutxiagorekin topatu nuelako; pozik, denbora gehiago eman-go nuelako larrutan hari arropak kentzen baino. *90 minutu ehun euro badira, minutua euroa pasatxo* atera nuen presakako kontua. Etxean sartzera gonbidatu ninduen eta zerbait jan nahi nuen galdetu jarraian. Brageta barruko zurrunbiloak zer jango zukeen esatera ez nintzen ausartu. Gose ez nintzela erantzunez eman nizkion eskerrak. Hori bakarririk falta nuen, ordu eta erdia Idiazabalgo gazta janez eman eta ehun euro alferrik xahutzea buztanik busti gabe!

Bere gerezizko ezpainak musuka ez nitzan eskatu zidanean argi ikusi nuen berea ez zela ofizioarekiko bokazioa. *Aurpegian ez, mesedez*, erregutu zidan lotsagorrituta, nahiz eta bazekien edozein hasiberrik ez liokeela halakorik ukatuko bezero aldrebeseanari ere. Gustura ahoratuko nukeen bere karmin zaporea, bere mingain bihurriaren jolasa nire hortzen artean atseginez kartzelaratuko, baina sexua eta maitasunaren arteko ataka estuaren beldur, lepotik gorako muga jarri zidan eta nik bere horretan errespetatu nuen bere nahia.

Egia aitortu beharko banu, lehen aldiko ehun euro haiek poltsikoa zeharo minberatuta utzi

zidaten. BEZik gabe ordaindu beharreko zerbait izateko garesti samarra iruditu zitzaidan ordu eta erdiari jarria zion prezioa. Hala ere, neurea zen hautua eta ez nion beste ezer ere aurpegiratzetik, egunkari-ko iragarkian hizki larriz baitzegoen adierazia bai iraupena, baita zerbitzuaren zenbatekoa ere. *Negu gorrian, elurra urtzeko moduko bularrak dastatu nahi badituzu, zure zain izango naiz eta biok batera egingo dugu ihes plazeraren erreinura* tinta beltzez kirolei eskainitako kronikaren azpian iltzatuta. Ez nintzen lehena izan amua irensten; bi ordu lehenago ohiko bezero batekin geratua zela aitortu eta harekikoa amaitu eta ni behar bezala artatzeko, hiru ordu laurdeneko atsedena gutxienez behar izan zuela esan zidan. Orduan konturatu nintzen ni neu hasiberria izanagatik, goi mailako andere baten eskuetan nengoela. Belarrira esandako bizpahiru gordinkeriekin, galtzak mela-mela eginda utzi baitzizkidan, jakin nekien arren esandako pikardia guztiak ez zirela uzta

berrikoak eta bezero guztioi errezeta bera luzatzen zigula telefonotik ezinegona areagotzeko.

Nabari zen oheratzeko unea luzatu nahian zebilela, hura ez baitzen beretzat atseginez aukeratutako ofizioa, behartuta hartutako bidea baino. Sofa zahar batean atera genituen lehen txinpartak eta sitsak jotako ohe mugagabe hartan etzan ginen jarraian, Beatles taldearen koadro erraldoi hura lekuko zela. Jakingo balu Paul McCartney gizarajoak berari begira aurkitu nuela lehen aldi hartan maila emateko inspirazioa! Nik jeneroa jarri nuen, eta berak bideitsu hartan gidatu ninduen linbora, gorputzen dantzak ohearen koltxoi azpiko hautsa harrotzen zuen bitartean. Harrezkero, gogoko dut Beatlesen musika, *Let it be* famatua eta McCartney zaharraren diskografia aberatsa.

Eguneko azken bezeroa izan nintzen antza, eta presarik ez zuenez, kaferik nahi nuen galdetu zidan. Ofizioa ederki menderatzen zuen, bai aurretik eta baita atzetik ere; lanak bukatuagatik, ez ninduela berehalakoan etxera bidali, alegia, edukazio osoz kafesne eta gaileta batzuk eskainita baizik.

Ez nion gauza gehiegi atera nahi izan, baina bi bezeroren artean denboraz nola ibiltzen zen galdetu nion, kafesnea eta gailetak irensten genituen bitartean. Normalean arazorik ez zuela izaten erantzun zidan, baina denboraz justu ibiltzen bazen, zain zegoenari bideo edo aldizkariaren bat luzatzen ziola azaldu zidan. Orduan apalean zituen hainbat argitalpen erakutsi eta bat oparitu zidan etxera eramanez.

-Ez, mila esker! Ez nuke amak aurkitzerik nahi — erantzun nion inuzentziaz beterik.

Grazia egin zion nonbait eta niri aurreko astean jandako txistor pusken kolore bereko aurpegia jarri zitzaidan. *Memeloa haiz, gero, motel!* nirekiko, hanka barruraino sartu nuela ohartuta. Gazte ikusi ninduelako edo, hizketan jarraitu genuen eta osabarekin egin nuen apustuaren berri eman nionean, barrez lehertu zen. Egoera askotan egona omen zen, baina sekula ez omen zen egon apustu baten erdian. Halako erronkari ekiteko, anisa benetan gustukoa izan behar nuela esan zidan jarraian eta nik, zer esan jakin gabe, irribarre behartu batez buruarekin

gora eta behera egin nuen. Egia osoa esaten hasita, botilak irabazteko osabak zerbitzuaren faktura eskatu zidala ere aitortu nion, eta algara artean, fakturarik ez zidala egingo aurreratu zidan, baina nahi izanez gero, ohar bat prestatuko zidala ehun euro haien truke egin genuena zehatz-mehatz laburtuz. Bistakoa zen gustura zegoela nirekin solasean, eta nik ere gezurra esango nuke txinparten ondorengo elkarrizketa hark nire onera etortzen lagundu zidala ukatuko banu. Ofizioak ofizio, jende jatorra eta doilorra leku guztietan aurki daiteke, leku fin eta ez hain finetan.

Nire galtzerdi zuloen jatorriari buruzko teoria kontatzen hasi nintzaionean, txirrinak jo zuen ustekabea. Ohiko bezero bat zegoen kallean zain, baina ez zuen ordurik hartua, ez baitzetorren barrua hustutzera. Interfonotik entzun nuen nola esaten zion Mariari aurreko asteaz geroztik zebilela aterkiaren bila eta ordura arte topatu ez zuenez, agian Mariak berak izango zuela. Ahotsa ezaguna egin zitzaidan, baina arratsalde hartan hartu nuen pasadarekin, ez nuen burua gehiago nekatu nahi izan.

-Sentitzen dut, baina komunean gorde beharko zara. Bezeroek ezin duzue elkar ikusi, etxeko arau nagusia da — ohartarazi ninduen, bere gogoz ez zela aurpegian nabaritzen zitzaiola.

Ez nion inolako eragozpenik ikusi komunean minutu batez giltzapetuta egoteari. Ikastolan ere, bertso garaian, halaxe egiten genuen irakasleak kartzelako gaia prestatzeko agindua ematen zigunean. Bitartean, bertsoa zortziko handian osa nezakeela ere pentsatu nuen: *osabarekin apustu bat dut/ bi anis botilen truke/horren lekuan andregai on bat/bilatzea hobe nuke...* Puntuak puntu, komuneko taparen gainean eserita pasa nituen bost minutu, Mariak ahots ezaguneko ezezagun hari aterkia eman eta hurrengo hitzordura arte agurtzen zuen bitartean. Egia aitortzekotan, gatibualdia ez zitzaidan hain luzea iruditu, konketa gainean zeuden lurrin, krema, xaboi... flaskoak zenbatu nahian pasa baitzitzaidan denbora ziztu bizian. Bezeroak alde eginda, komunetik ateratzeko eskatu zidan Mariak, aldi berean barkatzeko esanez. Ordai-netan, protokoloa zein zen ulertzen nuela adierazi nion eta bost minu-

tu haietako itxaronaldiaren ondorioz, komuneko paperean idatzi nuen bertsoa eman nion opari. Inorengandik hain erregalu bitxirik ez zuela jaso aitortu zidan, eta besarkada estu bat emanda agurtu genuen elkar. Elkarri agurra luzatu aurretik, ordea, gauza bakarra eskatu zidan: tarteren bat nuenean, berriz ere kafesne bat hartu behar genuela biok, erdizka utzia genuen galtzerdi zuloen jatorriari buruzko teoriaren kontaktarekin bukatzeko.

Handik aurrerako gertakari katea nahi adina luza zitekeen, eleberri baterako argumentu bihurtu nahi izan balitz. Etxeko atariko aduana zeharkatu orduko, hantxe topatu nituen ama eta izeba, bere etxetik gurrera propio etorria, lehen zita hartan zer moduz joan zitzaidan jakiteko irrikitan. Gezur pare batez nola edo hala ataka atzean utzi eta nire gellaraino iritsi nintzen, ohe gainean zeuden bi botil haiei gehiegi erreparatu gabe. Osaba ez zen lo egona, eta *bejondeiala, merezi dituk!* zioen oharrarekin batera, botilak beste baterako ohe azpian gorde nituen, anisa gorroto banuen ere. Anisa zinez nuen begitan hartua, galtzerdietan ateratzen diren zuloak bezala, edo aterkiak edozein bazterretan ahazten dituzten gizasemeak bezala. Ohean sartu orduko, gainera, nire buruarekin barrez hasi nintzen, paretaren bestaldetik aitak amari aterkia dentistarenean ahaztua utzia zuela nola esaten zion entzunda. Ama, berriz, zorionak emanez, azken urtean zortzi aldiz galduagatik, zortzietan topatu zuelako ditzosozko euritakoa. Zenbat etxetan ahazten ote diren aterkiak behar ez diren lekuetan...

2016





SATARKA / A MAILA / Hondarribia

HONDARRIBIA SARIA

Mitxel Arzac Iridoy

SUSTRAIAK HAN DITUENAK

Herrimina unibertsala da.

Herrimina

euskal arrantzaleak,

Euskal Herri berdea utzi eta Afrika lehorrera doanean.

Herrimina

senegaldar arrantzaleak,

Afrika goxoa utzi eta Euskal Herri euritsura datorrenean.

Euskal itsasontziek, arrairik ez.

Euskal itsasontziek, hegaluzea behar.

Euskal itsasontziek, itsasgizonik ez.

Euskal itsasontziek, arrantzaleak behar.

Etorkizun bila,

hemendik hara

euskaldunak, Dakar amets.

Etorkizun bila,

handik hona

senegaldarrak, ametsa dakar.

Etorkizun bila,
euskal itsasontziak Senegalgo portuetan
senegaldar arrantzaleak euskal portuetan.

Bi gizonek
duintasun bila, bide berbera daramate,
kontrako norantzan.

Etorkizun beltza, Euskal Herrian.
Beltzen etorkizuna, Euskal Herrian.

Oinazea
herrimina bezala, unibertsala da.

Oinazea bihotzean
ama gaixoa, "bakarrik" utzi
eta lanera doan emakumearengan.

Oinazea bihotzean
alaba "gaixoa", bakarrik utzi
eta lanera doan emakumearengan.

Amaren ondoan behar nuke
-pentsatzen du euskaldunak-
baina lanik gabe, dirurik ez
eta dirurik gabe, ama mantentzerik ez.

Alabaren ondoan behar nuke
-pentsatzen du perutarrek-
baina lanik gabe, dirurik ez
eta dirurik gabe, alaba mantentzerik ez.

Emakume euskaldunak zaintzen du alaba perutarra.
Emakume perutarrek zaintzen du amona euskalduna.

Bi emakumeek
duintasun bila, bide berbera daramate,
kontrako norantzan.

Emakume euskalduna
euskaraz mintzatuko zaio haur perutarri.
Ez dute (hizkuntzarengatik) elkar ulertuko
baina tarteka, haurrak, esker oneko irrifar bat botako dio irakasleari
Emakume perutarra
gazteleraz mintzatuko zaio amona euskaldunari.
Ez dute (gaixotasunarengatik) elkar ulertuko
baina tarteka, amonak, esker oneko irrifar bat botako dio zaintzaleari.
Irrifarra,
herrimina eta oinazea bezala, unibertsala da.

Igandea ere, unibertsala, jai eguna.

Elkartuko da

alaba amarekin,

ama alabarekin.

Eta etxe batean zein bestean

alabak,

amari

Ikastolan irakatsi eta ikasitako kanta hasiko dira kantatzen.

« *Nekez uzten du bere sorterria*

sustraiak han dituenak,... »

Ama batak zein besteak

gaixotasunarengatik batak,

hizkuntzarengatik besteak,

ez dute ezer ulertuko, musikaren doinua baino ez.

Musika,

herrimina, oinazea eta irrifarra bezala, unibertsala da.

Eta doinu melankolikoetan murgilduta,

« *Nekez uzten du bere sorterria*

sustraiak han dituenak,... »

gogoratuko da

emakume euskalduna, senegalen duen anaia arrantzalearekin.

emakume peruarra, sorterrian duen anaia nekazariarekin.

doinu melankolikoetan murgilduta,

« *Nekez uzten du bere sorterria*

sustraiak han dituenak,... »

etxen batean zein bestean

oraingoan bai, emozio uholdeak

bide berdina, norantza berdinean,

barnetik kanpora,

bihotzetik begietara,

barne enbata,

malko moduan azaleratuta.

Malkoak,

herrimina,

oinazea,

irrifarra

eta musika bezala, unibertsalak direlako.



SATARKA / B MAILA

1. SARIA

Saioa Ventura Iturralde

IRONIA HUTSA

Goizean goiz, zu esnatu bezain pronto,
etzantzan biluzik nagoelarik,
esnatu dira bost lagunak.
Beharrik zu zaitugula,
ez baikara gure kabuz moldatzen.

Izara leunak sentitzen
lagundu dit lehenak.
Zimurtzen hasitako zetazko izara zuriak,
umetan munstroetatik babesten nindutenak.
Tamalez, laztanak ahanzten hasia da jada.

Bigarrenak ez du lanik izan.
Ele bakan bat ere entzun gabe daramat astea.
Berbarik ez.
Inor ez.
Ez du gure arteko gogoetak aditu beste egitekorik.

Mihian ezkutatu zait hurrengoa.
Zernahi dastatu nahi izan du.
Bakardadearen zaporea.
Listua irensten saiatu naiz,
alferrik.

Usna zorroztu dut jarraian,
monotoniaren lurrin nekagarriaz alde egin nahian.
Izpiliku girotzaile baboa besterik ez.
Sudurra moztuko nuke gustura.
Girotzaile horrek denetarik egiten du girotu ez beste.

Begiak zabaltzean jarri da martxan azkena,
oso begiko nuen egunsentiak
bertan jarraitzen duela ziurtatu ahal izan dut.
Koloreak baina, marguldu direla begitandu zait.
Eguzkia, nire antzera, goibel iratzarri dela dirudi.

Akorduan dut ameslaria nintzenekoa.
Zerua kliska bakarraz zeharka nezakeen
eskuez hodei zatitxoak biltzen nituen bakoitzean.
Eguzkia eta Ilargiaren alaba nintzen.
Zoriona hatz-mamiez ukitu nuen, sobera luzez.

Euri asko egin du erreka jo nuenetik.
Tantek oraindik ere busti egiten naute.
Blai eginda nago.

Inozokeriaz blai.

Eta zu zaitut lagun bakar, gogamen bedeinkatua.

Ez nuen nik bilatu, zin dagit.

Nork nahiko du ba gogamena bizikide bakar?

Ezer sentitzea gustatuko litzaidake,

izan ere, minaren falta sumatzen dut.

Bizirik nagoela sentitzearen falta.

Nire bost lagunak gero eta galduago dabilta,

langabeziaren beldur dira.

Aitortu beharra dut,

azkenaldi honetan ez dutela sobera lanik izan.

Lanetik botatzekotan egon naiz behin baino gehiagotan.

Zentzumenek, hitzak berak dioen bezala,

filosofo, jakintsu eta pentsalariak azaltzeko gai izan ez diren arren,

bizitzaren zentzua bilatu beharko lukete.

Estimuluak jaso, informazioa interpretatu

eta ondorioak atera.

Baina nire kasuan behintzat,

egia bakarra,

egia borobila,

Zentzumenen zentzu gabezia izan da.

Ironia hutsa.



BORDARI / A MAILA / Hondarribia

HONDARRIBIA SARIA

Beñat Egues Cuesta

DOMINGO GOÑI ARTOLA

Egun on, Mikel:

Hona hemen, esan bezala, eskatutakoa. Badakit denbora zeneramala email honen zain eta, hasiera batean berehala egingo nuela esan banizun ere, azkenerako, bi aste behar izan ditut dena txukun idazteko. Badakizu zenbaitetan tempoa ez da norberak nahi duena izaten... Oraindik ez duzu erreportajea kaleratuko, ezta?

Dena den, luzapena ez da nik hala nahi nuelako izan. Etorri zinenean zuk zeuk ere ikusi zenuen osaba nola zegoen kaskailduta; adina ere badu, 98 urte, eta ederki atzeman zenizkion hizketarako zailtasunak... Buzurua argi-ilun baina ahoa total eta motel, ohiko osasun kontuak. Beraz, galderak behin eta berririo egin behar izan nizkion datuak jaso eta modu ordenatuan antolatzeke; baina, zuk eskatu bezala, zuzenean balitz bezala idatzi dut, dena osabak esaten zidan moduan.

Tira, hemen duzu, egindako lana, irakurri eta esango didazu.

“- Osaba, lehenengo eta behin, zein zara, nongoa...

- Domingo Goñi Artola, gurasoak Dionisio eta Maria eta zortzi senide-tan hirugarrena. 1917an Amuitzenea baserrian jaioa eta beti Hondarribian bizia. Bueno, beti ez naiz hemen izan, atzerria nahi baino hobeto ezagutzen dut, badakizu hori. Baina, orain bai, orain zurekin bizi naiz.

Beraz, hondarribitarra, betidanik.

- 1936ean, gerra hasi zenean, horrenbestez, hemeretzi urte zenituen.

- Hala izango nituen, bai! Halere gerra guk urruti ikusten genuen... Baserrian ibiltzen ginen, aziendarekin. Aita itzaina izaki, mendiko iratzek baserrietara eramaten laguntzen genien besteei, amarekin esnea banatzen ere aritzen nintzen ni... Eta plazan ere bai, porruak eta baratzean zegoena saltzen. Nik, gainera, ez nekien politika eta horrelakorik deus. Zer jakin behar genuen guk!

- Dena den Hondarribira iritsi zen frentea eta hor, nahi eta nahi ez, etxe atarira iritsi zitzaizkizuen frankistak. Ihes egin zenuten, ez?

- Hori gero izan zen. Anaia zaharrenak bazekien gerra hura alde batek edo besteak irabazi, asko aldatuko zela dena. Orduan esan zidan, *Domingo, guk zerbait egin behar diagu, honek ez dik itxura onik*; nik beti fede handia izan dut beregan eta hura nora ni hara izaten zen. Esaten zuen bazela Bizkaian talde bat, gudari batzuk, frankisten kontra borrokatzen zirenak eta haiekin joan behar genuela. Gerra galduz gero, euskaldunak ederki izorratuak aterako ginela... Nik ez nekien hainbeste, baina, sinetsi egiten nion kontatzen zidan hori. Orduan, hasieran ezetz esanda ere, azkenerako konbentzitu! Euskaldunak ginen eta gurearen alde egin behar norbaitek.

- Eta orduan zer egin zenuten? Nora jo zenuten?

- Anaiak bazituen kontaktuak eta Bizkaira joan ginen, Gernikara. 1936ko abuztuaren 29a zen, gogoan dut hori. Han fusilak eman zizkiguten eta atzera etxera, ordurako frentea Nafarroatik sartzen ari zen eta bi hiru egunetan hasi zen San Martzialeko borroka. Hura tristura... Zure herria xehetzen ikustea eta zure jendea sufritzen... Txoi gogorra.

- Zibilak ez zituzten errespetatzen?

- Nire begiz baserri batzuetatik kea ateratzen ikusi nuen, atera kon-
tuak... Gaintxurizketan ke usaina ere bazen, tropak Hondarribira sartu
eta biharamunean. Gipuzkoa aldera joaki ginela sumatu nuen hori.

- Zuek mendebaldera eta frankistak atzetik...

- Bai, frankistek egurra eman ziguten bazter guztietatik, hemen, gero Donostian, Bilbon, bueno, hura desastre bat izan zen. Horrela Bizkaia galdu arte. Aste gogorak izan ziren, jende asko hil zen Euzko gudarostean, euskaldun asko... Lagun asko. Baina, zorionez, ez anaia eta ez ni ez gintuzten zauritu.

- Eta Santanderrera iritsi zen frentea.

- Bai, hura... Ai ama, hura! Ez genuen Bizkaitik kanpo borrokarik egin nahi, baina konturatu orduko han ginen. Infernua zen hura. Nik uste nuen bertan garbituko gintuztela, bazter guztietatik heldu ziren tropa frankistak, Bizkaitik, Burgostik... Inguraturik ginen. 1937ko iraila izan-go zen eta graziak frantsesek handik barkoz atera gintuztela, bestela... Bestela bi egunetan akabo!

- Orduan, frantsesek salbatu zintuzteten?

- Salbatu ez dakit, handik atera bai. Nik ez dakit zer negozio egon zen tartean, esaten zen Jose Antonio Agirrek eginahalak egin zituela, hariak mugitzen saiatu zela Santanderren ginen euskaldunen alde. Frantziako ordezkari politikoekin harremanak ere bazituen eta... Kontua da handik Gursera eraman gintuztela...

- Gursera?

- Bai. Hori da Frantzia hegoaldean dagoen kontzentrazio esparru bat. Jende askok ez daki baina, Euskal Herriaren ondo-ondoan, hortxe izan dugu kontzentrazio esparru bat, Pauetik bertan. Orduan, Frantzia Espainiako errepublikaren aldekoa zenez, Frankoren kontra borrokan ibili ziren errefuxiatuak jasotzeko toki ireki zuten han, baina badaezpada preso mantentzen gintuzten. Frantzia gure alde zegoen, eta haatik ezin genuen Gurseko kontzentrazio esparrutik atera... Nik hori ez nuen oso ongi ulertzen, gurekin egon eta ateratzen utzi ez? Zer alde egoteko modu da hori? Politika izango zen, baina, motel, horretarako aski zuten Santanderren uztea! Bueno, kontua da Gursen euskaldun montoi bat ginela, han ginen denen artean hirutik bat edo bai. Uste dut noizbait entzun dudala 20.000tik 7.000 ginela Euzko gudarostekoak. *Gernika Berri* izeneko toki batean jarri gintuzten, denak batera, artaldea irudi.

Badakizu, euskaldunak beti elkarrekin. Baina, egia esan hura ez zen batiere leku ona eta askok modu batera edo bestera Gursetik ateratzeko modua aurkitzen zuten. Guk ez. Saiatu, ahalegindu ginen, baina azkeneko momentuan, dena ia lotua genuela, zer bai eta erositako soldadua lekuz aldatu... Edo gehiago behintzat ez genuen ikusi eta han gelditu ginen. Gero berriro dena lotzen hasi ginenerako... Ez genuen lortu, baina askok bai.

- Eta nolakoa zen hura? Zer egiten zenuten?

- Leku itxi handi bat zen, erdian kale bat. Ezker-eskuin *ilots* deitzen genien partzelak zeuden, alanbrez banatuta. Normalean ez zen zain-tzarik egoten eta alanbrada haiek pasatzea ez zen gauza zaila. Gainera ez ziren elektrifikatuta egoten. Orduan, berez, ihes egin nahi bazenuen arazoa ez zen handik ateratzea izaten, behin kanpoan egonda, poliziak ez harrapatzea baizik. Hain ginen ahul, inguruko herrietan ez genuen babesik... Zenbatetan, ihes egindakoak berriro harrapatu eta izugarriko zigorrak bueltan... Beraz, arriskatu aurretik ondo lotu behar izaten zen dena. Eta gero, bada hori, partzela bakoitzean barrakoi txiki batzuk zeuden, bost bat metro zabal eta hogeit hamar bat luze. Makina bat ukuilu dira barrakoi haiek baino hobeak! Zer zen hura? Egur txarrez eginak eta gainean oihal eskas bat, zuloz eta itotiz beteta. Orduan, euria egiten zuenean, blai egiten ginen eta ura lurrera iristen zenean dena bihurtzen zen lohi. Guztia lokatz! Guk lastoz betetako zaku batzuen gainean egiten genuen lo, lurrian; bada, pentsatu lurra nola egoten zen. Hirurogei bat pertsona egongo ginen barrakoi bakoitzeko, bata bestearen gainean... Gaizki bizi ginen. Gainera, ez genuen orain eramateko deus, sustraiak-eta jaten aritzen ginen! Tristeia zen hura... Hotzak eta goseak. Behin, hain ginen makal, zortzi egunetako gose greba egin genuela. Tentsioa ikaragarria zen, nik hango bat ikusi nuen nola jipoitu zuten greba ez errespetatzeagatik eta Paueko ospitalera eraman zuten. Gero esan zuten horrela 70 eraman zituztela... Pentsa gure arteko giroa ere zein zen.

- Eta grebarekin zer bait lortu zenuten?

- Bai, oraindik izorratuagoak egotea. Hobekuntzak egongo zirela hitz

eman zigutenean utzi genuen protesta, baina orduan zer eta barrakoi okerragoetara! Gure beharrak egiteko ere ez zegoen lekurik. Aska moduko batzuk zeuden, bi bat metrotakoak, eta han egin behar izaten genuen guztia. Oso zikina zen dena, nazkagarria. Horri gehitu, gainera, xehetuta ginela. Asko gaixotu egiten ziren, tartean anaia. Baina gero sendatu egin zen, denak ez ziren onik jartzen... Hura biziraupena zen, bakoitzak ahal zuen modura...

- Zuen bizitza arriskuan zegoen?

-Gaixotu eta hiltzen ez bazinen, ez. Bueno, hasieran ez. Hasieran erre-fuxiatuak ginen, frantses eta alemaniarren arteko akordioa iritsi zen arte, ordutik aurrera bai. Kontuan hartu gu han pila bat denbora egon ginela eta II. Mundu Gerra ere bertan zen. Frantzia, gainera, Aliatuekin batera gerra galtzen ari zen eta haiek ere bazuten nahiko lan. Hala, 1940an oraindik okupatu gabe zegoen Frantziak armistizio bat sinatu zuen Hitlerrekin eta Alemaniak Frantzia erabat ez suntsitzeko, Frantziako gobernuak Alemaniarekin kolaboratzen hasi zen. Horrek guretzat zer esan nahi zuen? Bada lehenago gaizki baginen, orduan okerrago.

- Orduan bilakatu zen Gurs benetako kontzentrazio esparru, ezta?

- Ikaragarritzko beldurrez bizi ginen. Oraindik euskaldun asko ginen han, baina beste jende asko ondoko *ilotsetara* eramaten hasi ziren: disidente politikoak, judutarrak, Espainiako iheslari errepublikarrak, apa-tridak, ijitoak... Izua erabatekoa zen. Egia da okerren judutarrak zeudela, askotan etortzen zirelako haien bila Auschwitzera eramateko, baina denok genuen beldur handia. Naziak etortzen zirenean beti pentsatzen genuen gure bila zetozela.

- Etorri ziren arte.

- Bai. Argi genuen garbitu egingo gintuztela. Akabo zen dena. Esan ziguten trenera igotzen ez baginen Espainiaratu egingo gintuztela eta han heriotza ziurra zen, Frankoren kontra ibiliak ginen... Bizitzeko esperantza txiki horregatik igo ginen orduan... Bagenekien bagoi haiek Auschwitzera joaki zirela baina, zer egin behar genuen bada? Oroitzen naiz anaiari heldu niola eta esan niola asko maite nuela. Momentu haie-

tan ere elkarrekin egoteak asko lasaitzen zuen. Dena den, azkenean ez gintuzten Poloniara eraman, Maginot lerroan lan egitera behartu gintuzten.

- Zer egiten zenuten han?

- Maginot lerroa I Mundu Gerran hasitako kontua zen, Frantzia eta Alemaniaren arteko mugan. Defentsarako fuerteak, zuloak... egiten ziren eta Hitlerrek hura garbi nahi zuen. Estrategia izango zuen, ez dakit...

- Zenbat denbora pasa zenuen han?

- Gutxi. 1940an iritsi eta berehala naziek preso hartu gintuzten eta handik Mauthausenera, Austriara... Zer zen hura? Beste kontzentrazio esparru bat, baina han jendea erdi hilik ageri zen... Ikara ematen zuen! Oraindik oroitzen naiz presoan aurpegiez... Burezurrak ziren, azalez estalita, izugarria zen, denak argal-argal-argal, zikin-zikin-zikin... Sartu zirenen laurdenak ere ez zuten ateratzea lortu.

- Tartean...

-Tartean anaia. 1944a zen. Inoiz baino ahituago ginen, ez genuen ia deus jaten. Ez zait sekula ahantziko pentsatzea ere zenbat kostatzen zitzaigun, erdi hilik bizi ginen. Egunak pasatzen genituen plater bakar batekin, eta kontent hori ere hala bazen. Bortxazko lanak egiten genituen ondoan zegoen harrobi batean, gelditu gabe, eta behin edo behin lurpean ere tunelak ireki genituen... Beldurgarria zen ikustea jendea Mauthausenen sartu eta hilabetera nola hiltzen zen, hor, lurrean, inork kasurik egin gabe, kasik gorputzei begiratu ere egiten ez genielako. Eroritako lekuan uzten zituzten... Animaliak bezala! Ikaragarria zen! Ez dakit nola lortzen genuen aurrera egitea... Txoil ahul ginen, baina arrunt makal, eta hala ere bizitzeko esperantza genuelako jarraitzen genuen borrokan, ez genuelako nahi gureak han egiterik.

-Hala hil zen, beraz, anaia? Lanak bizitzeko indarra agortutakoan?

- Ez, berea oraindik tristeagoa izan zen. Aski izango zuen hilabete batzuk gehiagoz naziak urrun mantentzea lortuta... 1944ko neguan, ihesaldi bat antolatu zuten anaia zegoen barrakoiko zenbait komunistak,

baina norbaitek naziei esan egin zien. Jendeak beldurra zuen, eta edo-nork zeinahi salatzen zuen naziengandik onuraren bat jasotzeko. Kontua da ihesaldi saiakera hura ez zitzaiela batere gustatu eta barrakoi hartan zeuden guztiak gas kameretara bidali zituztela, tartean, anaia. Kolpe gogorra izan zen hura! Hasieratik ginen elkarrekin eta ezin izan zuen lortu...

- Handik gutxira iritsi ziren Aliatuak, beraz?

- 1945eko maiatzean. Ongi dakit hori bai. Ameriketako armada etorri zen eta guztiak askatu gintuzten. Ez dut sekula hainbeste negar egin! Ez zen poza, tristura zen. Kito zen! Halere gogorregia zen hura guztia bukatu zela ulertzea, onartzea... Hainbeste urte, hainbeste sufrimendu, beldur, gorroto eta pena. Hainbeste odol eta horrenbeste malko. Barru-barrutik ateratzen zitzaidan tristezia hura.

- Baina amaitu zen.

- Hondarribira itzulera ikaragarria izan zen. Austriatik ez gintuzten berehala ateratzen utzi, paperak-eta, nor ginen, nongoak... Ez dakit zenbat ginen, ehunka, milaka lagun, goseak, gaixorik, dokumentaziorik gabe... Denbora dezente behar izan zuten hura antolatzeko eta trenetan norbera bere herrira bidaltzeko. Ni 1945eko uztailaren 17an iritsi nintzen Hendaiaiko tren geltokira. Bai, 1945eko uztailaren 17an. 1936ko abuztuaren 29an etxetik atera eta 1945eko uztailaren 17an itzuli, ia 10 urte!

-Ia 10 urte beranduago...

- Etxera heldu nintzenean, dena zen aldatua. Gure aita urte batzuk lehenago hila, ama zahartua... Dena aldatua zegoen, Frankismo garai bete-betea zen... Oroitzen naiz, gainera, garai hartan ez nekiela barrerik egiten ere... Ahantzia nuen! Ikaragarria zen. Inguruko goxotasun eta maitasuna behar izan dut berriro nire onera pixkat itzultzeko.

- Eta guk, XXI. mendeko hondarribiarrok, iruditzen zaizu hori guztia ahaztu dugula?

- Duda! Ahaztu ez, askok jakin ere inoiz ez dutelako egin. Penagarria

izan zen. Baina pozik nago. Orain bai, orain barre egiten dut. Gutxienez, ni egon ez arren, Gurseko eta Mauthauseneko amesgaiztoaren lekukotzak hor jarraituko duelako gaurko telebistarekin eta liburuekin. Nik ez, luzaroan, baina irudiak hor segituko du eta horrekin kontent naiz.”

Tira, Mikel, hortxe izan duzu, bada, gure osabaren elkarrizketa. Espero dut testua gutxi gorabehera zuk buruan zenuena izatea eta erreportajea egiteko baliagarria izatea. Osabak ez zuen aipatu eta, jakin dezazun, bere anaiaren izena Martin Goñi Artola zen; badaezpada, datu hori ere ezagutzea garrantzitsua izan daitekeelako aipatzen dizut.

Beste gauzatxo bat ere bai. Zalantzak izan ditut hau esan ala ez erabakitzerakoan, baina azkenean elkarrizketan bertan agertu ez arren, erreportajea, agian, nabarmendu nahiko duzula pentsatuta, jakinarazi behar dizut gure osaba herenegun hil zela. Elkarrizketa bukatu eta egun horretako gauean. Agian barrenak hustutzeak eta *amesgaiztoaren irudiak hor jarraituko duela* jakiteak emandako patxadak bultzatuta utzi gintuen. Goxo-goxo. Urteetan bizi izan ez zuen bakearekin joan da gure Domingo.

Mikel, esango didazu, beraz, zer iruditu zaizun.

Besarkada bat

Telmo Goñi



BORDARI / A MAILA / Hondarribia

HONDARRIBIA SARIA

Lorea Lekuona Legorburu

URAK

Gabrielen kamioneta zaharra mendiko bide kaskarretatik gora doa, Oscar de Leonen kantuen erritmora aldakak mugituz. Sargori dago, baina lau leihoak irekita freskotasun pixka bat sartzen da. Gainera mendian geroz eta gehiago sartu, geroz eta hotzagoa da klima. Karibearen abantailetakoa bat da hori.

– Ordu beten helduko gara etxaldera –dio Gabrielelek–. Benetan merezi du, inbertsio ona da. Fruta-arbolak landatu ditzakegu, marmelada eta bestelako etxeko produktuak egin. Turistei gustatzen zaie hori! Deskonektatu, naturarekin bat egin ...

– Ez da ideia txarra, baina badirudi inguruko guztiei gauza bera bururatu zaiela –esan du Guardiolak buruarekin errepide bazterreko produktu ekologiko postu bat seinalatuz–. Nik uste hobe izango dugula proiektu berri bat pentsatzea, eta bertakoentzat bada, hobe. Nazkatuta nago bazter guztietan kartelak ingelesez ikustez.

– Dirua turistek dute, hori ezin duzu ukatu –erantzun dio Josek, begirada inguruko mendi magaletatik kendu gabe.

– Bai, eta pentsaera honekin jarraituz gero diruak haien poltsikoetan jarraituko du! Hiri osoa haien gustuetara moldatu eta gure helburu bakarra haiek zerbitzatzea da. Ez al duzue ikusten gure burua kolonizatzen ari garela?

– Hasi gara –dio barrez Marlenek, etxaldearen jabeak–. Nahi izanez gero kafea ereiten jarraitu dezakezu Guardiola, gure amak bezala! Baina ez dakit unibertsitateko irakasle batek zenbat iraungo duen lan horretan!

Denak barrezka hasi dira eta elkar zirikatzen jarraitu dute, Chevrolet zaharra malda lokaztu batean irristatu den arte. *Ez da posible* pentsatu du Josek, gurpilak lokatzetan etengabe biraka entzun dituenean. Aurreko ispiluan Gabrielen aurpegia islatzen da, kopeta zimurtuta eta ahopetik biraoka. Denak jaitsi dira autoa bultzatzeko eta alferrik. Egunsentian zaparrada galanta bota du eta zuhaitzen gerizpean dauden errepide zatiak guztiz lokaztuta daude.

– Esan dizuet bidea gaizki egongo zela –esan du Marlenek, denek espero zuten bezala. Gizonen etsipen aurpegia ikusteak, gainera, plazer apur bat ematen dio. *Kalekume hauek...* esaten du bere baitan.

– Bueno bai, kontua da orain zer egingo dugun –esan du Josek–. Gora ezin badugu joan, behera joan beharko dugu. Bidean kantinatxo bat zegoen. Zerbeza bat? –gaineratu du Gabriel alaitzeko asmoz. Irribarre batekin erantzun zion honek.

Hiruna zerbeza edan dituzte eta Guardiola eta Marlene jada eztabaida sutsu batean murgilduta daude. Ezagutzen ez dituen edonork elkar gorroto dutela pentsa lezake. Gabrielelek burua batetik bestera mugitzen du irribarrez, tenis partida bat ikusten ari balitz bezala. Tarteka Marlenek Gabrielen bota emeki zapaltzen du eta honek mahai azpitik izterra laztantzen dio. Jose ordea ingurura begira dabil, ur-jauziak ikustera etortzen diren turisten artean ezagunen bat bilatuko balu bezala. Halako batean norbait begira duela sentitu du. Ezkerretara begiratu eta turista baten kamera ikusi du, bere norabidean argazkiak ateratzen. Hogeita hamar bat urteko neska bat da, hankak eltxo ziztadez josiak dituena. Ezti koloreko begiak kameraren atzetik atera ditu Jose begira duela ikusi duenean.

– Autografoak ere sinatzen ditut! –esan dio ozen Josek kantinaren beste aldetik. Lagunak ere irribarrez dagoen turistari begira geratu dira harriturik.

–Eseri gurekin eta erakutsi argazkiak! –esan du Gabrieleke Joseri keinu bihurri bat eginez. Turista haiekin eseri eta berehala Guardiolak zerbeza bat gehiago eskatu du gonbidatuarentzat. Neska lotsatuta dago, baina bere buruarekin akordio batera iritsi zen Berlineko aireportuan zegoenean. Bidaia honetan ez die aukera berriei ezetz esango eta ez die abenturei ihes egingo.

– Nola duzu izena? –galdetu dio Marlenek, baina erantzuna inork ulertu ez duenez, neskaren izena aipatzea saihestuko dute une oro.

– Zergatik atera dizkidazu argazkiak niri? –galdetu dio Josek turistari gainerakoak berriz ere eztabaidan ari direnean.

– Egia esan deigarria iruditu zait zure jarrera... Lagunekin zerbeza batzuk hartzen ari zinen baina bakarrik egongo bazina bezala jokutzen zenuen –hau esandakoan eguzkiak erretako masailak are gehiago gorritu zaizkio neskari-. Haien artean gustura egongo ez bazina bezala... Beste nonbaiten egon nahi bazenu bezala.

Jose posturaz aldatu da, deseroso. Ez zuen erantzun hori espero. Uste zuen urteekin ikasi zuela besteak bezalakoa izaten, disimulatzen, kamuflutzen. Baina neska horrek ez du begiratu bakarrik egiten, ikusi egiten du. Eta horrek deserosotasuna sortzen dio.

–Eta zure ustez hemen egon nahi ez badut... nora joatea proposatzen duzu?

Neskak harriduraz begiratu dio. Harriduraz eta jakin-minez. Badaki Karibean ez direla itzulinguruka ibiltzen gauzak esateko eta abentura berri bat ate joka edukitzeak bihotza azkartzen dio. Irribarre handi bat egin dio Joseri.

–Hondartzara –ez da erantzunik eroena ezta originalena ere, baina burutik pasa zaion lehena da. Eta bidaia honetan ez dio ezeri ezetz esango.

Chevrolet estuan sartu dira bostak kantinan bapo bazkaldu ondoren. Poz-pozik daude turistarekin. Ez da ohikoa atzerritar batekin luzaroan hitz egiteko aukera edukitzea. Edo aukera agian eduki ohi da, baina

aurreiritziak direla eta ez dira haiekin hitz egiten hasten. Autoaren barrualdea labe bat bezala berotzen da Karibeko eguzkiaren azpian eta atzean eserita doazen hiru lagunak ahal bezala saiatzen dira bihur-guneetan haien tokiari eusten, beso izerditu itsaskorrek elkar uki ez dezaten. Gonbidatu bereziari salsa eta *vallenato* abeslari onenen antologia azkar bat egin nahian, irratiko abestiak etengabe aldatzen ari da Guardiola. Unibertsitatetik kanpo ere beti zerbait irakasten egon behar duen horietarikoa da. Joe Arroyoren *Rebellion* abestiaren lehen notak entzutean bi metroko gorputz afrikarra astintzen hasi da trantzean balego bezala. Jose eta turistak elkarri begiratu diote irribarrez. Haien belaunak elkartu direnean taupadak apur bat azkartu zaizkie momentu batez eta ez dute ikusi Marleneren bekainek egin duten keinua. Hirira iritsi eta zentrorra sartu aurretik, hondartza inguruan uzteko eskatu dio Josek Gabrieli.

– Gida turistikoa al zara orain? –galdetu dio barrez Guardiolak.

– Bai, pikutara joateko bidea azalduko dizut nahi baduzu. Baina propina ahaztu gabe gero!

Denek besarkatu eta agurtu dute turista. Autoa abiatu denean Jose nahiko urduri jarri da. Zertan ari da? Goizean ezagutu duen ezezagun batekin hondartzara joatea ez da normala. Eta bazkalostean are gutxia-go. Eguzkitan egotea jasangaitza da eta mendialdetik ekaitza dator gainera. Hondartzara ordu horietan joatea turistaren lerdokeria handiena da. Eta zer ari da bera hor? Edozeinek ikusiko balu...

Hondartzaren alde lasaira iristeko zubitxo bat gurutzatu behar da ubide gainetik eta hor egoten dira bertako haur eta gaztetxoak, turistek uretara txanponen bat botatzeko zain, haiek salto egin eta igerian harrrapatzeko. Urteetan izan da horrela. Jose milaka aldiz pasako zen zubi horretatik honezkero, baina oraingoan berari ere dirua eskatu diote. Eta urdaila estutu egin zaio. Irribarre deseroso batekin geratu da begira neskak hamar urteko ume bati txanpona bota dionean eta deseroso egin du txalo mutikoaren abilezia ikusita turista barrezka eta txaloka hasi denean. Lekuz kanpo sentitzen da. Ur ertzerira iritsi direnean neska arropa kentzen hasi da bularretako eta kulerotan geratu arte.

– Zer, uretara? –esan du irribarrez .

– Zure esanetara, komandante! –erantzun dio Josek. Urduri edo de-
seroso dagoenean umorearekin disimulatzen saiatzen da. Arrakastarik
gabe gehienetan.

– Ez dizkigute gauzak lapurtuko ezta? –galdetu du neskak uretan zeu-
dela.

– Ez dut uste, ez kezkatu. Hemen jende jatorra bizi garela gogoraraz-
ten dizut.

Turista barrezka hasi da lotsatuta. Karibeko ur epeletan zoriontsu da.
Olatuek hiriko zarata isilarazten dute eta eguzkiaren izpi itsugarriek
lasaitasun giro berezia sortzen dute.

– Itsasoaren usainak etxera eramaten nau –esan zuen neskak–. Zeru-
mugara begira geratzen naiz, luzaroan begiratuz gero nire herria ikusi
ahalko banu bezala. Azken finean, ur hau bera da nire herriko kosta
bustitzen duena, ezta?

– Bai, baina ez al zara inoiz baina urrunago sentitzen? –erantzun zion
Josek pentsakor–. Kostako zitzaizun haraino igerian joatea.

– Agian bai, baina ez dakit... urak dena biltzen du. Denak hurbiltzen
gaitu. Hemen gaur lurrunduko den ura bihar euria izango da munduko
beste txokoren batean. Hori ez al da magikoa?

Jose esaldi horri bueltak ematen ari dela, azal leun batek berea ukitzen
duela sentitzen du. Neskaren bularrak bere bularraren kontra daude eta
ezti koloreko begiak hurbiletik ikusi ditu. Puntu beltz txikiak dituzte, be-
reziak dira. Ezpainak elkartu eta batak bestearen besoetan hondoratu
dituzte bakardadeak. Uraren magiak harrapatuta akaso, edozer egiteko
gai sentitu dira biak. Elkar maitatuaz egunerokotasunaren kateak hau-
tsiko balituzte bezala. Eta zoragarria izan da. Eta aske izan dira. Albotik
pasa den txalupa bateko arrantzaleak *ez al duzu hotel bat ordaintzeko
dirurik?* oihukatzean ere ez dira lotsatu, barrez hasi dira.

Uretatik irtetea, ordea, hiriko zaratak xarma guztia ezabatu du. Joseri azkar pasa zaio edozer egiteko gai izatearen sentipena, eta zeharo ergela sentitzen da. Ekaitzak harrapatu ditu turistaren hotelera bidean. Errepideetan uholdeak daude, izan ere, urtean zehar ez du euririk egi-ten hilabete honetan izan ezik, eta hiria ez dago behar bezala prestatua. Kaleko saltzaileak haien postuak toldoekin babesten ari dira, autoak klaxona joka, etxe kolonial bateko leihotik amona bat kalera begira ari da, egunkari eta plastikozko poltsekin ahal duten moduan babesten diren oinezkoei irribarrez. Zebra-bidea gurutzatu eta espalaira igotzeko, Josek txanpon batzuk eman dizkio ur gainera pasatzeko taula bat jarri duen gizonari. Neska txundituta geratu da sistema horrekin. Hotelera korrika hurbiltzen ari direla ingurura begiratzen du, eszenarekin maiteminduta.

– Nire herrian arratsalde euritsuak ez dira hain dibertigarriak!

– Dibertigarria? Kostako zait etxera iristea euri jasa honekin –esan du Josek hoteleko harrera-lekutik kaleko trafikora begira.

– Etxera? Ez al duzu nire gelara igo nahi dutxa bat hartu eta lehortzera?

– Ezin dut, nire aitagarrebaren urtebetetzea da.

Erantzunak sorpresaz hartu du neska eta irribarrea galdu du momentu batez. Espero zuen Jose ezkontuta egotea, baina ez zuen uste haien artekoaren burbuila hain azkar lehertuko zuenik. Egunerokotasunetik ihes egin nahiko zuela uste zuen. Baina abenturak abentura, azkenean denok itzuli behar dugu noizbait errealitatera. Eta hori beldurgarria da neskarentzat.

Igogailutik atera eta etxeko atea zabal-zabalik topatu du Josek. Musikak korridore guztiak erritmo epelez bustitzen ditu. Ana Sofia etorri zaio korrika besarkatzera, aitona oparitu dion panpina erakusteko irrikatan. Kopetan musu eman dio eta gainerakoak agurtzera joan da.

– Azkenean! Zer moduz joan da? Aitari komentatu diot etxaldea inbertitzearena eta ideia ona iruditu zaio –esan du Irenek saltsa dan-

tzatzeari utzi gabe Jose besarkatzen zuen bitartean-. Umore onez dago gaur, atera ron ona eta hitz egiozu proiektuaz, laztana.

Azkar bukatu dira lau ron botila. Bosgarrena ireki du Irenek eta lehenengo tragoa lurrera bota du, hildakoentzat. Gonbidatu batzuk jada joan diren arren oraindik hamar bat pertsona geratzen dira dantzan, kantuan eta solasean. Jose bozgorailuaren ondoan dago, itsasoari begira eserita. Hondartzako elkarrizketa datorkio burura. Momentu batez edozer egin zezakeela pentsatu du uretan. Ez dio bere buruari barkatuko. Askatasun sentipen hori berreskuratzea mingarria egiten zaio oso, ez baitu luzaro irauten. *Jose, altxa eta mugitu aldaka horiek!* esan du norbaitek. Badira hogeita bi urte inork ez diola Gorka deitu. Ron tragoa batekin desagerrarazi du eztarriko korapiloa. Itsasoari begira geratu da, begiak zerumugatik kendu gabe. Kantauri itsasoaren usaia eta indarra ditu gogoan. Eta Euskal Herriko orlegi paregabea. Jose ez da edozer egiteko aske. Eta ez, urak ez gaitu denak hurbiltzen.

2. SARIA

Itsaso Albisu Urkizu

ZENBAKI ARTEAN IGERIAN

Zenbakiak inoiz ez zidaten hainbeste min egin. Beti oso gustukoak izan ditut. Haien artean seguru sentitu izan naiz. Horregatik ikasi nuen matematika, azkenean letrekin lan gehiago egiten bukatu badut ere. Oraingoan ordea, zenbakiak mina egiten didate. Min handia. Buruko mina jartzen zait ikusten ditudan bakoitzean eta burua pentsatu eta pentsatu hasten zait irteerarik ez duela ematen duen zirkulu amaigabea.

Norbaitek atea jo duela iruditu zait. Txirrinaren hots desatsegin horrekin. Atea jotzean poztu beharrean, berehala isildu dadin etortzen zaidan sentazioak inbaditu dit gorputza. Momentu honetan baina, poztu egin naiz soinu hau entzuteaz. Begiak hiru segundoz itxi eta pentsatzen ari nintzena alde batera uztea eragin duelako. Ondoko sofara begirada makurra bota eta bertan dagoenari pena apur batekin nire begiradarik goxoenaz begiratu diot, konturatu ez den arren. Atera pauso txikiak emanez iritsi naiz eta atea ireki aurretik ispiluan nire aurpegia ikusi nahi izan dut. Etxeko txikia aurpegi honekin ezin dudala jaso pentsatu eta irribarre faltsu bat marraztu zait ezpainenetan. Faltsua iza-teari utzi dio, atea ireki eta biloba Amaia nire aurrean ikusi dudanean. Eguerdiro lez, masailean muxu xamur bat eman eta barrura sartu da. Eskolako motxila sukaldeko aulkietako batetik zintzilika jarri eta sala-

rantz abiatu da. Amonari beste muxu bat eman dio masailean eta hari begira dago zer egin jakingo ez balu bezala.

Badira dagoeneko hiru urte Amaia gurekin bizi denetik. Bere gurasoek kotxe istripu bat izan zuten eta bietako bat ere ez zen bizirik atera. Pasa dira urte batzuk egun ilun eta hotz hartatik, nahiz eta atzo izan baltitz bezala gogoratu. Errepidea oso irristakor omen zegoen eta edozeini gerta zitzaiokeen. Arrazoi, baina guri tokatu behar. Jada ez dago atzera bueltarik. Istripuak aurretik jakin ezin diren gertakizunak dira eta denak sorpresan hartzen gaituzte. Baita gu ere. Oso kolpe gogorra izan zen familiarentzako, eta batez ere Amaiarentzako, azken finean bere gurasoak baitziren. Orduan 13 urte zituen gaixoak eta gertukoenak gu ginenez, gurekin bizitzen jarri zen.

Bazkaltzeko, lehenagotik prestatu dudan lenteja platerka atera dut mikrouhin labetik eta aurrean jarri diot jan dezan. Jaten ari dela, institutuan egindakoaz ari zait hitz-egiten. Idaztea asko gustatzen zaiola dio eta literatura lehiaketa batera aurkeztu dela. Euskarako irakasleak animatu omen du, talentua duela ikusten omen du. Pozik nabaritzen dut. Horrelakoak entzunda, nire gazte garaietako pozez betetako oroitzapenez ari zait betetzen burua. Amaiari hainbat istorio kontatzea gustatuko litzaidake, gazte hauek zaharrak garenok beti hala izan garaela pentsatzen dutela iruditzen baitzait sarritan. Baina zein gustura hizketan ari den ikusita, bere garaia dela pentsatu dut.

Berriro ere motxila handi eta pisutsua bizkarrean duela aterantz doa gure etxeko poztasuna. Eskuaz agurtuz, gero arte esan eta bueltan itxi du atea. Ni, sofarrantz noa berriro ere. Telebista piztu eta adi entzuten jarri naiz. Korrupzioari buruz ari dira eten gabe. Ez zait harritu, eguneroko gaia bihurtu baita. Belarriko mina ematen hasi zait jada. Batzuk hain gutxi eta beste batzuk hainbeste eduki eta oraindik ere gehiagoren nahia izateak jenio txarrez jartzen binau. Amorruek nirekin ahal izan baino lehen, telebista itzaltzeko botoia sakatu eta pantaila ilunari so geldi-geldi geratu naiz.

Aurrean dudan pertsonari begira nago, 35 urte elkarrekin ezkondu ginenetik, ni jada jubilatuta eta bera aulkitik altxa ezinik. Duela hilabete batzuk bizkarraldean bultzo bat ateratzen hasi zitzaion. Medikuarenera joan eta giltzurrunetako minbizia diagnostikatu zioten. Oraindik oso hasierako fasean omen zegoen, baina transplantea ahalik eta azkarren egitea komeni zela esan ziguten. Badaezpada ere. Lanean ezintasun-baja eman zioten, eta bitartean ospitaletik noiz deituko zain gaude. Ospitale pribatuetan operazioa askoz azkarrago egingo luketela ere esan ziguten, baina horretarako mediorik ez daukagu. Eta gutxiago orain, pentsio eta baja batek ematen duenarekin justu-justu iristen baitzaigu botikak, janaria eta fakturak ordaintzeko ere.

Egunak joan eta egunak etorri ez da deirik iristen. Esperantza geroz eta gutxiago ditut. Tunel amaierako argia geroz eta txikiagoa da. Emaztea geroz eta ahulago eta tristeago nabari dut. Jada laguntzarik gabe asko kostatzen zaio sofatik altxatzea. Berak kontrakoa esan arren horretan behintzat ez dit engainatuko.

Gabonak heltzear daude. Hotza egiten du eta xiri-miriak kalera ateratzeko gogo apurra kendu dit. Amaia etortzen denerako afaria prestatzen ari naiz, bat-batean telefonoa jo eta jo hasi denean. Salako mahaitxora gerturatu, telefonoa eskutan hartu eta zein den galdetu dut. Amaia galdetu dute. Harritu egin naiz, gazte hauek sega-potoa besterik ez baitute erabiltzen. Etxean ez dagoela erantzun dut, baina azentu ingelesa duen emakumea, mezu bat uzteko esanez temati jarri da. Jaso dut mezua. Literatura lehiaketa bat irabazi omen du, eta emakumeak ahalik eta azkarren harekin harremanetan jarri nahi duela gutxienez pare bat aldiz esan dit. Baiezkoa erantzun diot.

Zortziak eta laurden dira eta Amaia etortzear egongo da. Bete-beteen asmatu dute nire suposizioek. Txirrina oraintxe ari da kantari. Atea ireki, sartu eta sukaldeko mahaian eseri gara. Ni alde batean, amona bestean eta bera erdian. Biloba hizketan hasi baina lehen, telefonoko deiarena esatea dela egokiena pentsatu dut. Notizia onak beti etortzen baitira ondo. Ilusio handia egingo diola pentsatzen dut gainera. Berehala esan diot aurkeztu zen literatura lehiaketatik deitu berri dutela,

bueltan deitu dezala lehen bait lehen. Begiak izugarri ireki zaizkio. Hitz bat bera ere esan gabe telefonorantz jo du. Entzun dezaket nola ari den hizketan norbaitekin. Nik hitz egin dudan emakume bera izango dela pentsatu dut. Bueltan dator mahaira. Eseri eta malko lodi bat masailetik behera irristatzen ari zaiola konturatu naiz. Ezer esateko denborarik eman baina lehen bera hasi da hizketan. Lehiaketa hori ez dela literatura lehiaketa soil bat. Europa mailan ezaguna dela eta lehenengo saria irabazi duela. Saria egundoko dirutza omen da. Diru horrekin amonaren transplantea klinika pribatu batean ordainduko ahal izango dugula dio. Nire aurpegiko muskuluek nola irribarre bat marraztu duten nabaritu dut. Ezin dut sinetsi nire belarriek entzun berri dutena. Hori ezinezkoa dela esan diot. Baina berak klinikara deitu eta informazioa eskatu zuela esan dit. Euskerako irakasleak lagundu omen zion horretan.

Amona eta nik elkar begiratu gara. Beharbada ez genuen inoiz pentsatuko egoera honetatik aterako gintuena biloba Amaia izango zenik. Amaia eta ni aulkitik altxa eta amonarengana hurbildu gara. Besarkada handi bat emanez, hiruron masailak malkoz ari dira betetzen. Batzuetan ez da behar ezer esaterik, mugimendu txiki eta goxo batek dena erakutsi eta eskertzen baitu.

2017





SATARKA / A MAILA

2. SARIA

Gorka Salces Alcalde

ERINOZIO BETE GALES

Esgoriad

Lanturuka helduko zara
ortziko argi berdintzailearen
azpira.

Jaiotzen zarenerako
esleituta izango dituzu
inoiz ukitu ez dituzun koloreekiko
miazkatu ez dituzun haizeekiko
filiak

fobiak

Zeharkaldi luzea duzu aurretik
eta mapek, gehienetan,
ez dizute iparra erakutsiko.

Ireki bidea
sasitzaren artetik,
zauritu eskuak
zure zidorra zabaltzen.
Baina inoiz ez ahaztu
non gastatu dituzun
zapatetako zolak,
non eskatu diozun
sua egunsentiari,
non husten den
zure begietako erlojuaren hondarra
negar eta barre batera
egiten duzuenan

zauden lekuan zaudela.

Udaberria Aberystwythen

Martxoak zeruaren leihatila
ireki du.

Grisa izateari utzi dion
kanbriar itsasertzean
kaioak algaraka
promenatzen dira.

Alegera hartu dituzte
ezpondako olatuek.

Argia.

Argia behingoogatik.

1914

Borth ondoko muinoan
Gerra Handian hildakoak
gogoratzen ditu
harrizko gurutze batek.

Itsas pasealekuan
kresalak eta ufadek arraildutako
bi bandera ziztrin
astintzen ditu haizeak.

Mende bat igaro da
eta teilatuetako arbelek
zeruaren kolorekoak izaten
segitzen dute.

Angelus

Isiltasun zaharra zen hura.
Haize zalantzatia zebilen.
Heltzen hasitako tomateek
ez zuten bere gorritasun
jada ukaezinarekiko
erantzukizun historikoa
onartu nahi izan.
Hala heldu zen
iluntze hutsa, itxia.

Ez ginen askatzen saiatu.
Iraganera jaio ginen.

Eskalarik gabe

Trenak ez dute gupidarik.
Izotzaz zartatzen dizute arnasa,
berdin die norabideak,
leihoak ispilu bilakatzen zaizkie
ilunabar infinituan
eta trabesak dituzte
erloju linealen notario.
Bidaiaz gozatu nezakeen
noizera goazen jakingo ez banu.

Eraman nazazu

Ekar iezadazu,
arren,
sekula berriro
ahoz gora
arnastuko ez ditudan
hodeien ibilera,
haurtzaroko zeruen
musika izpi bat.

Gure gorputz gaziek
kresalaren kilimaz
blai ditzaketela izarak,
mesedez,
esan iezadazu.

Itxi iezazkidazu
begiak,
bota nazazu
lurrera.
Egin dezagun bira
elkarri lotuta
hondarrean,
hustu ditzagun erlojuak.

Eraman nazazu hara,
faborez.

Azken aukera

Beste ni batzuk
jaiotzen ari dira
nigan.
Azken aukera izan daiteke.
Belarrean ibiliko naiz
ortozik,
zer gerta ere.

Hondarraren patua

Segida etengabea da.
Kadentziala.
Lau segunduro
laztan busti bat.
Ertzeko lorratzak
ezabatzen dituzte,
baina ez harrien memoria.

Renoir, Conversation, 1913

Kristalaren atzean
denboran harrapatutako
begirada grisak
koloreen lausotasun
argigarrian.
Lizuna da ebidentziaren
betierekotasuna.

Ez dakit lehenago,
baina une horretan
ez zintuen maite.
Eta orain denok dakigu.

Ertzak

Itsaso inpresionista honek
zertzelada labur eta urduriz
margotzen du kostaldea.
Harri borobilak
herrestan daramatza bueltan
bere sabel kromatikora.
Niri ere ertzak leundu dizkit.
Plazer hotza izan da.



SATARKA / B MAILA

2. SARIA

Olaia Baigorri Vales

BIHAR ARTEA

(Ud)azkena iritsi da,
eta ez dakit nola esan behar dizudan
hostoak ez direla erortzen,
zuk egiten diezula putz,
indarrez eta gogoz.

Badakit maitasuna barruan dagoela
eta kanpoan bilatzen dugunean
ez dugula aurkitzen.
Nola aurkitu behar dut zure irribarrea
edozein tabernatako larunbat gauetan?

Monicak esan dit
loreak hazten zaizkizula
(h)arantza egiten duzun bakoitzean.
Eta erantzun diot
zu lorategi osoa zarela,
magia atera zenuela ezpainetatik,
eta nik,
truko guztiak jakin arren,
sinestu egin nizula.

Uler dezaket ni ez maitatzea,
baina utzidazu esaten
zauriak azkarrago ixten direla
zure begiak ilargiaren gainetik distiratzen
ikusten ditudanetik.

Lekua kendu diezu izarrei han goian
eta gure ohera erori dira
amestu genituen egunsenti guztiekin.

Zin egin nahi dizut,
nire bularrera bueltatzen bazara
ez duzula irtenbiderik aurkituko,
itxita baitago
kanpoan barrurako irrikan geratu ziren guztientzat.

Uste dut mintzea gustuko duzula,
edozein poetak
zu bezalako norbait maitatzen duela errezitatzen duenean,
eta ni beti nago aurrean,
pairatzen,
barruan utzi zenidan negua.

Bizitza osoan zehar izango diot inbidia
zurekin garagardo bat partekatzea lortzen duenari.
Ahotik kentzen dituzunean,
muxuak diot.

Ez dakit nola lortu zenuen nire bihotza,
jakinda, beti izan naizela hotza

eta berotik ihes egiten dudala,
gorputzenetik batez ere.

Oroitzapenak mahaiaren gainean utzi zenituen
eta gauean ohera etorri zitzaizkidan,
isilik,
eta gure erdian sartu ziren
ez barkamenik, ez baimenik
eskatu gabe.

Nahiago izan nuen gal(d)erarik ez e(ra)gin
eta osorik mantendu.
Badakit, badakit goiz dela
eta biok etxeko sofan gaudela,
baina denborak hilezkorra dirudi
zure begiek nireak bilatzen dituztenetik.

Orain, gure tabernan gure kafearen usaina baino ez da aditzen,
maitasunak bat eginda baino bereizita nahi gaituenetik.
Joan zaitezke etorri zinen bidetik,
ez zintudan zerura eraman
eta ez dakizu nola eta zenbat sentitzen dudan.
Eta ez naiz barkamen eske ari.

Sabinak esan zuen
500 gau behar izan zituela zu ahazteko;
esaiozu nik bizitza osoa beharko dudala.
Irribarre eternaleko neska,
bihar artea egingo dugu biok batera.

2. SARIA

Iñaxio Lopez De Arana Arrieta

ERRINOZERO ANDREAREN MENDEKUA

Judith zuen izena, baina ikastolako neska-mutil guztiok “Errinozero anderea” deitzen genion. Aurreneko aldiz ikusi nuenean ezin nuen sine-tsi hango hura benetakoa zela: “A zer sudur puska, kar, kar, kar!”, pentsatu nuen neure artean, barreari etzi eutsita. Sudur haren modukorik ez nuen sekula ikusi nik; zut-zuta, handiosa, sudurkaritasunaren ikur superlatiboa, tentekortasunaren gorazarrea, sudur guztien jainkosa miragarria; halakoxea zen Judithen sudurra. Irakasle eta ikasle guztiok ezizen bana genuen ikastolan, eta Judithi berehalaxe ezarri genion berea: “Errinozero anderea”. Bakoitzak berea, bai; baina neskato harena berezia zen denontzat. Nork ez zuen sekula barre egin ikastola garaian Errinozero anderearen kontura?! Inork ere ez!! Gehiago esango dizuet: nik ikastolan egindako barrealdirik gogoangarrienak Errinozero anderearen kontura egin nituen. Nola pasatzen zen korridorean zehar zintzo-zintzo bere gelarantz, jende guzti-guztia begira geratzen zitzaiola! Zintzo-zintzo, baina beti sudurra zut eta ondo nabarmena, lainezaren adierazgarri-edo.

Txikitandik guztiz galduta neukan haren arrastoa, eta, egun batean, gutxien espero nuen lekuan, berriro ikusi nuen: udal bulego batean. Gaizki helbideratutako ordainagiri batek ekarri zuen berriro nire mundura Errinozero anderea. Erreklamazioa aurkezteko ilaran nengoela aterki-kolpetxo bat sumatu nuen buruan. “Nor ote da artaburua?!”, eto-

rri zitzaidan burura berehala. Nor-eta Errinozero anderea! Ezin nuen sinetsi! Han zegoen nire aurrean, sudur eta guzti. Berak ere ezagutu ninduen. Hitz erdirik ere egin gabe jarraitu zuen aterkiarekin buruan jotzen. “Zer arraio du Errinozero andere malapartatu honek?”, pentsatu nuen, baina ez nion ezertxo ere esan, halako batean nekatu eta bakean utziko ninduelakoan. Kolpe haiek ez ziren inori kaskoa puskatzeko modukoak, baina, zer nahi duzue esatea, gogaikarriak ziren, oso gogaikarriak. Aurreneko egun haietan nekez jasaten nituen aterki-dantza haiek, baina gaur egun hobeto daramatzat; ia-ia ohitu naizela esan daiteke.

Urteen joanak ez dio aldatu sudurtzarra. Hor dauka, aurpegiaren erdi-erdian, grabitateari eta neurritasunari buru eginez. Gaur bost urte bete dira udaletzeko pasadizoa gertatu zenetik, hau da, aterkiarekin jotzen hasi zitzaidanetik, eta ez dakit noiz emango didan bakea. Oraintxe bertan, hau idazten ari naizen bitartean, horretan ari da; mekanikoki eta grina handirik gabe jotzen nau buruan aterkiarekin (eskerrak!), horretarako kontratatu izan balute bezala.

Aterkia aurreneko aldiz buruan sentitu nuenean, erdeinuz beterik jiratu nintzen. Errinozero andrea zela ikusteak eragindako ezustea gainditu ondoren, zertan ari zen galdetu nion. Entzun ere ez zidala egin ematen zuen. Sudurra sekula baino puztuago zeukala iruditu zitzaidan. Ezer esan ez banio bezala jarraitu zuen, aterkiarekin jo eta jo. Zaindari bati deituko niola esanez mehatxatu nuen: lasai eta bare jarraitu zuen berean, batere beldurrik gabe. Zer egin ez nekiela geratu nintzen. Argi ikusi nuen, ordea, zerbait egin beharra neukala aterki hura eta aterkiaren jabea bera behingoz gainetik kenduko banituen. Muzin egin nion, hasiera-hasieratik, haren izaera poliedrikoan murgiltzeari, haren zirrikiturik ezkutuenetan miatzeko, jokabide aldrebes hura sendabidean jartze aldera. Azkenean, luze hausnartu eta gero, zer egingo-eta neure indar guztiakin sudurretik heldu nion, atzamarrak sudur-zuloetan sartuz. “Utzi bakean! Utzi bakean!”, esan nion oihuka, sudurretik gogor oratzen niolarik. Errinozero andrea, auhen ahul bat eginda, lurrera erori zen. Sudurra gorri-gorri eta hanpa-hanpa eginda zeukan. Sudur haren neurrigabetasuna ikusita, errukiz begiratu nion; bat-batean, bar-

neko harrak xuxurlaka eskatu zidan gajo hari kasurik ez egiteko, bera burutik ondo ez zegoenez, besteei burua izorratu nahi ziela-eta bere aterki zikinarekin. Berehala, eta berebiziko esfortzua egin eta gero, berriro altxatzea lortu zuen eta, nigana jiraturik, berriro hasi zitzaidan aterkiarekin jotzen. Indartsu hasi arren, ohartzerako aterkikadak leunduz joan ziren, batere minik ez eragiteraino, baina oraindik batere atseginak izan gabe. Ezagun da bekoki erdian kokatzen zaizun euliak zeharo gogaitzen zaituela, batere minik ematen ez dizun arren. Aterki hura buruan behin eta berriro pausatzen zitzaidana eulitzar nazkagarri baten modukoa zen.

Emakume hura pitzatuta zegoela pentsatzen hasi nintzen. “Alde egin ezak harengandik”, agindu nion, irmo, neure buruari. Eta korrika hasi nintzen, nora jakin gabe; baina emakume hura beti atzetik, aterkia beti eskuan zeukala, ni jotzeko pronto. Gepardoak besteko abiaduraz eta malgutasunez mugitzen zen, eta berehalaxe jarri zitzaidan ondoan, ikastola garaian oso gutxi baziren ere nik bezain azkar korrika egiten zutenak. Pixkanaka-pixkanaka gero eta nekezago arnasa hartzen zuela ohartu nintzen, eta bere aterkiekin gero eta gutxiago asmatzen. Arnasestuka hasi zen, eta arnas hotsak ateratzen. Bat-batean pentsatu nuen ezen, korrika jarraituz gero, nire torturazaile sudurluze hura hantxe bertan eroriko zela zerraldo.

Horregatik gelditu nintzen. Gelditu eta normal hasi oinez. Begiratu nion. Aurpegi hartan ez zegoen ez esker onik, ez gaitzespenik. Berean ari zen: beti bezala buruan jotzen aterkiarekin. Polizia-etxera joatea bururatu zitzaidan: “Jauna, emakume hau buruan jotzen ari zait aterkiarekin”. Ez zuten sinetsiko. Dokumentuak eskatuko zizkidaten, galdera gaiztoak egingo zizkidaten eta azkenean, auskalo, nork ziurtatzen dit niri ez nuela boladatxo bat egingo itzalpean.

Etxera itzultzeko ordua zen. Autobusa hartu nuen eta bera, beti bezala, atzetik, aterkiarekin kaskoan tok-tok egiten zidala. Lehenengo ilaran eseri nintzen. Bera zutik geratu zen, nire ondoan. Ezker eskua heldulekutik oratuta zeukan, eta eskuin eskua erabiltzen zuen ni errukirik gabe aterkiarekin jotzeko. Bidaiariek irribarrez hasi ziren. Autobus-gidaria,

ispilua baliaturik, begira hasi zitzaigun. Hasieran irribarrea zena gero algara bihurtu zen, etengabeko algara. Batzuk txaloka ere hasi ziren. Ni guztiz lotsatuta nengoen. Jazarpena egiten zidan emakumeak, algarak eta txaloak gorabehera, bere aterki-dantzarekin jarraitzen zuen.

Etxe ondoko autobus-geralekuan jaitsi nintzen –ginen–. Non bizi nintzen jakin ez zezan, auzoan zehar ostera bat egitea erabaki nuen, kale-kantoiren batean behingoz gainetik kenduko nuelakoan. Jende guztia guri begira geratzen zen. Ordura arte ohartu gabe nengoen nolako memelo-aurpegia zeukan nire auzoko jendeak. “Ez al dute sekula ikusi pertsona bat beste baten atzetik doala aterki batekin buruan jotzen dion bitartean?”, pentsatu nuen. Bai, argi zegoen ez zutela sekula halakorik ikusi. Beste espaloitik, lauzpabost mutil hasi zitzaizkigun iseka egiten. Jendea tabernetatik ateratzen hasi zen ikuskizunaz gozatzeko. Ezin nuen gehiago. “Emakume hau akabatu beharra zaukat”, txantxetarako gogoia agortua zitzaidan aspalditik.

Plan bat neukan: etxera iritsita, atearekin sudurra harrapatuko nion. Ezin izan nuen. Bera nik uste baino azkarrago ibili zen eta nirekin batera sartu zen etxean. Ez nuen astirik izan atzean uzteko. Indarririk ere ez nuen egin haren aurka. Amore eman nuen. Onartu egin nuen neure patua.

Harrezkero nirekin bizi da. Nire izatearen zati bat da ia. Egun osoa ematen du aterkiarekin ni buruan jotzen. Nik dakidala, ez du sekula lo egiten; jaten ere ez dut inoiz ikusi. Ni jotzea beste eginkizunik ez du. Leku guzti-guztietara doa nirekin; komunera ere bai. Hasieran, kolpeek ez zidaten lorik hartzen uzten. Gaur egun, ordea, kolpetxo horiek gabe ezin izango nuke lorik hartu, nik uste.

Baina bion arteko harremanak ez dira beti onak izan. Askotan barkamena eskatu diot txikitan egiten nizkion barrabaskeriengatik eta “Errinozero anderea” deitzeagatik. Baina dena alferrik da: Judithek ez du ezertxo ere esaten eta berean jarraitzen du, bere aterki-dantza azkengabearekin. Askotan esan diot bakean uzteko. Behar baino gehiagotan hitz egin diot gaizki. Egun batean, neure onetik aterata, aterkikada eder bat eman nion buruan, nik ere aterkia dudala ikus zezan. Batere

gaitzespen-keinurik egin gabe jaso zuen, boxeolari onen antzera, ondo baino hobeto zekielako ematen duenari ere jasotzea tokatzen zaiola zenbaitetan. Egiten duen horretan sinesten du, argi dago. Horrek ematen dio, nik uste, une oro erakusten duen segurtasuna, patxada eta gorrotorik eza.

Betebehar fisiologikorik ez duen arren, ohartzen naiz ezen, gaizki hitz egiten diodanean, min hartzen duela. Ahula da, hilkorra. Tiro batekin gaineratik kenduko nuke betiko; badakit. Ez dakit, ordea, tiroak Judith ala ni akabatzeko izan beharko lukeen. Orobat ez dakit biok hil eta gero ni aterkiarekin buruan jotzen jarraituko ote duen. Baina, tira, alferrik da horretaz pentsatzea: ez nintzateke ausartuko ez Judith ez neure burua hiltzen.

Aspaldi honetan ohartu naiz ezin naizela bizi haren kolpetxoetatik urrun. Egun hauetan, susmo txar bat hartu dut, lasai bizitzen uzten ez didan susmoa. Larritasun berri hori barrena jaten ari zait: agian, gehien behar dudanean, Judithek beste norbait ezagutu eta alde egingo du nire ondotik. Agur egingo diet betiko haren aterkikada gozoei, eta agur egingo diot betiko, halaber, ondo lo egiteari.

1. SARIA

Beñat Alkain Epelde

IRUDIMENAREN ARAZOA

Nire izena Beñat da, ia zortzi urte ditut eta Hondarribiko alde zaharrean bizi naiz. Oso despistatua naizela errepikatu didate ezagutzen ditudan pertsona guztiek. Kontzentrazio arazo handiak ditudala esan diete eduki ditudan irakasle guztiek nire gurasoei. Baina badakit berez ez naizela horrelakoa. Nire ustez, ez dute arrazoirik. Neure burua ez dut despistatutzat edo antzeko zerbaitentzat hartzen. Gauza da nire buruan imajina ditzakedan ideia, asmo, mundu, kontestu eta pertsonaiak erreallitatea baino askoz interesgarriagoak iruditzen zaizkidala. Behin eta berri errepikatu diet hau bai amari eta bai aitari, baina ez didate sekula kasu handirik egin honetan. Beraien seme despistatua izaten jarraituko dut nik.

Ez dut ulertzen nola egiten duten nire gelako lagunek. Egunero, ordu berean jaiki, eskola bererako bide bera hartu, klase eta irakasle beren buruarekin jolasten. Probatu beharko zenukete: goizeko alarmaren hitz berak entzun... Ezin dut hori jasan, eta horregatik hasi nintzen neure doinua egunero aldatzen dela imajina dezakezue, ikastolarako bidean, zuhaitzek “Egun on!” eta txoriek “Ondo pasa!” esaten dizutela. Behin eskolara iritsita, andereñoa pailazoz jantzita dagoela eta arbelean idazten dituen letrak eta zenbakiak elkarrekin dantzaz ariz irudika ditzakezu. Horrela, gutxienez, ez zara aspertuko! Ez dakit zergatik den hain garrantzitsua helduentzat beraien asperkizuna guri itsastea...

gurasoei eta irakasleei ez zitzaien gustatzen; horregatik jasotzen nituen pare bat haserrealdi, bai eskolan eta bai etxean. Hala ere, pentsamendu hauek ere azkenean aspergarriak egiten hasi zitzaizkidan. Ez zitzaidan mozturro gehiago bururatzen irakaslearentzat, eta letrak eta zenbakiak

Horrela bizirik irauten nituen aste tarteak. Nahiz eta modu polita iruditu, bikoteak errepikatzen hasiak ziren jada. Honek irtenbide erraz bat zuen: gauza interesgarriagoak irudikatzea.

Hurrengo goizean, etxeko atletik atera bezain laster, estralurtar bat imajinatu nuen nire ondoan. "Eko" jarri nion izena, nire txakurrarenean oinarritua. Berarekin blagan hasi nintzen, eta hainbat gauza esan zituen.

Hainbat urtetan zehar, Lurreko bizitza ikertzen ibilia zela esan zuen. Gure planetako eraikinek, landareek, lurrak eta itsasoak bere planeta-koekin antz handia dutela esan zuen. Baita hizkuntzak ere, horrela ikasi baitzuen Ekok euskaraz. Baina bazegoen gauza bat, ez zuena inondik inora ulertu: gizartea eta honen sorkuntzak.

Ekoren planetan ez dago dirurik, ez dago neguko gau hotzak kalean pasa behar dituen inor, ez dago agintaririk, ez dago besteengandik probetxurik atera nahi duen inor. Bertako biztanleak irribarre batekin joaten ziren alde batetik bestera, eta ume guztiek jolasean pasatzen zituzten egunak.

Oso atsegina zirudien nire estralurtarraren munduak. Gure antzekoa zen, baina inongo arazorik gabekoa. Izugarri gustatuko litzaidake bere planetara oportetara joatea. Bukatu zuen bezain laster, nire mundua ahalik eta xehetasun handienarekin azaltzen hasi nintzaion. Zenbat eta gehiago hitz egiten nuen, geroz eta galdera gehiago etortzen zitzaizkidan burura. Hala ere, niretzat ez zen hain txarra gizartea.

Lur jota geratu zen. Astakeria hutsa iruditu zitzaion kontatu nion guztia, benetan beldurgarria. Izan ere, asko haserretu zen gizartearen antolamenduarekin. Baina, bereziki, helduek umeak tratatzeko moduarekin. Umeak jolasteko eta ondo pasatzeko eginak zeudela esan zuen, ez eskola batean giltzapetuta egoteko.

Orduan, errealitate hartatik ihes egiteko erabiltzen nituen metodoak kontatu nizkion, une hartan berarekin hitz egiten ari izanaren zergatia barne.

Eko guztiz ados zegoen nire ideiekin; izan ere, berak gauza bera egingo zuela esan zuen. Hala ere, ez zuen aditu zergatik gustatzen zitzaidan gure munduaren antolaketa.

Ez dakit zenbat denbora pasa genuen hizketan, baina badirudi denbora asko ibili ginela eztabaidan.

Udaltzain bat etorri zen, eta garrasika hasi zitzaidan. Ez nuen ondo ulertzen zergatik. Nik honakoa esan nion:

- Barkatu, baina Ekorekin hitz egiten ari naiz, ez molestatu.

Udaltzaina zur eta lur geratu zen. Besotik heldu ninduen eta bere kotxean sartzera behartu. Gurasoak oso kezkatuta nituela eta etxera eramango ninduela esan zidan. Baina, berriz, ez nuen ondo ulertu zergatik egon beharra zuen hain urduri amak.

Kotxean nengoela, gose eta logale izugarria nuela konturatu nintzen. Ez dakit, estralurtarrekin hitz egitea nekagarria dirudi. Gizon hau estresatua zegoen, baina, zorionez, Eko nirekin etorri zen mementoa pixka bat argitzeko.

- Zer iruditzen zaizu hau, Eko? Ez al da benetan lotsagarria? Gezurra dirudi polizia batek gu etxera eraman beharra.

Eko guztiz ados zegoen. Udaltzainak, aldiz, gero eta urduriago zirudien, begi ireki-irekiekin begiratzen zigun ispilutxotik. Une hartan nire estralurtarrak jendeak nola begiratzen zidan ikusi zuen, bakarrik gauzak imajinatzeagatik. Etxera iritsi arte, udaltzainaren jarreraz egon ginen Eko eta biok hizketan.

Behin etxera iritsita, nire gurasoak agurtu nituen, beti bezala, baina biek izugarrizko besarkada eman zidaten. Batek daki horren arrazoia. Zuzenean joan nintzen sukaldera nire gosea asetzerara, udaltzaina aita eta amarekin hitz egiten zegoen bitartean. Bukatu bezain laster, ohera joan nintzen. Zoritxarrez, nire ohea txikia zen, eta ez nuen Ekorentzat tokirik.

Bere planetan oherik ez zutela esan zuen, eta lurrean lo egiteko prest zegoela baieztatu zuen. Nire gelarako bidean geundela, nire gurasoek gelditu gintuzten.

- Beñat, autoan egingo duzu lo, ospitalera joan beharra dugu.

Ez zitzaidan bururatu zergatia galdetzea, ezagun bat bisitatzera joango ginela suposatu nuen. Eko gurekin etorri zitekeen galdetu nion, eta baiezkoa eman zidan, beldurtu aurpegiarekin. Bidean Ekorekin hitz egiten jarraitu nuen, ea gurasoak udaltzaina bezala arituko ziren.

Memento batean ama negarrez hasi zen. Eta Eko eta biok isildu egin ginen. Zer gertatzen zitzaion galdetuta, honakoa erantzun zidan:

- Ia hiru egun egon zara etxetik kanpo galduta, inork ez zekien zein txokotan zinen. Zorionez, udaltzainak aurkitu zaitu gaur, baina kotxean etxera ekartzen ari zitzaizunean, norbaitekin hitz egiten ari zinela sumatu du. Orduan konturatu da ez zenuela ihes egin, baizik eta denbora honetan guztian, zure laguntxo horrekin hitz egiten egon zarela. Orain mediku berezi batengana goaz, ea zer esaten duen zure laguntxo horri buruz.

Hori esandakoan, gelditu gabe hasi zen negarrez. Eta albora begiratu nuenean Ekorekin eztabaidatzeko, desagertu egin zela konturatu nintzen.

Azkenean, ospitalera iritsi eta “Psikologia” jartzen zuen gela batean sartu ginen. Berehala sartu nintzen “mediku berezi” horren bulegoan. Eta azkeneko hiru egun horietan gertatu zena azaltzeko eskatu zidan. Denbora luzez egon ginen hitz egiten, eta medikua gero eta harrituago zegoen.

Behin elkarrizketa hau bukatuta, bulegotik atera ginen medikua eta biok. Gurasoei nik esan niona azaltzen hasi zitzaien. Harro geratu nintzen nire istorioarekin. Ezin zuten gaizki hartu, oso ulergarria baitzen.

Hala ere, gauzak ez zirudien ondo zihoanik, ama gero eta tristeago zegoen, alaiago egon beharrean. Aurpegian nabaritzen zitzaion. Gurasoak lur jota utzi eta gero, medikua hurbildu zitzaidan. Esan zizkidan

kontuen erdiak ez nituen ulertu, baina laburtuta, psikologikoki gaixo nengoela esan zidan. Nahasmen psikotiko delirante larria edo horrelako zerbait. Izen itsusi bat, parte onekoa ez behintzat.

Orduan, albo batera begiratu eta Eko agertu zen berriz, eta hau esan zidan:

- Larria da Lurreko gizartearen egoera. Denbora azkarrago pasatzeko eta asperkizunak gu barrutik ez kontsumitzeko geure buruarekin jolas-tea ero izatea bada, ez dut ulertzen zergatik nahi duten gizaki guztiek “normalak” izaten jarraitu. Ez zaitez beldurtu, ni beti egongo naiz zure alboan eta niretzat beti izango zara Beñat.

2. SARIA

Laida Miranda Sarasola

IPUIN BAT, OPARI BAT

Burdinezko hesia ireki zen. Hainbeste gorrotatzen nuen une hori! Nahiz eta negar egin eta nire indar guztiekin protestatu gurutzatzera behartu ninduten. Begiratu nuen itxaroten ari zitzaidan eraikinerantz eta nire larritasuna hasi zen. Minutu batzuk geroago nire amak muxu bat eman zidan eta joan zen. Amaaaa!!!

Negar egiten gelditu gabe eskua sartu nuen nire berokiko sakelan eta txupetea (nire lagunik onena) heldu nuen indarrarekin. Une bat izan zen soilik segituan nire izena entzun nuelako eta askatu behar izan nuen. Eta horrela gelara sartu nintzen! Hiru urteekin, amarik gabe, txupeterik gabe eta begiak malkoz beterik. Nire hirugarren urtea zen han baina lehen egunean bezala sentitzen nintzen.

Oraindik ez dut irakasleei buruz hitz egin. Jatorrak ziren baina ni ez nintzen haiengan fidatzen. Uste dut bide desberdinak bilatu zituztela niregana hurbiltzeko baina beti horma batekin topatzen ziren eta nire ikaskideek, bueno, builaka hitz egin ohi zuten. Auskalo zergatik! Eta niri ez zitzaidan zarata gustatzen.

Goiz hartan gelako atea ireki zen eta andereño ezezagun bat sartu zen. Ilehoria zen, begi urdinekin. Aurpegian irribarre eder bat zekarren

eta ipuin bat eskuan. Bere izena Mari Carmen zen. Fularra kendu zuen, ipuina ireki zuen eta irakurtzen hasi zen. Segituan gela baso bihurtu zen. Txorien kantua entzun ahal izan genuen, erreka soina eta Txanogorritxori otsoak jan nahi zuela ohartu genion. Minutu zoragarriak izan ziren. Bukatu zuenean, irribarre egin nuen. Andereño hau desberdina zen, berezia ematen zuen!

Hortik aurrera askotan bisitatu gintuen. Bere magiarekin leku liluragarriak aurkitu genituen (herensuge-haitzuloak, inora joaten ez ziren bideak,...) eta pertsonaia asko ezagutu genituen (batzuk dibertigarriak, beste batzuk itsusiak,...).

Ipuin bakoitza opari bat izan zen guretzat.

Haurrek forma desberdinean bere maitasuna bilatzen genuen eta berak inortaz ahaztu gabe banatzen zuen. Zer pazientzia zuen!

Bateri txantxa bat egiten zion, beste batekin memento bat hitz egiten zuen,...

Ni, oraindik ez dizuet ezer esan, baina oso lotsatia nintzen. Nik arreta handiz ikusten eta entzuten nion. Laster konturatu nintzen gure begiradak gurutzatzen zirenean, irribarre bat oparitzen zidala. Zer poza!

Benetan maitatzen hasi nintzen eta hilabete batzuetan niretzat oso pertsona garrantzitsua bihurtu zen. Beraz fidatzen nintzen niregana hurbiltzeko bidea aurkitu zuelako: pixkanaka, pixkanaka. Ez da harritzekoa oso azkarra zen eta!

Horrela ekaina iritsi zen. Eskolako azken egunean, joan baino lehen, ikusi nuen eta berarengana hurbildu nintzen. Musu bat ematen ari zidanean, besarkatu eta eskerrik asko esan nion. Gero ziztu bizian joan nintzen.

Uda azkarra igaro zen eta kurtso berri bat hasi zen. Eta gero beste bat, eta beste bat... Bere loreetako mantal horia korridoreetatik ikusten nuen bakoitzean nire begirada argitzen zen. Batzuetan berarekin hitz egin nuen. Beti asko maite nuela esaten saiatu nintzen baina inoiz ez nintzen ausartu.

Urte honetan Mari Carmen gaixotu egin zen. Nire tristura eta kezka guztiak alde batera utzi nituen eta gutun bat idatzi nion. Orain bai! Nire sentimendu guztiak paperera hegan egin zuten eta asko maite nuela esan ahal izan nion. Papera Anutxiri (lagun bat) eman nion egunero Karmelerekin (beste lagun bat) Mari Carmen bisitatzera joaten zela nekielako. Batzuetan une hori imajinatzen dut: hiru neskek (Mari Carmen Anutxi eta Karmele) batera nire gutuna irakurtzen. Segur aski gustura egon zirela!

Bi gutun gehiago egon ziren eta gero... denbora bukatu zen. Gau batean Mari Carmenek lo hartu zuen eta jada ez zen esnatu. Egun horretan, hamar urterekin, helduek bezala negar egiten ikasi nuen: bakarrik eta isiltasunean. Sentimendu asko nahasi ziren nire buruan: tristura, amorrua, haserrea,... Hiletara joan nintzen agur esateko baina nahasiago irten nintzen.

Egunak zenbatzen hasi nintzen, ondoren asteak eta jada bost hilabete igaro dira.

Gaur arratsaldean gauza zoragarri bat gertatu zait: ohean etzan naiz, bere argazkia hartu dut eta hari agur esateko zer egin behar dudan galdetu diot. Ez dakit nola egin eta badakizue, bat batean dena ulertu dut. Ezin dut hari agur esan ez dudalako egin nahi, nirekin geratuko da hark nahi duen bitartean. Eskerrik asko Mari Carmen!

Hurrengo egunean...

Burdin hesia irekita dago. Barrura sartzen naiz eta eraikinerantz begirada bat botatzen dut. Nire eskola polita da. Gustatzen zait!

2018





SATARKA / A MAILA

2. SARIA

Irati Goikoetxea Asurabarrena

ZER EGINGO DUGU EGURREZKO SUDURRAREKIN?

*Hiltzen naizenean,
ni ere gezur bat izango naiz;
hauts eta ke,
etorkizuneko bizkarroi
ingurukoen memorietan.
Hiltzen naizenean,
itzalaren haragia izango naiz: gezur bat.*

*Eta oihu egingo dut ni ere Pinotxo izan nintzela,
ume eta egurrezko,
Pinotxo izan nintzela,
lotsaz eta lotsagabe,
eta ez dakidala egurrezko sudurrarekin zer egin,
ea zer egiten den egurrezko sudurrarekin hil eta gero.*

*Ni ere gezur bat izango naiz hiltzen naizenean,
zulo bat gehiago.
Egurrezko sudur batekin.*

1. GEZURRA: itsasoa

Edalontzi batean kabitzen da itsasoa
handi eta lehor
eta lurtar.

Zilborrik gabeko sabel bat da,
arrain gorrien umetoki,
eta egarri urdinak asetzen ditu ostertzeko barran.

Itsasoa beheko munduetara erortzen denean,
kontinente berriak altxatzen dira haserre,
izotz eta gotor,
eta tsunami erraldoiek esaten dute:
gu ez gaude isiltzeko.

Itsasoa
gatzik behar ez duen zauri bat da,
zorne artean
itotzen ari dena.

2. GEZURRA: adiskidetasuna

Infinituaren ekosisteman betikotzen dugun zuloa,
zaina zainaren kontra odolustutako erretena,
gaindosi euforikoa,
izerdi hotz urtua; su eta mendi.

Bakardadeak oin-arrasto jurasikoak ditu,
tenporalak,
espazioan inondik ez datozenak.
Bideko isiltasunak biltzen ditu bakardadeak
eta dinosauro bihurtu zaigun itzalari lagun deitzen diogu.

Zaina zainaren kontra su artifizialak pizten ditugu
eskuak erre bitartean txipli, txapla, pum.

Egurrezko etxoletan ez dago, ordea, sua egiterik.
Nola berotu izotzak uda ostean?
Inbidia da alkohol gradu gehien dituen pozoia.
Eta beti gabiltza mozkortuta.

3. GEZURRA: zoriona

Sorgin-orratza sare artean kateatu da,
dantza dirudi zalapartak
baina hori baino ez da: zalaparta.

Ume batek etorri beharko luke orain,
korrika eta korrika,
errekarekin salto jolasean korrika eta korrika,
eta egin beharko lioke haizeari algara
eta arratsalde freskoari putz.

Baina umea etxean geratu da
paper zurian sorgin-orratzak nola marrazten diren ikasten.

Eguzkia baino ez dago etxeko leihoan diz eta diz.

Sorgin-orratza ez da ohartzen
bere orratz propioekin
bere arnas propioa itotzen ari den
sarea
kateatzen ari dela.

4. GEZURRA: ispilua

Eskua luzatu eta atzean zer dagoen
(tira, aurrean zer dagoen)
ukitzen uzten ez badu,
ze sinesgarritasun du bere fideltasunak?

5. GEZURRA: beldurra

Tripetako krokodiloak ez du hortzik ahoan,
hats lodia
eta lehortzen ez diren puxiken pazientzia.

Pauso mutilatuek bidea eteten dutenean,
haizeak bizkarra ematen dio bafadari
eta istant horretan sabela bihotzean kateatzen da.

Bost segundo,
itomen bat
eta begiak airean, ia-ia hegan.

Zertarako askatu adrenalina gehiago
izerdiak nora jo behar duen ez badaki?
Gaur afaritarako azazkal erreak
eta listua barra-barra.

Tripetako krokodiloak lurrikarak ditu ahoan,
hotz-ikara epelak.
Besterik ez.

6. GEZURRA: loa

Joan, joan eta harago joan
eta galdu eta erori eta pixka bat hil.

Non esan ezin daitekeen tokian putzu bat dago
grabitaterik gabeko airez betea.
Gaizto gehienetan,
ametsak dianaren erdian zulatzen ditu norbaitek
eta plast!
Eta ezti inoiz gutxitan
irribarreak izara artean bustitzen dira
galdutako buru-marrazkien lehortea ureztatzeko.

REM eta pausa,
harrapatu eta tira;
insomnioak azeri-buztana du.

Gauean bi bekainen arteko eremuan bildutako ardi guztiak
non egoten dira hurrengo goizean?

7. GEZURRA: sexua

Pariseko zikoinen beharra izatea ere
orgasmo bat justifikatzeko!

8. GEZURRA: Erromako zubia

Zaldiz edo astoz,
Erroma urruti dago
begirada faltsuen oasian bila aritzeko.

Eta eguzkiak euriari esan zion...

(edo alderantziz izan ote zen?)

... jo lurra eta jango zaitut.

Erroma eguzkiaren sabelean dagoen Venezia bat da,
zazpi itsasoak kolore bihurtu dituen mihisea.

Nora doan ez dakien zubiak

nondik datorren galdetzen dio bere (gal)bideari.

9. GEZURRA: denbora

Hondar alearen metafora asmatu zuenari

ahaztu egin zitzaion esatea

hondartza bakartietara ez dela erlojurik iristen.

Horregatik,

eternitatea guraizez moztu nahi dutenek

argazkiak ateratzen dizkiete erauzitako egutegiko orriei;

badaezpada ere,

flotagailu modukoak dira urrutiko itsasoetan.

Betikotasuna

oso-oso-oso-oso txikia da

orduak segundoka zenbatzen ditugun garaiotan.

Oso txikia. Eta arriskutsua.

Betikotasuna trapezista da iratzargailuaren orratzetan.

10. GEZURRA: egia

Umetan oliben hezurak irensten nituen,
entzuna niolako norbaiti
(pena, ez dut gogoan nori)
eztarrian trabatutako gezurrei barrura bultza egiteko modu bakarra
zela hura.

Urradura goiztiar haien ondorio dira
gaurko esan nahi eta ezin asko,
indarrik gabeko listu borrokak,
eta saihets arteko enbatak
ezpainak okertzen zaizkidanean barrura eta barrura.

Borobila behar zuen,
borobil-borobila.
Eta nik beti imajinatu izan dut hemen koska eta han hortz.

Gurasoak antxoadun olibak erosten hasi zirenean
olibak jateari utzi nion.
Eta gezurrak esateari.

*Hiltzen naizenean,
ni ere gezur bat izango naiz,
nor nintzen ahaztu egingo baitzaie
gogoratu nahi izango nautenei.*



SATARKA / A MAILA / Hondarribia

HONDARRIBIA SARIA

Urko Sagartzazu Flores

EGUNSENTIKO ARGIA BESARKATU NAHIAN

Basoan haizeak mugitutako koloreetan,
itsasoko zero islatuan,
etxe bazterreko behe lainoan,
ikusten zaitut eguneko segundo guztietan.

Eguzkiak sortutako gunee ilun kolore gabeetan,
hostoz betetako udazken bideetan,
ilunabarreko azken argi izpian,
agertzen zara nire begi nekatuen atzean.

Harresi zaharreko harri busti usainean,
eraikinen aurrealde egur bilbaduran,
erromanikoko ateetako arkiboltetan,
aurkitzen zaitut argiak uzten didan bitartean.

Kutxa huts metafisiko baten barruan,
lau gizakiak batera doazenean,
Cromlech pirenaiko txikian,
argiak sortutako espazioan.

Egunsentiko argia besarkatu nahian...

Idea berritzaile bat proposatzean,
zure ezpainen mugimenduekin batera,
etorkizunaren bidean,
irudimenaren munduan.

Margo baten kolore guztietan,
horrekin mundua aldatzeko saiakeran,
pintzelkadak koadro iraultzailean,
Malévich-en karratu beltzean.

Musikak hitz egiten duenean,
“Hitaz-oroit”-zean,
zure bertsoak entzutean,
benetan bihozbera.

“Lili bat” bertsoa irakurtzean,
poeta berberaren olerkiak abestietan,
edertasuna gerturatu egiten da,
iritsiko ote naiz hura hartzera?

Egunsentiko argia besarkatu nahian...

Argiak biluztu egiten du
laztandu egiten zaitudanean,
itsasoarekin batzen den
Peñaren Imanolena eraikinean.

Ez dut ulertzen baina ulertu nahi dut,
oroitzapenen mundura bidaiatu,
unibertsoaren zirrikitu guztiak ezagutu,
eta azkenean izengabeetan betirako galdu.

Ezezaguna ezagutuko nuke
Isiltasunean oihukatu
Hutsaren eremuaz gozatu
Edertasuna beti bilatzen jarraitu

Hustutako gorputzak
ariman bilakatu dira,
non galdu ote da gizakia?
Laugarrenak beste hirurak arma tiro pum?

Egunsentiko argia besarkatu nahian...

Utopien bide konplexuetan,
edertasunaren bila aritzen naizenean,
ihes egiten du urrutirantz,
eta mundu berri bat sortzen da nire ametsetan.

Bakardadea laguna bihurtzen denean,
non gelditzen da amestutako mundua?

Orain abesti ilun bat barruan daramat,
Noizbait amaituko dira munduko gatazkak?

Ideologia hiltzen ari den bitartean,
komunikazio-inkomunikazioaren XXI. Mende honetan,
edertasuna izango da geldituko zaigun ongi bakarra
horregatik ere borrokatu beharko gara, lastima...

Egunsentiko argia besarkatu nahian
bizi naiz orain eta beti
noizbait hilko naiz
eta zu
eta zu
ere bai.



BORDARI / A MAILA

1. SARIA

Karmele Mitxelena Etxebeste

EURI BELTZA

Gaua beti da beltza, baina batzuetan besteetan baino beltzagoa. Samirren begiek aspaldi galdu zuten iluntasunean izarrak ikusteko gaitasuna, izarrak zerutik jausten hasi zirenean gutxi gorabehera. Geroztik beltzaren gainean suzko euri tanta bat antzematen duen bakoitzean, begiak indarrez itxi, eta eskuekin belarriak estaltzen ditu; eta orduan bai dela guztia beltza.

Ez dago beltz iluna baino beltzagarik. Gizon beltzak imajinatzen ditu, gizon beltzak hegazkin beltzagoetan, aurpegi beltzekin, uniforme beltzekin, odol beltzarekin; bihotza ere, baldin badute, beltza ziur. Kolore berdineko zeruan kamuflatzen dira eguzkia lotaratu bezain laster. Esna geratzen diren lurtarrek burua gehiegi altxatu gabe begiratzen dute zerura erdi disimuluan, goitik zelatan dituzten begi beltzek haiei begira ez harrapatzeko. Halakoren batean zorioneko gutxi batzuk lortzen dute begiak itxi eta lo egitea. Gainontzeko guztiak begiak ixtea baino ez dute lortzen, tartean Samir.

Itxi beldurrez ixten baditu, nola deitu berriz begiak zabaltzeko unea iristean sentitzen duen dardarari, ikarari, izuari. Bertigoa sumatzen du azal azpian igerian, eta hotzikarak azal gainean hegan. Burrunbaren ostean betazalak jasotzea erraietaraino sartutako beldurrari izateko

arrazoia ematea da; hondamendia ikustea, gorpu zatiak, horma zatiak. Odola usaintzea da, hautsa arnastea. Eta okerreña da hori dela gerta dakioken onena, hildakoak ez baitu hondamendia ikusteko aukerarik. Hildakoak ez du sufritzen, ez du halako zortetik.

Ez zaio zero beltzaren jabe izatea baino ezer handiagorik bururazten. Hor goitik munduak txiki geratu behar duela iruditzen zaio, txiki eta hauskor, esku bakarrarekin marruskatzen den paper zatia bezain hauskor. Umea zela, unibertso haur gehientsuenen antzera, handitan astronauta izatearekin amesten zuen, espazio-jantzian sartu eta izar artean hegan egitearekin. Horiek umetako kontuak dira, ordea. Orain, hamar urte bete berritan, urrun ikusten du haurtzaroa. Orain ez du ametsik egiten, orain zerura begiratzera ausartzen ez den astronauta koldarra baino ez litzateke izango.

Gaua gero eta isilagoa da. Bidaia uste baino dezente gehiago ari da luzatzen. Nora ezak txalupa ez ezik bidaiarien begiak ere bere egin ditu, eta begi-niniak urdurituta dabilta nora begiratu ez dakitela. Gizon-emakumeei hizketarako gogoak joan zaizkie, eta olatuei eman diete hitza. Begiradek nahikoa esaten dute dagoeneko, eta ahoak hasperenei ihes egiten uzteko baino ez dira zabaltzen.

Txalupa biguna zakarregi kulunkatzen den arren, inuzenteenek lo hartu dute gurasoen besotan. Samirrek ere desio du aitaren altzoa, nola desio gainera. Betazalak erortzen zaizkio, etengabe ari da buruarekin kolpeka ezin lepoa zuzen mantendu. Begiak zabaltzen dituen aldiro, ordea, aitaren burua ikusten du bere izterretan pausatuta, eta oroitzen du gaur bera dela aita zaindu behar duena, eta ez alderantziz.

Eskuin eskuaz bizkar hotza igurzten dio esku hotzagoarekin beroa eman nahian, beste haurrak bezain inuzente bera ere. Ikusten duelako daki aita bere gainean botata dagoela, sentitu ez baitu asko sentitzen, ez eskuetan, ez izterretan, ez inon. Hotza hezurretaraino sartu zaio, batez ere aitaren dardarak estaltzeko berokia erantzi duenetik, eta aitaren bizkarrean eskua indarrez igurtzita, beroki zaharkitua are gehiago gastatzea baino ez du lortzen.

Ahaleginak egiten ditu ez mugitzeko, ez du aita esnatu nahi, baina Samirri ere noizbehinka nahigabeko hotzikara batek ihes egiten dio. Aita-

rengana makurtzen da haizearengandik ihesi, txiki-txiki egin, eta tarte batez bada ere mundutik desagertzeko asmoz. Tamalez, joan orduko itzultzen da errealitatera, txaluparen kontra harrotutako olaturen bategerria bustitzearekin batera.

Zeruak aurpegira barre egiten diela sentitzen du. Apal, koldar, lotsati, burua gehiegi altxatu gabe, urrunean ilargi erdi hutsa ikus dezake, garai zoriontsuagoetan erdi betea izandakoa. Gailentzen ari zaizkion lainoen artean gero eta lausoagoa bada ere, ez du bere forma iraingarria galtzen, eta gupidagabe jarraitzen du ikuskizunaz gozatzen barreraren bestaldetik.

Egarri da. Eztarriak min ematen dio, baina ez da kantinplorari beste trago bat ematera ausartzen. Aurreko tragoan ura neurritz edateko gomendatu dio gizon bibotedunak. Zalantza gehiegi egin gabe aitaren aholkuaren faltan gizonarena onartzea erabaki du, etxean ezezagunekin ez fidatzeko errepikatzen bazioten ere.

Nahi izatea ez da beti ahal izatea, eta ezin izan dio ahosabaia bustitze-ko tentazioari eutsi. Disimuluan inor zelatan ez duela frogatu, eta urari trago azkarra lapurtu dio. Kantinplorari tapa jarri, eta badaezpada egin berri duena justifikatzeko arrazoiak zerrendatzen hasi da, inork bere arduragabekeria aurpegiratuta ere. Kontzientzia izan da, ordea, kargu hartu dion bakarra. Aitaren gaixotasuna aitzakia, aitari dagokion uraren erdia gordetzea ura alferrik galtzea litzatekeela errepikatu du bere baitan konbentzimendu osoz hasieran, eta lotsa puntu batekin gero. Azken asteetan aitak irensten duen guztia botatzen duela gogoratu du, eta berriro gogoratu, eta berriro. Baina argudio merke horiek ez dute konbentzitu, ez bere kontzientzia, ez bere burua, ez inor, eta berekoi sentitu da.

Iraganean sarri egin behar izaten zituen halako zerrenda luzeak etxerako bidea hartzen zuenean. Lagunak agurtu orduko gurasoen aurrean bere burua defendatzeko arrazoi bila hasten zen. Baloia galdu zuela, belaunak urratu zituela edo jertsea ahaztu zuela, beti bazen etxeratze-ko ordua gehiegi luzatzeko arrazoiren bat. Amaren umorearen arabera errieta nolakoa izan zitekeen irudikatzen saiatzen zen behin eta berriro, eta okurritzen zitzaizkion erantzun posible guztiak entseatzen zituen. Sekula ez zen prestatu bezala irteten.

Errukiz begiratzen dio parean duen emakumeari. Denborak ez hain beste, baina nekeak eta sufrimenduak ederki hondatu diote gartzetasuna gajoari. Trukean masailetarainoko betzuloak utzi dizkiote, paisaia bezain ilunak eta sakonak. Begiak infinituan izoztuta, arropa geruzekin ondo loditutako haurtxoa kulunkatzen du besoetan etengabe sehaska kanta bera xuxurlatuz. Oraindik ez da inor ausartu bere haurra hilda dagoela esatera. Beharbada berak ere ez du halako egiarik entzun nahi. Beharbada lo egitea hiltzea baino errazagoa da, eta hotzak zartatutako ezpainekin iluntasunari doinua jartzen jarraitzen du.

Begirada hura ez, baina betzulo haiek Samirren amarenak izan zitezkeen. Beti gainetik kendu ezinda ibiltzen zen, eta hil zen egunean ere jantzita zeramatzan. Baina hegazkin beltzek supermerkatua eraitsi, eta hondakinen artean bere gorpua agertu zenean, betzolorik gabe agertu zen. Hautsak kolorea jan zion, arropak, azala, ilea, eta betzuloekin batera sufrimendua desagertu zitzaion. Amaren alboan zetzan arreba txikiari, aldiz, begietan mina irakurtzen omen zitzaion aurkitu zuteanean. Adreilu eta hormigoi desitxuratuek arnasa estutzen zioten, eta odoleztatutako esku urduritu asko pisu hura arintzen ahalegindu ziren arren, berak nahiago izan zion sufritzeari utzi. Amazuloa izaki, eta heriotzaraino jarraitu zion, nonbait bazekien amarik gabeko bizitza ez zela heriotza baino hobea izango.

Ustekabean tximista batek argazkia atera dio zeruari. Samirrek automatikoki begiak itxi eta belarriak estali ditu eztanda zain. Burrunba luzea amaitu arte ez da begiak zabaltzera ausartu. Ezker betazala jaso du lehenengo, eta trumoiak beldurrak eta oroitzapenak soilik astindu dituela frogatutakoan eskuinekoa.

Haizea itsasoaren antzera harrotzen ari da. Nor baino nor hasi dira indarrak neurtzen, nork itsasontzia gehiago astindu. Kulunka basati horren erdian, Samirrek lehen euri tantak sumatu ditu lepotik barrena, inori baimenik eskatu gabe jertsearen eta azalaren arteko zirrikietatik zelatan. Jertseari tira egin, eta bizkarraren kontra harrapatu du euria. Ama onek sorbalda gaineko zapiak kendu, eta presaka haurrei ipini dizkiete buruan, euriaren okerrena busti egiten duela izango balitz bezala.

Samir pentsakor geratu da aitari begira, ez dirudi euriak bere loa galaraziko duenik. Bizkarra erabat estaltzen ez dion berokia tenkatzen saiatu da, handik tira, eta hemendik ekarri, estali gabeko eremuak estaliz, eta estalitakoak desestaliz. Zalantza egin du seme on batek zapiaren faltan jertsea erantzi behar ote lukeen aita gaixoaren bizkar hotza babesteko. Baina belarriak erretzen dizkion suzko haizeak berehala erantzun dio ezetz, ahazteko, ez dela ideia ona; eta berekoi sentitu da beste behin.

Euria nahi baino agudoago azkartzen ari da. Samir egarri da oraindik, eta lotsarik gabe dastatu ditu banan-banan ezpain ertzetara inguratu zaizkion tantak. Begiak itxita zerura begiratu, eta aho zabalik gehiagoren esperoan geratu da. Gainontzekoek ere begiak itxita begiratu dute gora, eta batzuk euri tantak ez, batzuk errezoak hartu dituzte ezpainetan. Jakingo balute eman nahi ez duenari eskatzea alfer-alferrik eskatzea dela, txorakeriak utzi, eta ez lukete zeruari trago bat lapurtzeko aukera galduko.

Gero eta pisutsuago sumatzen ditu ilea, bizkarra eta begiak. Haizeak ere ez dio bakerik ematen, eta odola izoztuko zaiola sentitzen du. Gorputza etengabeko dar-dar batean dantzan hasi zaio nola gelditu jakin gabe. Arnasa hartzea ere nekagarriegia da. Aurpegian behera jausten zaizkion euri tantak baliatu, eta begiak husteko aprobe txatu du, disimuluan negar egiteko; eta arnasa hartzea oraindik zailagoa bihurtu du.

Etsipena masailetan behera urtu du ezpainetara iritsitakoan berriz ere bere egiteko. Inozoa behar du izan. Kontrako eztarritik joateko beldurrik gabe, mina dastatzen jarraitu du ur garbia bailitzan, bere barrua itozteko arriskuaz ohartu gabe. Negar egiteko gogoia jada ez da hain isila, hain disimulatua, eta bere begiak hasi dira euriarekin nor baino nor lehian.

Gogotik hasi du euria. Ur zakarretan errebotatzen duten tanta lodiek olatuak handitu dituzte. Itsasoak gainezka egingo duela dirudi. Txalupan ere gero eta ur gehiago pilatzen ari da bidaiariaren izurako. Hotzak izoztutako gorputzei uraren ezinegona itsatsi zaie orain, eta mugitzeko lekurik gabe mugitzeko ahaleginak egiten hasi dira elkarri bultzaka. Urak laster irentsiko ditu, lehenago elkar jaten ez badute behintzat.

Samirrek begiak itxi ditu, nahiago du bere barruko iluntasuna, eta ez gauarena. Zeruak, ordea, ez du etsi nahi, eta tantaka tantaka burua zulatu nahi diola dirudi gauari bertan sartzeko zirrikituak zabaldu asmoz. Mehatxatuta sentitu da, eta betazeletan indar eginez begi itxiak gehiago ixten saiatu da. Madarikatu ere madarikatu du, ezpainak zabaldu gabe badaezpada, gauari bere barruan sartzeko ustekabeko zirrikiturik ez uzteko.

Gurasoek irakatsi ez zioten moduan jardun da maldizioka euri beltzari, euri ilunari, euri gaiztoari. Ama ez litzateke harro egongo, baina zeruaren koloreko euri horrek ez du besterik merezi. Egia esan, gustura hartuko luke amaren errieta bat bere ahotsa berriz entzute hutsagatik soilik, eta ikasitako maldiziorik maldizioenak errepatatzen jarraitu du errieta haiek gogoratuz.

Inor baino urdurituago dagoen gizon batek garrasika eskatu die lasitzeko gainontzeko bidaiariei. Batzuk isildu egin dira, beste batzuk marmarrera pasa dira, eta txikienek negarrez jarraitu dute; lasaitu ez da inor lasaitu. Ahotsa jaitsi gabe, txalupa barruko ura ateratzen has-teko agindu du, eta eskuekin ura harrapatu nahian hasi da. Gutxi batzuk kasu egin diote, baina besoa luzatzeko ere ez dago tokirik, eta urak errazegi egiten die ihes hatz artetik. Alferrik ari direla onartzeko adorerik gabe, bidaiari desesperatuek besoen abiadura azkartu dute, eta zero madarikatuak euriarena.

Kaosaren erdian ahots zakarragoko beste gizon bat oldartu da. Honek ura ateratzen hasi aurretik alferrikako pisua kendu behar dela agindu du. Bi gizonak erdi eztabaidan hasi dira noren arrazoiak ote arrazoiago, finean biak gauza bera esaten ari direla konturatu gabe. Bitartean txalupa gero eta beherago, eta olatuak gora, gora eta gorago, ia zero beltza bustitzeraino.

Bi gizonak ados jarri dira, edo ados daudela ohartu dira. Laguntza eskatu dute beharrezkoa ez den guztia itsasora botatzeko. Airean atera dira poltsak, arropak, panpinak... eta haiekin batera oroitzapenak. Bata bestearen atzetik hondoratu dira, ordura arte euren jabe izandakoen agurrik jaso gabe, heriotza oinetatik gertuegi sumatzen dute despedidetan denbora galtzen hasteko.

Ahots zakarreko gizona sehaska kanta xuxurlatzen jarraitzen duen emakumearengana hurbildu da. Kontu handiz manta artean ondo bildutako gorpu txikia kendu dio besoetatik, eta bi aldiz pentsatu gabe uretan murgildu du. Emakumeak ez dio ezer esan, kantari jarraitu du begiak infinitutik urrundu gabe. Beste inor ere ez da gizonari ezer esatera ausartu. Heriotzarik txikienak ere ez du lekurik bizirik irauteko ahaleginetan ari den txalupa beteegiaren barruan.

Samirrek hotza eta negar egiteko gogoak bakarrik sentitzen ditu. Bi gizonak bere ondora hurbildu dira: batek ez dio begiratu, eta besteak barkamena eskatu dio begiekin. Bien artean aita besapetik hartuta uretara bultza dute. Seme amorratuak ezin izan du ezer egin eragozteko, bere laguntza oihuek ez dute inor mugiarazi, eta aitari gainetik botatako beroki bustia baino ez zaio geratu eskuan. Aita salbatzeko uretara jauzi egiteko keinua egin duenean alboko emakumeak besoa luzatu, eta bere arropa hezeen kontra estutu du maitekiro.

Belarrira xuxurlatu dio beste inor esatera ausartu ez den egia. Belarrira aitortu dio beranduegi dela bere aita salbatzeko. Beranduegi uler-tu du heriotza mozorrotoa izan daitekeela loa, eta beranduegi ohartu da bere eskuekin indarrez laztandutako bizkar hotza aitaren hilotza baino ez zela dagoeneko. Goizegi gelditu da bakarrik munduan.

Pareko ama ohia bezain inozo sentitu da, seme ohi, seme hil, gurasorik gabe ez baitago semerik. Arnasa berreskuratutakoan emakumearen besoetatik askatu, eta etengabe uretara gonbidatzen duten olatu zakarretara begiratu du desagertu berri den gorpuaren bila. Baina itsasoa gose da. Hain sentitzen da hilda, beretzat ere ez dagoela txalupa horretan tokirik, eta begiak itxita salto beltza egin du. Emakumearen esku zimurtua jertsetik tiraka sumatu du hatzek irrist egin dioten arte. Ur beltzetan hondoratu da aspaldian sentitu gabeko bake batek hartuta. Hiltzen jarraitu baino, nahiago behingoz hil.

TXIKITZEN

Jon dut izena. Betidanik izan naiz altuena: eskolan, familian, lagun artean, eskubaloiko taldean... Hamabi urte bakarrik ditut, eta dagoeneko 1,78 metro neurtzen dut... Txikia nintzenetik, bizkarreko arazo nahiko larriak izan ditut altueraren ondorioz. Ama eta aita asko kezkatzen dira nitaz eta mediku espezialistak bilatzen dizkidate arazo honekin laguntzeko. Baina denek esaten dutenez, mutil handi bat besterik ez naiz.

Gaur, urriaren zazpia, beti bezala eskolarako janzten ari nintzela, gal-tzak jantzi ditudanean oso-oso luzeak nituen, honek esan nahi du txikitu egin naizela. Edo hori da, behintzat, aurkitzen dudana erantzunik zentzuzkoena. Amari esatea iruditu zait onena, eta halaxe egin dut:

- Iepa ama, arazo bat daukat: txikitu egin naiz! — Esan diot harrituta.
- Ikusten dut, hau miraria! — Ikusten denez, pozik ematen du...
- Ez ote genuke kezkatu beharko?
- Nire ustez ez, dagoeneko txikitu baldin bazara... — Erantzun dit irribarre eginez.

Egun bat igaro da txikitzen hasi nintzenetik, eta gaurgero 20 zentimetro inguru galdu ditud, orain bai kezkatzen hasi behar dudala! Amarengana joan behar dut berriz arazo hau aipatzera, baina oraingoan, irribarre egin beharrean, negar egin du. Gelatik atera naiz ea pixka bat lasaitzen den. Hamar minutu inguru egon naiz gelatik kanpo, eta minutu bakoitza pasatzen zen neurrian, gauza arraragoak esaten zituzten, adibidez: “Nire ustez, kristalezko ontzi batean sartu beharko genuke hurrengoan txikitzen denean, honela egunero ikusi ahal izango duzu”. Ontzi batean preso! Nik uste nuena baino okerragoa da nire egoera. Nire segurtasuna eta askatasuna ez urratzeko etxetik ihes egin dut, nire bizitzan pentsatu ahal izateko.

Kalean barrena nenbilela, gizon bat ikusi dut, eta, gizonak argia zirudienez, galdera bat bota diot:

- Barkatu, zuk gizon argia dirudizu, ba al dakizu pertsona bat txikitu ote daitekeen?

- Bai! Nire birramonari horrelako zerbait gertatu zitzaien, dirudienez ez da gure gorputzaren kontua izaten, askatzen dugun energiarena baizik...

Hogeita hamar minutuko solasaldiaren ondoren, hau izan da ulertu dudana: pauso bakoitza edo mugimendu bakoitza egiten dugunean, energia askatzen dugu, eta, dirudienez, energia horrek neure gorputzari modu arraro batean erasotzen dio.

Bat-batean, txakur batekin topo egin dut:

- Kaixo, txakur jauna, zer ari zara kalean hotz honekin?

- Etxetik bota naute, janaririk eta ezer gabe, baina gutxienez badut zerbait hori baino mila aldiz garrantzitsuagoa: esperantza. Zerbait galtzen dugunean denborak itzuliko digula sinistu behar dugu, hori da burutik sano mantentzen gaituena.

- Eskerrik asko, txakur jauna! Gogoan izango dut zure aholkua.

Euria hasi du eta aurkitu dudan aterpe bakarra isurbide zikin eta ilun bat da, eta hain txikia naiz, non erraz sartzen naizen. Sugandila baten

tamainakoa dirudit. Isurbidean nenbilela, janari usaina sumatu dut eta segi egin diot usainari. Bi sagu zeuden zopa eder bat prestatzen, eta haiena hurreratu naiz.

- Kaixo, sagu andereak!

- Egun on, mutil txiki!

- A zer zopa ederra prestatzen ari zaretena!

- Milesker, nahi al duzu probatu?

- Janaria baino gehiago, aholku bat behar dut... Ba al daukazue baten bat?

Bai, badakigu orain zure bizitzak tunel ilun bat dirudiela, baina ziur gaude oinez ibiltzen jarraitzen baduzu, argia aurkituko duzula. Ur ziki-netik ur garbia ateratzen da beti...

- Eskerrik asko, zuek esan bezala egingo dut.

Oinez jarraituko dut beraiek esan bezala, ea argi hori aurkitzen du-dan.

Azkenean tunelaren bukaerara iritsi naiz, eta saguek esan duten bezala argitsua da, horrek esan nahi du bide egokia hartu dudala.

Tuneletik atera bezain pronto, nire tamaina txikitu egin da, segurue-nik txingurri baten antzekoa izango naiz.

Txingurriez ari garela, txingurri bat ikusi dut urrutian, eta beragana joan naiz zuzenean.

- Kaixo, txingurri jauna, nekatua nago eta aholku bat behar dut, ba al daukazu?

- Ez duzu nekatuta egon behar nahi ez baduzu, indarra buruan behar da, eta ez badaukazu bururik zure indar fisikoa kontrolatzeko, orduan ez daukazu indarrik.

- Kontuan hartuko dut nire bidaian, hurrengo arte!

Denbora bukatzen ari zaidala uste dut, elektrizitate moduko zerba-it sentitzen ari naiz, eta gainera besteetan baino karga handiagokoa dirudi.

Bat-batean, inolako arrazoirik gabe, energia hori askatzen sumatu dut, kolore bizi asko ikusten ditut, eta bero dago, baina ez dago lehen zegoen isiltasunik, orain bizia entzun dezaket, ingurura begiratu eta milaka zelula ikusten ditut! Hauetako batekin hitz egin behar dut, galdera asko ditut egiteko.

- Kaixo zelula, oso galdua nago hemen eta laguntza behar dut, aholkuren bat behar dut.

- Ni zelula bat bakarrik naiz, ez dut gauza askotarako balio, baina, milaka eta milaka elkartzen bagara, gauza harrigarriak sortzera hel gaitzke; horregatik, ez da lotsarik izan behar laguntza eskatzeko.

Milesker, gogoan izango dut.

Ez dakit zer ordu den, non nagoen, zein egun den, zer naizen, ez dakit ezer. Dakidan gauza bakarra da txikia naizela eta laster nire bizitza bukatuko dela.

Milaka kolore ikusi ditut berriro, azkar pasatzen nire begien aurretik, baina oraingoan ez dute hitzik egiten, ezta soinurik egiten ere, eta azkenean iritsi da nire momentua. Energia bihurtu naiz, hotza nabari dezaket, baita lasaitasuna ere, dena hilda dagoela dirudi. Beste elektroio bat naiz energia pasatzen duena, eta ezer ez gehiago. Hori da lasaitasuna, txikitatik behar izan dudana. Hemen ezerezaren erdian nago, eta etxean sentitzen naiz, babestua, inork ezin nau ukitu, eta, azkenean, bakean har dezaket atsedean. Nire txikitasunean.

2019



SATARKA / A MAILA

2. SARIA

Mari Joxe Azurtza Sorronegui

LOA, IHESI DOA BIHURTU NINTZENETIK GURASO

Burko azpian dauzkat garondoa zein sudurra,
ile zuztarra, kopeta eta aho muturra
amets gozoan, ezpain ertzetik listu adurra.
Loa da munduan dudan lasaitasun apurra.

**Loa dut maitale txit kuttuna,
gauero bixitan dudan amets-jostuna.**

Erdi lotan, norbaitek egin dit "ai!" atximurra.

Alboan, metro eskaseko haur ile kizkurra
dardarka, begietan dir, amesgaizto-beldurra.

"Zerk zakartza gaur? Zer duzu, haurra?"

lauetan ohetik botatako marmar papurra.

Loa, nora hoa...

eraman nazan hirekin, hemendik baho...

**Loa, hegan ihesi doa
bihurtu nintzenetik gurasoa**

“Zuekin nahi dut. Gelan da Basajaunen zakurra”.

“Hator tartera!”. Gaualdiko erantzun zuhurra,

biharamuneko ajea, bai neke-egurra.

Gurasook etxean dugu atsedena-lapurra.

Loa, hirea bai joko iluna

hirekin ekarri dun Amesgaiztoa laguna!

“Amatxo, maite nauzu? Aitatxo, maite al nauzu?”

“Pila bat! Buf!!! Zenbat gainera!!! Ale, lo egizu”

Lokartu arte, haurraren izua enbarazu,

burkopian ere gurasoak lo ez gaituzu.

Loa, ez dagokin gaurkoan laudorioa,

gailen atera zain amesgaiztoa:

haurra dinagu ohean,

dar-dar betean gajoa.

Erdi-esna, maindirepean laudorio-agurra:

“Gizon! B(eg)ira bion maitasun haragi-hezurra”,

Senarrak irri jolaskor-gozo lizun-maltzurra:

“No... gozatutako sexu-jokoen garaikurra”.

Ni zaputz. Gustura emango nioke mukurra.

“Zu bai gordina! To! Zabar, zakar, aho-makurra”.

Hasperen luzea... senarrak ez zuen hau gura:

“Barka. Erdi lo ez naiz gizon ulerkor, samurra”.

Loa, bihur hadi zalduna,

egin ezan gurekin ituna:

erakutsiezagun hire eremu-erruna,

atsedena eta isiltasuna.

Espero gabe, sast! Haur-ahotsak hizketa urra,

tarteko izarapetik: “zer da sexu joko ikurra?”

nola erantzun buruhaustea, estu zintzurra,
irri segidan, “Zu!!! Irrikatutako gailurra”.

Loa, hau estutasuna!

Gauerdiz zer nolako itauna!

Loa, zabal ezan hire hegoa,

har gure gogoia,

emaigun atsedean oparoa.

Halako batean galderak amaitu zaizkizu,

aldameneko biak isil-isilik dauzkazu.

Zuk lo egiteko gogoia besterik ez duzu.

Loari deika, otoitz erregua darabilzu:

“Ama zeruetakoa, betiko zain gaitzazu”.

Loa, badoa,

dirudike ihesi galernatik kaioa

gehien behar dugunean ezkutatzen iaioa,

nirea bai arrakastarik gabeko saioa.

Burko gainean ari naiz loari deika, “purra!”,

sabaian zintzilik burdin-egurrezko aitzurra.

gora begira, hazkatuz garondo kaskezurra,

Logaleak nago eta ezin: hau iruzurra.

Sukaldeko ordulariaren tik-tak ziurra,

ta ni purra-purra, loari deika purra-purra...

Ez dakit zer gehiago egin, Morfeo zuhurra.

Eskutan hartu dut eta jan mahaitxoko hurra.

Lo faltan, gaua astuna

eta loa, oroitzapen-lurruna.

Hormaren aurka dago aitonaren maite txurra

(e)ta haren kirtenean amonaren eztei turra.

“Bizitza lasai hartzazu; ez izurto izurra”
gautxori suma dezaket gaur aholku surmurra.

**Loa denean, entzun zorioneko ttunttuna,
biziberrituz arimaren osasuna.**

Milaka ideia arrapaladan datozkizu,
itxaropena, ordea, norabait doakizu.
“Loa ere nora joan ote zaigun badakizu?”
Atsedean hartzea ezer baino hobea duzu.

**Lo nahian neraman eguna,
gaua iritsi eta joan zait urruna.**

Aita-haurra lo. Kanpoan mara-mara elurra.
Ez! Zapatetan ekarri genuen bart simaurra,
ez nuen jaso jirabira zebilen ezkurra.
Motel! Zein zikina daukagun logelako lurra.

**Lo garaian esna daramat gau-jarduna,
burua dabilkit hitzuna.**

Laztandu diot senar lotiari esku ahurra,
itsusia du benetan bular-orbain zimurra.
Hara, esna da! “Jolas dezagun, gizona”. Hurra!
Puf! Haurra tartean, ezin ere zirri uzkurra.

Umea tartean, ez da izango gau lizuna.

Loa, fantasietara eramaidazu garuna.
Haurtxoaren zurrunga belarrietan zuzmurra,
hor txokoan dago eskuartean zuen mura.
Ipurmasailean zilipurdika dut intxaurra,
eta ezti-gozo senarraren esku-lukurra.
Birati ta lo da. Esne txartuaren kipurra!
Kasu egiten didan bakarra dut antzikurra.

**Haurraren zurrua, gizonaren zurruna,
loari darion samurtasuna.**

Egurats-ortziaren kolore ikur-makurra,
egun argiak leun eman digu goiz-agurra.
Zuri-zuri apain, distiratsu da Amalurra.
Neguko gaua, lo laua: polita da gezurra.
Ni astintzeko erabili balute bart txurra,
orain antzeko danbadaka nuke garezurra.
Haurra haur den artean, atsedena da laburra,
Erbi-lo egin eta sari dut neke-aitzurra.

**Logale naiz, ene maite Loa.
Gainean dut neke-lainoa,
maitasunaren sakrifizioa:
askatu dut haurraren izu-korapiloa,
zaindu senarraren lozorroa,
baina ni esna ia gau osoa.**

**Ai, loa, maitale lar bakuna,
bartekoa baino hobea bedi biharamuna.**

Loti ederra



SATARKA / B MAILA

1. SARIA

Ander Villancian Crespo

BARRUAN GORDETAKOA

Kaixo Ama,
Badakizu zelako zauria geratu zaidan?
Orban eta ubelduz estalia dago
baina sakontasunean
zornean arakatzean
zauriaren muina topatuko duzu.

Garratza eta gogorra da
bizitako bizitzaren ispilua
batzutan belarria gerturatzen dut
eta kaiako kaioen kirrinkekin batera
bihotz itsu baten taupada dantzut
eta min hau nonbaiten darraiela
badakit,

Nire gela iluneko leihotik
itsasoa ikus dezaket,
bokalea,
zeru gris zauritua
eta belaontzi urrunak.

Burura datorkit orain dela urte asko
mendira eraman ninduzula
eta lehen aldiz
zinez bizirik sentitu nintzela
brea koloreko mendi hartatik
lasterka egitean,
nire leihotik ikusitako magalak kurritzean

Une hartan
gauzak okertuko zirela antzeman nuen
baina askatasun hori galtzearen beldur nintzen
beraz, itsutasun horri eutsi nion,
nire arima osoak
gerturatzen ari zen ekaitza isilduz.

Baina alferrikako borroka zen, ezta?
Eritasunak ez dira borondatearekin hiltzen
'eta aita zendu zen egunean,
zementuzko horma batekin tupust egin nuen
olatuak dikearen aurka kolpe egitean bezala
odol-txorrotada epel bat jausi zen
nire ezpanetatik, lepotik, jantzitik
ura eta bitsarekin. nahastu arte.

Herriko kanposantu zaharreko altzifreak
leun-leun mugitzen ziren udazkeneko arrats hartan
pirpira malenkoniatsua zeukaten
baina seguruenik nik ez nuen ezer ez
zuzen ulertu.

Mitxoleta zaharrak bildu ditut
kristalezko lorontzi batean
leiho azpian ditut
nire idazmahaian
eta herri handi honek
hiriak eman ez zidan espazioa eman dit,
iraganak ziztatzen zidan doluak
eta neure buruak zekarren alkea
ezin ziren botikekin sendatu.

Esnatzerakoan gutun hau idaztea bururatu zait
eta alde zaharretik nenbilela beste aukerarik
ez nuela egiaztatu dut
gardentasun osoz
trenbide ondoko etxeen bizia aztertu dut
eta periferiaren hantura, unibertsala dirudi,
bazterketa, endemikoa balitz bezala.

Amaigabea da tristuraren patua
noraezean noan heinean
neure burua bueltaka dabil
eta enaren hegaldatzeek harritzen naute bat-batean
edo krabelin baten gorritasuna
edo zozo baten belztasuna

edo nire biziaren gristasuna
azken finean autobide bihurgunetsu honek
bi aukera ditu
irtetea
edo noraezean
jarraitzea.

Adiskide on asko utzi ditut atzean,
gorroto asko baitaere,
behin ibaiertzean
abuztuko gau luze eta sargoritsu hartako baten
neska bat negarretan hasi zen
etengabe,
bere malkoetan itoko balitz bezala
beldurgarria zen
dardarka hasi nintzen soilik entzutearren

Baina magia ezezagun baten poderioz
isil-isilik egon ginen
ikus-entzule zorabiatuak bezala
eta itxaroteari ekin genion
horretan adituen plantak eginez.

Kafe kikara baten, tinta beltzezko lumak dauzkat
eta tintazko errekatxoak idazten ditut
ez dakit ze jainkosari otoi eginez
ezinezko baretasun bat erregutuz,
nire herragatik erruki daitela
arren, ez ditzala lehengo kondaira mingotsak ukitu

Ama badakit zeinen gogotsu zauden
edonor ikus dezadan
baina etxea utzi nuen egun berberean
inoiz ez nintzela itzuliko
jakin genuen,
horrela delako
damu den arimaren zigorra,
noraezean ibiltzea
bere baitan gordetzen duena
zokoratzea
eta sekretuak isiltzea
eta minak mantentzea
gela honetako lau hormen artean

Portuko argiak ederrak dira argia urratzean
marinelak soilik agertzen dira bakardadean
isiltasun hori sentitzean
iluntasuna maitatzean
eguneko lehen izpiak;
nire doluminak
aita zendu zela
10 urte pasa baitira
eta bizia darrai
bere barruan gordetako minekin.



2022



SATARKA

1. SARIA

Iñigo Legorburu Arregi

URTARO PANDEMIKOEN JOANEAN

Joanaren etorrera

I.

Orriek pasaz gu egutegian
zahartzaroa gaztetzen da hala
altzoa ahantziz, hortxe da magala
denbora den lautadaren hegian.

So periferiko baten erdian
gure urteen azpi-talaitatik
iragana txikitzen da, ahatik
leku seguruan: urakanaren begian.

Etortzear den gero baten irrikan
ekidin nahiz eskasi oparoak
oraina da iragana, birritan

egunik gabe, data arraroak
egutegiz at baitaude sarritan
efemeride luzetan, urtaroak.

II.

Bizitza gertatzen zaigu ... benetan?
gertatu ohi ez denaren urruma
sentitu gabe askotan, zer suma?
Gure izatean ez gaudenetan.

Baraualdian, odolkiak ordainetan;
ginelako, izateari ezin laga
gure penei sortuz barre-algara
ezerezetik ez urrunduz ... ezertan.

Ni ez banaiz hain burujabea
denbora zer da ba? Ni iraungia!
Makurtuz kikiltzen ez den zutabea

azkar bizitzeak badakar nagia,
indartzen du barruko ahuldadea
egun garen gu honen nostalgia.

Nork ostu dit apirila?

Oroitzen? Sabinak etorkizunari aurrea hartu zion
negua udaberritu zen hogeï-hogeï hartan
berrogeialdian sartu zen gizartea,

gizat-eria bihurtuko zena beranduago.
Terrazak, aurreko bizitza baten erakusleihoak ziren
eta ospitaletako arnagailuek, beldurra hauspotzen zuten
zortziretan, hamaika txalo jasoz.
Munduak, lur masak; orea egiteari ekin zion
gorputzek gorputzaldiak bilatzen zituzten korridoreetan
eta txakur bizitza zen... askatasuna.
Gure buruarekin jardutea, gure buruaz beste egitea zen
eta fikzioa ez zegoen telebistan
kalean gertatzen ari zen; kale huts haietan.
Martxoak maiatza helarazi zigunean
etxe ondoko kilometro karratua, borobila zen
eta pauso bakanetako erromesaldiak
gurtzen eta jainkotzen ikasi genituen.
Aho zapore mingotsa utzi zigun musukoak,
uzten dihardu musukoak...
Oroitzen? Ohitzen?
Oro, hil zen?

(D)uda mudan

I.

Udara bustitzen zen abenturaz
esploratzen gintuen hango herriak
jaioz nerabetan ume berriak ...
Minak sikatzen genituen udaz.

Ekainez, errutina janzten zen dudaz
eta ezinegonen galdera ikurrak
lokartzen zituen itsaslurrak,
maite genuen jokatzea umeen arduraz.
Egon ez eta zenaren deskubrimetua
estrainekoz errepikatzen zen sorpresa
hari bazka emanez, mehetua

zuzentasuna, ze modu aldrebesa!
Behin soilik jaio arren, berrestua
zorion poz-ma I koz, ortzi gazi-geza.

II.

Postal zartatuak, oroimenean
lagun berriak, gaur kide zaharrak
ga inbeheraren bizi-iluna barrak
ajezko gorputzaren izenean.

Bizitza, da egotea onenean
irrifarrak hortz eroriak dauzka berriro
stressa gudan pausatu arren astiro
pauso ziur bat hor, gure herrenean.

40,50,60 urtetan dena da krisi
haur eta heldua ... alde banatan
herioren eskusiba, ez da primizi

Heldutasunetik nago zelatan
ez ote naizen oraindik ere bizi
gaur jaio nahi lukeen ume hartan.

Zu, haitz genealogikoa

Udazkenak, malenkoniak hostoka gaitzan sortu ziren
lozez lore ibili gaitezen ekidinez
beretzat nahi gaitu: bereganatuak.

Sustraiak etorktzunez betetako begiradan
egunak laburtu ahala gero eta luzeagoak zaizkigunak
urtea berriro hastea delako baina ez urte berriz
gure burua ezagutuko ez bagenu bezala jokatzu,
aldatzeko zina promes bilakatuta, geuri ...
edo agiafl, gu hari?

Zuhaitz genealogikoak, zu haitz bihurtzen zaitu
sustraiak, tokj bakarrera lotuko bazintuzte bezala
abstrakzioak leku konkretuetatik ez datozelako.

Eta zuhaitzek basorik ez digute erakusten
aniztasuna, aberastuna, elkarbizitza diren basoa.

Baina zuhaitzak besarkatzen jarraitzen ditugu
etxeko egongelako koadroan eta basoan
sustraiak zapaldu ahala, haiek nahi gabe hondoratuz
sustraiak jaiotzen jarraitzen dutela ahantzi bagenu bezala.

Argien laioztasuna

I.

Argien poz artifizialean
kale zokoak neguan dira ilunago
eskutik norik hartu inon ez badago
kontsumo sakonaren azalean.
Hoztasunak epeltzen gaitu kalean,
maiz erosketek osoki saltzen gu
sosa bada fede, otoitz, erregu
miseriaren esku zabalean.

Umeldutako soen kriptogramak
argazkieta n errebelatuak
bizitzaren arintasun baten zamak

egun berezitan ernegatuak
guraso, aiton, osabak... amamak
iragana ekarriz berriz patuak.

II.

Ezinen ereserki, *Negua joan da-ta*
akorduak badiren akordeak
beltz kromatikoaren koloreak
ekidinez, opari: haur zapata.

24 eta 31, bi *ez-data*:

Big data, etxe analogikoan
oroitzapenen garai logikoan
malkoek apaltzen dute zarata.

Etxe orotan dago aulki huts bat
hustasuna bete-bete eginez
horrela ahanztura hartuz aintzat

joandakoak present daude, zinez
gabonak dira bizitzea gugandik at
heriotza berpiztuz, biziminez.

Postdata

Urtaroei eta egutegiari gutun bat idatzi ahalko banie
lurrin goxoz zipriztinduko nituzke izkinak
letrek sentitzen dudana usaindu ez dezaten
eta esan ezin direnak, paperak ahozkatu ditzan.

Esaidazu urtaroak guk egiten ditugula
esaidazu guk udaberritu dezakegula negua
eta udaz-kendu udaberria
garaietatik kanpo, denborak aurrera egin dezan.

Irakurtzen jakingo ote dugu bizitza
hura atzean utzitakoan, oharkabean
atzean ezer ez uztea ederra litzatekeen arren batzuetan.

Azken bulkada batek, ohar bat idaztera narama:
Gaur eta hemen egotearen postdata,
sentimendu gaurkotuen poz data.



BORDARI / Hondarribia

1. SARIA

Iñaki Sanz Azkue

KOARTA ZURIA

2022ko martxo

Ez dakit zuek nola begiratzten diozuen errioiari. Ez dakit, egia esan, begiratu ere egiten ote diozuen. Ibilera azkarrarekin zabiltzate hara eta hona eta ordulariarentzat baino ez dituzue begiak. Aurrera zoazte, gure astoa soroan bezala, inguruan duzuenari arretarik jarri gabe. Zuen aldamenean duzuen errio zabal eta ederrari erreparatu gabe, sikiera. Baina, ba al dakizue nora zoazten?

Zein da zuen helburua?

Nik badakit nora iritsi nahi dudan. Lortu nahidudana gauza handia da, nahiz eta zuentzat huskeria izan. Goiz esnatu naiz gaur ere, eguzkiak agintzen duenean hasten baita nire eguna; eta hemen nago orain, egunero bezala, zuen zubi txiki honetan ikusmiran. Horrenbeste gorroto dudan errio zoragarri honi begira.

Begiratzearekin bakarrik nire ametsak hondoratzen dituen utez osaturiko desertu estu honi so. Iluna baita hondoa, nire arreba txikiaren begiak bezalaxe, eta orduan, nire buruari gogor egiten diodan arren, ezin baitut begiratzte soilarekin ateratzen zaidan negarra ekidin. Ez dut esperantza galdu nahi.

Azken asteotan isuri ditut, bai, malko gaziak masailetan behera, eta erori dira zubitik erreka txikira, zuen errioarekin bat egiteko. Orduan, itsasbeherak erakartzen duen kolore zuriko koartza txikiari begira gelditzen naiz. Zuria baita; zurietan zuriena. Zuek bezala. Zuen bizilzak bezala. Zuen izaera bezala. Eta nik zuria izan nahi dut, errioa ez gorrotatzeko. Zuen begi-niniak eta ahoak ez zabaltzeko goizeko ordu txikitant zubian elkar topo egiten dugunean; nire presentzia soilak dardarizoa sortzen dizuenean. Ni ubarroi beltza bainaiz, zuen koartza txikiaren koloreko azalfinarean ondoan. Beltza, zuen mundu zurian.

Gaur ere kalean igaro dut gaua. Aurkitu dut txoko bat errekatik gertu, babesean. Zuen begirada zurietatik ezkutatuta nagoen lekuan. Eta amestu dut, atzean utzi ditudan amarekin eta anai-arrebekin. Bizi ginen egurrezko etxola txikiarekin. Nire lagunekin eta nire jaioterriko paisaiarekin.

Han ere bagenituen koartzak. Zuri-zuriak, zuenak bezalakoak. Eta denok amesten genuen haien lumen argitasunarekin. Eguzkipean zuten distirarekin. Gure aitona ehizatu egiten zituen. Izena ere ematen zion gure hizkuntzan, baina jada ahaztu zaizkit horiek guztiak. Hiru urte daramatzat zuen herrira iritsi nahian, eta bidean denborak irentsi ditu kaskezur artean gordeta nituen izen asko. Buruak txori-izenak ahaztu ditu, zuen hizkuntzako zenbait hitz ikasteko. "Egun on" esaten duzue goizean eta "mila esker" eskerrak emateko. Horiek ikasi ditut behintzat, gure amonak jendearekin adeitsua izateko errepikahen zidalako behin eta berriz. Are gehiago, pertsona zuriren bat gure bizilekuan agertzen zenean; eta nik hori egiten jarraitu dut. Zuen hizkuntza ikasi eta atsegin izaten. Hemen, baina, lkatza naiz elur artean, eta nik, ordea, zuekin hitz egin nahiko nuke eta esan prest nagoela nire iraganaren zati txiki bat bidean uzteko. Etorkizuna zuekin egin nahi dut. Elkarrekin.

Horregatik, goizero, argiak begiak pizten dizkidanean, zubi txikira etorri eta errioaren beste aldera begiratzen dut. Amestuz, gaur izango dela eguna. Gaur utziko diodala errioa gorrotatzeari, eta beste aiekako lurra zanpatuko dudala behingoz, koartzak egiten duen bezala.

Hark ez du eragozpenik. Zuria da, eta hegoak ditu. Horiek astindu eta errioa zeharkatzea baino ez du bizitzarekin jarraitzeko. Afrikan bai, baina hemen ez.

Hemen ez dago txori-ehiztaririk. Hemen pertsonak dira pertsonak ehizatzen dituztenak. Koartza zuriek, ubarroi beltzak.

Orduari lotuta zoazte denok erri ondotik. Nik ere banuen ordulari bat desertuan, baina ostu egin zidaten. Aitak ez daki, ordea. Bere oparia izan zen desertuak eta itsasoak zeharkatu nahi nituela esan nionean. Europa izeneko lur horietan etxekoen etorkizuna bilatu nahi nuela aipatu nionean. Ez zuen ezer esan. Begiak busti zitzaizkion, goizeko ihintzak belarra bustiZen duen bezala, baina isilik geratu zen. Berak ere bazekien beste aukerarik ez genuela. Bere ordularia eskumuturretik atera eta nirean jarri zuen. Nire esku jarri zuen bere ondasun gutzia.

Desertuko gizonek, alabaina, ordulariaren balioa neurtu zuten, baina ez nire bihotzarentzat zuena. Negar egin nuen, baina desertuak irentsi zituen malkoak, eta nik aurrera egin nuen eguzkipean, norabidea galduta eta denboraren zantzua galduta. Orduan egin nuen eguzkia lagun. Hark esaten dit orain eguna zein ordutan biziden.

Asteak daramatzat zuen erriorearen aldamenean bizitzen. Ez dut egiteko berezirik, bizirautea baino, eta nire ametsak malko moduan erre-kara isurtzea, Afrikara, etxekoengana mezu moduan iritsiko diren esperantzarekin. Zubi ondoan aurkituko nauzue goizero, eguzkiak lehen izpia jaurtitzen duen momentuan. Zozoak bere kantuarekin liluratzen gaituen une horretan. Zuek, ordea, etxeetan zaudete sartuak, eta nahi duzuenean zeharkatuko duzueerrioa. Hark maite zaituzte zuek. Ez dakit zergatik, ez baitiozue kasurik egiten.

Atzo ere zubi txikian nengoen ni zuen etxeko maindireak gorputza estaltzen zizuen bitartean. Erreka txikiaren hondoan, harean iltzaturik zegoen platuxari begira nengoen. Eta pentsatu nuen, hark ere bere burua ezkutatu nahiko zuela hondar artean inork ikus ez dezan. Nik ere egin nahiko nuke, gauaren iluntasunean nire belztasuna baliatu, baina ubarroi-ehiztariak hor daude, gu noiz pasako zain.

2022ko apirila

Apirila hasierako astearteak egun arrunta behar zuen izan, baina ez zen hala suertatu. Errekak zekarren uraren soinuagatik izango zen agian, edota gure aitonak egiten zuen bezala, hegaztien habia bila itsututa nenbilelako, sabelari poz txiki bat ematearren; baina ez nuen sumatu ere egin. Txalupa txiki bat pasa zen nire aldamenetik, ilun-bistan, itsasgora baliatuz, nire parean gelditu arte.

"Egun on", esan nion, amona gogoan. Kokotsa altxa zuen gizonak, agurtzeko edo. Irribarrerik ez aurpegian. "Ni, Kerian" esan nion eskua bularrera eramanez. Eta hor bukatu zen elkarrizketa. Zuenherrian, as-tetan izan dudan hitz trukaketa bakarra. Gorputz fin eta meheko gizon txikiaren txapel azpian gordetzen ziren begi urdinek begirada zorrotza bota zioten nire aurpegiari. Itsasoak ekaitz garaiko zeruari begiratzen dion moduan. Txalupa txikiko arraunak hartu eta aurrera egin zuen. Adio.

Ezkailu itxurako gizona etorri zen bezalajoan zen eta ez zen gehiago azaldu hurrengo egunetan, eta nik besoak zubiaren egurrezko hesian iltzatzen segitu nuen. Han jarraitzen zuten hanka luzeko hegazti bizkorrek, itsasbeherak agerian uzten zituen altxor txikiak haien moko finekin bilatu nahian. Hor jarraitzen zuten karioek, hegaldi mantso eta patxada-tsuekin herria zerutik behatzen. Arrainak ere mugimenduan zebiltzan, ur mailaren arabera gora eta behera eginez. Uroiloak habia egiten eta karramarroak arroka arteko zirrikituak bilatzen, ur-belarren artean.

Paisaia hura zen azken finean nire etxearekin lotzen ninduen. Han eta hemen, naturak hizkuntza bera hitz egiten duelako. Afrikan, aitona-rekin ehizara edo arranzara nindoanean, edota orain, zubitik begira nagoenean entzuten dudan berbera, mugarik gabeko nazioarteko hizkuntza bailitzan. Eta hala nengoela azaldu zen koartza zutia, hanka beltz eta luzeekin, ur azpiko harearekin nahasten zen oin horiekin eta buru atzeko luma amaigabe eta ederrekin. Geldirik zegoen, ur azpira begira. Gorputzeko luma bakar bat ere ez zen mugitzen eta burua finko zuen, behera begira. Bat-batean, lepoa astindu eta moko ur azpian sartu zuen, arrain handi bat harrapatuz.

Koartzak arrantzatzen zuen isiltasun berarekin mugitzen zen gizon ezkailua, eta konturatzera nire aldamenen nuen, zubi txikian hura ere, koartzaren mugimenduei begira. Koartzak arraina bezala, hark ni ikusia ninduen nik hura ikusi aurretik. Begi urdinek nire begiak bilatu zituzten eta eskua luzatu zidan: "Akilino Emazabel". Bizkatra eman eta haren begiek alde egin zuten, martin arrantzaleak errekan gora egiten duen moduan. Soinurik egin gabe. Arin.

Itsasgora zen guztietan, ezkailu itxurako gizona, Akilino, eta bere txalupa txikia zubi azpitik pasatzen ziren airea zeruan mugitzen den bezain isilik. Ezer esan gabe, poltsa bat uzten zuen errekan aldamenen. Begi urdin haiek adierazten zidatenarekin ulertzen genuen elkar. Janaria uzten zidan bertan. Txalupa txikia erreka ertzean utzi eta zubira igotzen zen, eta elkarrekin behatzen genituen erriora bidean ziren hegaztiak. Ez genuen hitzik behar paisaia hark adierazten ziguna ulertzeko. Irribarre egiten genuen murgil handiak uretan murgildu eta arraintxoak harrapatzen zuenean. Begiak zerura bideratzen genituen kaioen goizeko kantu ozenaren aurrean, edota Aiako Harriko sai arreak Jaizkibelera bidean ikusten genituenen. Akilino eta biok hizkuntza bera hitz egiten genuen, isilpean.

Hala, egunak joan, egunak etorri, txalupa txikia errekan behera, erri aldera bideratzen ikusten nuen. Poltsatxoak uzten zuen bazterrean, eta txalupa egurrezko haga luze bati lotu. Nik begirunez begiratzen nituen mugimendu guztiak. Gure aitonaren eskuak ikusten nituen arraunak indarrez estutzen, txalupa lotuko zuen soka lodia, txikota, zurtoinera estutzen, eta ordularirik gabe, naturak agintzen duen erritmora, inguratzeko duen paisaiaz gozatzen.

Eta hala, iritsi zen Akilino isiltasuna haustea erabaki zuen eguna, eta frantsesez hitz egiten ote nuen galdetu zidana. Buruarekin baietz esan nion, irribarrea ezin saihestu. Eta hasi ginen Akilino eta biok berriketan, frantsesek ere ulertuko ez luketen hizkuntza batean. Hala ikasi nuen, txalupa txikiak *txintxorrua* zuela izena, eta desiraz eta gorrotoz begiratzen nuen erriok, Bidasoa. Ikasi nuen, ubarroiar *polborina* deitzen ziotela herriko arrantzaleek eta egunero ikusten genituen hegaztien artean zirela marlaxkak, *tirritarrattak* eta *martinak*, besteak beste.

Nik nire herriko hegaztien izenak erakutsi nizkion, eta aipatu, koar-za zurien antzeko hegaztiak genituela guk ere Afrikako erriean. Eta iritsi berri ziren hegazti txiki, beltz eta zalapartatsu batzuk nire herrian igarotzen zutela negua eta orain hemen zirela hegan, aske, mugarik gabe. "*Kirrikilak deitzen diegu hemen*", adierazi zidan. Akilinoren begi urdinek, ordea, sekreturen bat gordetzen zutela erakusten zuten. Frantsesez hasi aurretik ikasi nuen Akilinoren begiak irakurtzen, eta nabaritzen nuen bere begietako itsaso urdin eta zabal horren baitan, bazela sakontasun ilun bat, hitz egiten nuen bakoitzean azaleratzen zena. Nik, ordea, amonaren aholkuei jarraitzeko asmoa nuen. Egunero, "egun on" eta "mila esker" esaten nion ezkailu itxurako gizon txikiari.

Udaberria aurrera zihoan eta nik ez nuen Bidasoa izeneko urrezko harrisia zeharkatzeko aukerarik ikusten. Egunak joan, egunak etorri, gero eta zailagoa ikusten nuen. Erriorearen bi ertzak lotzen zituzten zubiak odolik gabeko zainak ziren ubarroi koloreko gizakiontzat. Hura bai *polborina*. Urak zeharkatu nahian, bertan betiko gelditu ziren Saharaz hegoaldeko lagunak, eta nire igeri egiteko era traketsakez zidan asko laguntzen aurrera egiten.

Akilinorekin igarotzen nituen momentuek zentzudun izatera bultzatzen ninduten. Banuen zer jana, eta zubi txikia nire bizitzaren talaia bihurtu zen, egunero nire jaioterrira bidaiatzen laguntzen ninduen. Asteak ziren, ordea, Akilino ez zela zubian agertzen. Jateko gutxi nuen eta nire burua bihotzarekin borrokan hasia zegoen. "*Koldar bat haiz!*" esaten zion. Familia osoa ni Frantziara noiz iritsiko zain zegoen, eta ni hemen, Euskal Herriko herri txiki batean geldi, beste aldera noiz pasatuko, baina ausardiarik gabe. Hala, zurrunbilo beltz batean sartzen hasi nintzen, eta zubi txikiko egonaldiak mozten, joateari utzi nion arte.

2022ko ekain hasiera

"Kerian!, Kerian!". "*Reveillez toil Reveillez toil*, esna zaitetz, esna zaitetz!" Akilinoren ahotsak esnatu ninduen. Asteak ziren Akilinok ezkutan behatzen ninduela. Bazekien non lo egiten nuen eta non igarotzen nuen eguna ezkutatuta, ubarroi-ehiztarietatik ihesi. Akilino zain zegoen. Unea iristeko zain.

Gaueko ekaitzaren erdian esnatu ninduen nire babesgunean. *Txintxorroan* igota, manta handi batekin, euri zaparrada eta trumoiaren artean azaldu zen. Gau iluna zen, ilargirik gabekoa, eta lrungo festetako soinua are eta beldurgarriagoa egiten zuen testuingurua. Izu batean esnatu nintzen. Ez nuen hitzik adierazi ere egin: *txintxorrorra* igo eta manta azpian, Akilinoren hanken artean gordetzeko hautua egin nuen. Beldur nintzen. Akilinoren begi urdinak sekula baino argiagoak ziruditen gauaren iluntasunean. Barruan gordeta zuen sekretua azaleratu balitz bezala. Begien sakonean zegoen ekaitza itsaso urdinean gailendu balitz bezala.

Arraunei eragiten zien bitartean, Akilinok ahapeka hitz egiten zidan. Dardarka entzuten nituen haren hitz gogorrak:

-Nik ere errio hau gurutzatu behar izan nuen, Kerian. Egun ubarroi-hiztariak direnak, besfe "hegazti" batzuk harrapatzen zituzten 1936ko gerran. Gure bila etorri ziren etxera jaioberria nintzela.

Arnasestuka zihoan Akilino, mela-mela eginda, haizeari kontra eginez, baina ez zion arraun egiteari uzten. Hitzak bere bihotzaten barrunbeetatik ateratzen ziren kolpeka:

-Ilberrian, ilargirik gabeko gauean, gurasoek dena prest zuten ihes egiteko. Ilunpean, gaur bezalako trumoi-giroarekin atera ginen Hendaia aldera. Amak eta aitak herio batean egiten zuten arraun. Halako batean, ordea, argiak sumatu genituen. Kostara iritsi aurretik arraun egiteari utzi behar izan zioten gurasoek, eta ibaiaren korrontearen menpe mugitu ginen denbora askoan, isil-isilik, denok makurtuta, ia arnasarik hartu gabe. Harrapatzen bagintuzten... akabo.

Akilinok gero eta amorru gehiagorekin egiten zuen arraun. Gauaren iluntasunean begiak bi ilargi handi ziren Bidasoaren erdian:

-Errio hau ez da sekula muga izan, Kerian. Ibaiak herriak lotzeko gu-neak dira. Animaliak eta gizakiak bat egiten duten lekuak. Herrien arnaslekuak eta naturaren babesguneak. Bidasoak askatasuna eman zion nire sendiari, eta ni bizirik nagoen artean, hala egiten jarraituko du.

Eta jarraitu zuen:

-Guardia aldaketa egon zenean, gure gurasoek unea baliatu zuten kostara iristeko. Aita, ordea, etxeko arropaz beteriko zakuak biltzen gelditu zen txalupan, gu Hendaiako herritarren laguntzarekin aurrera gindoa-zen bita;lean. Ondoren, tiro bat entzun genuen. Errio honen sakonean hondoratu zen gure aita. Betiko.

Beldurrak estututa, manta zaharraren azpian bilduta jarraitzen nuen. Halako batean, *txintxorro* txikiak lurra jo zuen. Akilinok kolpe txiki bat eman zidan bizkarrean eta manta azpitik aterarazi ninduen.

-Kerian, egin jauzi lurrera. Atera eta jarraitu zure bidea.

Larruzko poltsa txiki batean kontaktu baten zenbakia eta dirua pasatu zizkidan Akilinok. Begietara begiratu eta eskua luzatu zidan.

-Egin hegan, Kerian. Koartza zuria bezain libre zara orain.



BORDARI / Hondarribia

2. SARIA

Maria Perez Garrote

ABENE

Zazpiak hogei gutxi dira Marisolen iratzargailua pizten denean. Begiak poliki-poliki irekitzen dituen bitartean, haren lepokoa ukitzen du, urrezko dominak bere lekuan jarraitzen duela egiaztatzeko. Musu bat ematen dio dominaren Ama Birjinari. Mugikorra piztu eta ohe txiki hartatik altxatzen da bizkorki, betiko arropa jarri eta kamioitik jaisten da gasolindegirantz. Bertan, dutxa esnagarri bat hartzen du kafea bukatu eta gero. Motorra piztu aurretik, jasotako mezuak irakurtzen ditu. Senarraren “egun on maitea”, semeak mendian bidalitako argazki bat eta familiako taldearen bideo inozoa. Eskumuturreko erlojuak zortziak adierazten dituenean, gasolindegitik ateratzen da errepidea hartzeko.

Lau egun daramatza Marisolek bidaia honetan, Bilbon kamioia burdinazko piezaz kargatu zuten eta Dortmundera eramango ditu, hiru egun barru. Bertan merkantzia deskargatu eta berriro ere Bilbora, guztira bi aste. Marisolek ibilbide osoa du buruan, horregatik ez du GPSrik jartzen, irratia baizik. Frantsesez hitz egiten duten irrati bat sintonizatzen du, ez du ezertxo ere ulertzen, baina oso goiz da garuna lanean hasteko. Errepidea ia hutsik dago, autorik eta motorrik gabe. «Hobe —pentsatzen du Marisolek—, traste horiek euliak bezala mugitzen dira». Bi ordu geroago, irratiaz aspertzen da eta bere orde, eskularru-kaxan daukan pen-drive bat jartzen du. “High well to hell” entzuten da kamioiaren bozgorailuetatik. «Martxa pixka bat» esaten du Marisolek bolumena

igotzen duen bitartean. AC-DC taldearen kontzertuan ezagutu zuen bere senarra, hogeita hamar urte pasa dira —pentsatzen du hasperen eginez—, eta ia denak bananduta pasa ditugu». Baina konturatzen denean bazkaltzeko ordua egin zaio;

«ene ama! Ia irteera pasa dut», esaten du bolantea gogo biziz biratzen ari den artean.

Gaua sartu da kamioia berriro aparkatzen duenean. Bi farolak argizatutako aparkaleku horren atzealdean jatetxe txiki eta zaharkitu bat dago. Zapatilak jantzi eta salto batez jaisten ditu kamioiaren eskailerak; jatetxera sartu aurretik luzaketa pare bat egiten ditu. Barraren atzetik adin ertaineko emakume batek begiratzen dio atea bultzatzean, bost edo sei gizon daude mahai batean hizketan, baina orokorrean jatetxea ia hutsik dago. Emakumeak afaltzeko zer nahi duen idazten du libreta txiki batean eta mahai batean itxaron dezakeela esaten dio ahots baxuarekin. Marisolek ez du edateko ezer eskatzen; normalki kamioilariak garagardo batzuk edaten dituzte txanda bukatzerakoan, badira batzuk pixka bat mozkortzen direnak, baina berak beti ura edaten du, Coca-Cola bat gehienez. «Beldurragatik agian —esaten dio bere buruari—, baina emakumea izanda hobe da burua argi eramatea, gauza oso txarrak gertatzen dira gaur egun». Afaria ordaindu eta hortzak garbitzera komunera doa, baina bidean, sarreran ikusi dituen gizonekin orain azal beltzeko mutil bat hizketan dagoela ohartzen da. Komunera sartzera doanean, mutil horrek burua jiratzen du berari begiratzeko. «Ze arraroa», pentsatzen du Marisolek hortzak eskuilatzen dituen bitartean.

Jatetxetik atera eta haize-bolada hotz bat sentitzen du aurpegian. Bat-batean, bere atzetik datorren ahots bat entzuten du.

— Andereño! —oihukatzen dio ahotsak—. Barkatu, andereño!

— Nirekin hitz egiten ari zara? —erantzuten du Marisolek burua biratu aurretik.

— Bai! Barkatu beldurtu izana. Kamioi baten jabea zara, ezta?

Jatetxeko mutila ikusten du sarreraren ondoan, esku batean bizkarzorro handi bat darama eta jaka marroi bat bestean.

— Bai, zergatik galdetzen duzu? —esaten dio Marisolek jakin-minarekin.

— Mesede bat eskatu nahi nizuke. Berlinera nindoan beste kamioilari batekin, baina gupil bat zulatu zaio —azaltzen du urduritasun pixkarekin—, eta iparralderantz doan norbaiten bila nabil. Tabernako gizonek esan didate hemen gelditzen duten ia guztiak Alemaniara doazela. Ez dizut arazorik sortu nahi, baina, eramango al nauzu?

Bere semearen adina izan behar duela pentsatzen du Marisolek. Ez du inoiz bere kamioian inor eraman baina, arrazoi ezezagun batengatik, mutil honek sinpatia transmititzen dio.

— Ongi da. Ni Dortmundera noa, bihar Belgikako mugara iritsi nahi nuke.

Zortzietan aterako naiz aparkalekutik, pixka bat lehenago egon zaitetz. Nire kamioia hori da —gehitzen du Marisolek bere kamioia seinatuz—, “Abene” izena duena.

— Ederki! Bihar hor egongo naiz, mila esker! —erantzuten du mutilak gogo biziz—.

Gauero ordu berean lokartzen da Marisol, baina oraingoan ohean bueltaka dabil lokartu ezinik. «Ai ama, zergatik esan ote diot baietz ezezagun bati? —kexatzen da begiak sabaian josita dituela—, lapurra edo bortxatzaile bat izan liteke, eta nik... ale! Nirekin etortzeko esan diot, noski baietz!», eta ohean beste buelta bat ematen du, «tira, ba, burua berotzeak ez du ezertarako balio».

Hurrengo goizean, azkeneko kafe-zurripada hartzen ari dela ikusten du mutikoa kamioiaren ondoan eserita.

— Egun on, oraintxe bertan aterako gara —esaten du Marisolek mutila oraindik lurrean egonda.

Mugikorra piztu eta dena prest dagoela frogatzen du, gazteari begia kendu gabe.

— Ez dakit oraindik zure izena —esaten dio mutilari izotzaldia urtu nahian.

— Egia! Mahmoud dut izena —erantzuten dio kamioiaren atea ixten.

— Izen xelebrea, nongoa zara? —galdetzen dio Marisolek motorra pizten duela.

— Hego Sudangoa naiz, Jartumengoa, gutxi gorabehera Afrikako kontinentearen erdian dago.

— Ene! Eta zer egiten duzu etxetik hain urrun? —esaten dio jakingurarekin aparkalekuaren irteera hartzen duen bitartean. «Galdeketa bat egiten ari diodala pentsatuko du», ohartzen da Marisol.

— Lan bila noa. Nire herrialdea gerran dago, ez dago lanik ez segurtasunik, horregatik, Europara emigratzea erabaki nuen duela ia bi urte —erantzuten du mutilak leihotik begira.

— Asko sentitzen dut —mutikoaren erantzunak harrituta utzi du Marisol—.

Orduan, bi urte daramazu bidaiatzen?

— Gutxi gorabehera. Jartumetik kamioi batean irten eta Libiako mugara joan nintzen, eta hortik Aljeriako hegoalderaino. Autoa utzi behar izan genuen poliziak beltzak garraiatzen dituzten gidariei isuna jartzen dietelako —azaltzen du mutilak, orain Marisoli begira—. Orduan oinez jarraitu nuen, basamortuan 20 egunez ibili nintzen kamioilari batek aurkitu ninduen arte, eta horrela iritsi nintzen Maghniara...

Marisol mutilaren istorioan galdu da hainbeste izen eta bidaien artean. Mutikoa begiratzen du, aurreko gauean uste baino gazteagoa dirudiela pentsatzen. Ile motza eta iluna du, sudur handi samarra eta begi marroi txikiak baina alaiak, adeitasun-itxura ematen diotenak.

— Sei hilabetez Rabaten bizi izan nintzen, Ceutan sartzea lortu nuen arte. Ordutik aurrera auto-stop egiten aritu naiz —bukutzen du mutikoak.

— Hara, ez zuen erraza izan behar honaino iristea. Baduzu seniderik Berlinen? — galdetzen dio Marisolek berriro ere bere pentsamenduetatik ateratzen.

— Ez, bakarrik nabil munduan —ezeztatzen du aire tristearekin.

Marisoli ez zaio okurritzen beste elkarrizketa gairik, eta isilik jarraitzen dute bidaia. Minutu batzuk geroago, mutila lo geratu dela ohartzen da. Bizkar-zorroa begiratzan du. «Zer eramango du poltsa horretan?», galdetzen dio bere buruari, «txiki samarra da bi urteko bidaia baterako».

— Pixa egiteko geldialdi bat egingo dugu —jakinarazten du ozenki samar, mutila esnatze arren.

Zerbitzugune batean gelditzen dira, bakoitzak bere eginkariak egi-tera kontrako norabideetara jotzen dute metro batzuk. Marisol azkar itzultzen da kamioira, non berriro ere mutilaren bizkar-zorroa azter-zen duen. «Ez dakit zergatik ematen didan hainbeste jakin-min poltsa ditxoso honek», kexatzen da. «Beno, agian bai begiratu behar nukeela... ez, ez... zertan ari zara pentsatzen?», ukatzen du buruarekin.

«Segundo bat, eta zerbait arriskutsua badu?», ohartzen da, «labana bat edo zerbait arriskutsua eraman dezake, edo... agian drogak edo ho-rrrelako zerbait». Orduan, mutila komunetik atera eta kamioirantz doa- la ikusten du.

— Zer, bidaiarekin jarraitzen dugu? —proposatzen du mutilak alaiki.

— Bai, noski —erantzuten du urduritasun pixka bat ere ez nabaritze-ko ahaleginetan.

Oraingoan, Marisol espezialki azkar doa autobidean, gidatzeko mo- duak bere urduritasuna islatuko balu bezala. Hala eta guztiz ere, bien elkarrizketa lauarekin denbora izugarri azkar pasatzen zaio. Nolabai- teko konfiantza ematen dion arren, ez zaio burutik kentzen poltsa mis- teriotsu hori. Horri buruz hausnartzen duen bitartean, errepidearen irteera hartzen du eguerdiko atsedenaldea egiteko. Lehen bezala, bakoit- zak bere komuna bilatzen du lehenbizi; berriz ere Marisol berehalaxe bueltatzen da kamioira. «Ezin dut gehiago», aitortzen dio bere buruari. «Izugarri izorratzen nau, baina ez naiz lasai egongo poltsa arraio hori begiratu arte», onartzen du mutilaren norabidera begiratu gabe.

Azkenean, poltsa irekitzea erabakitzen du. Barruan, galtza pare bat, kamisetak eta bestelako arropa txurro bat eginda aurkitzen ditu. Plas- tikoizko poltsa bat, bainuko gauzak gordetzen dituena, teklazko mugi-

korra, sakelako diru-zorroa eta ezagutzen ez duen hizkuntza batean idatzitako paper batzuk. «Edozein bidaiariak eramango lukeena», pentsatzen du errudun sentimenduarekin. Poltsa ixteko zorian dagoenean, alboko poltsiko batez ohartzen da. Eskua sartu eta paper lodi bat ukitzen du, poltsikotik azkar atera eta buelta ematen dio. Pixka bat gastatutako argazki horretan, Mahmoud ikusten da, haur bat besoetan duen emakume batekin. Biak irribarre egiten ari dira, oso zoriontsuak dirudite. «Ene... zer gertatuko zitzaien», deitoratzen du.

Bidaiaren azken zatia ere lotan igarotzen du mutilak; Marisolek, berriz, begiak errepidean josita gidatzen du. Musikagailua pizten du eta AC-DC entzuten da bolumen handian baina, zorionez, horrek ez du mutikoa esnatzen. Marisolek bere pentsamenduetan murgilduta gidatzen jarraitzen du, malko batzuk erortzen zaizkiola konturatzen den arte.

— Hurrengo jatetxean geldituko gara —esaten dio mutikoari, ez dio-la entzuten badakiela.

Gaua sartu da kamioia gelditzen denean; giltzen soinuak esnatu egiten du mutila. Eskailerak bizkor jaitsi, luzaketa pare bat, eta jatetxerantz abiatzen da Marisol mutila itxaron gabe.

— Andereño! —aditzen du bere atzealdean— Barkatu baina, uste dut hemen bananduko garela.

— Ez duzu afaldu nahi? —galdetzen dio harriturik.

— Ez! Nahiago dut nire kontura joan. Mila esker guztiagatik, gogoan izango dut bizi guztian —aitortzen dio sentimendu handiz.

Eta hori esanda, buelta eman eta gauaren erdian desagertzen da. «Agur... ondo ibili», xuxurlatzen du Marisolek ilunpera begiratzen.

Behin jatetxean, ezin dio begiratzeari utzi mutila desagertu den apartalekuaren inguru ilunari. Mugikorra hartzen du, eta semearekin eta senarrarekin duen argazkia aztertzen geratzen da. «Gabon. Asko zaindu, maite zaitut.», idazten dio bakoitzari. Segituan, galtza bakeroaren poltsikotik ateratzen du Mahmouden argazkia. Hiruen aurpegi zoriontsuak begiratzen ditu minutu batzuez, errukior baina aldi berean tristuraz; eta berriro begirada galtzen du iluntasunaren artean.



2023



SATARKA

1. SARIA

Gotzon Plaza Jaio

HEROIAK

I

Heroiak.

Akziaz beteriko filme faltsuetako heroiak.

Oskola baino ez duten heroiak.

Balentriaren balizko usaina
urrundik ezkutatu duten heroiak.

Bart, itxaropenez baraurik,
lar erabili gabeko ohearen estepa hotzean
sartu nituen haragi nekatuak.

Bart, egun berriaren jaiotzaren esperoan,
hamaikatxutan erabilitako amets onirikoetan
utzi nituen hasperen nekaturak.

Ortzia jaio da berriz
mundua orpoetatik loturik darraio,
biktimak ugari izango gara
maindire gabeko babeslekuetatik at.

Erlojuak borrreruaren kupida eza bera du
segundoek bizitza propioa deiadarka
aldarrikatzen duten honetan.

II

Igogailuaren atek ireki dira
infernuaren aho metalizatuen kirrinkan.
Kasik antzokiaren gortina gorriak balira bezala.

Nire takoidun zapaten hotsak
atxikirik daramatzat hirian.
Binaka, kasik arimaren taupadak balira bezala.

Gaueko ur putzu isolatueta
hausten ditut zeru grisaren erreflexuak.
Iluntasunean, kasik izarren adioak balira bezala.

Takoi-hotsak zutabe altxatzen dira
makillaje aztarnekin endredaturik.
Masailetan, kasik orbainaren seinaleak balira bezala.

Kalearen kondena-zigorrak atera dira
fikzioaren burdin kate ehunduak markatuz.
Gogoan, kasik bizitzaren penitentziak balira bezala.

Eta birikak estutasunean bizkortzen ditut
gonaren luzera eskuaren pareko dela ulertuz,
oraingoan ere, takoietatik gora datozkidan hotsak
kasik niretzat sortuak balira bezala.

III

Baina haur parkeetako koloreak dakuskit
iturri berrietako ur tanta gardenak
edo urtaroei darien
lurrin malenkoniatsuaren zaporeak.

Zabuetan kulunkatzen diren umeen
hanka hegalariai asmatzen ditut
gaurkoan nireak izango direlakoan.
Gora eta beherako bizitzaren birak
plazer handia sortuko baligu bezala.

Karriketan diren ikasleek
-unibertsitaterako autobusaren zain-
komentario biziak konpartitzen dituzte.
Biziak eta konpartituak, horretan datza
egunari exijitzen dioten funtsa.

Eta pauso azkarrez
egunaren olesak atzean uzten ditut
haietaz gogaiturik edo nekatu-
rik edo oka eginda nagoenaren nazkaz.

IV

Taxian sartu naiz aireportura iritsi nahian.
Agian, nire gogoak ihes egin nahi
edo korridore aseptikoetako hotzeriaren bila
edota gelaz, airez, hiriaz aldatu guran.

Poltso irekitik atera zaizkit
desio huraren aurkako aingurak:
etxeko giltzak, superreko deskontu txartela,
lagunen urtebetzeak seinalatzen dizkidan
tapa belzdun agenda txikia.

Zuhaitz errotua nintzateke,
sustrai erbesteratuak
nahiko lituzkeen sagarrondoak, akaso.
Bekatuaren zuhaitz debekatua
ostu beharreko manatuaren sarraila
jakia irentsi ondorengo lotsa.

Taxian erreparasatu ditut
ezpainetako koloretea
betazpietako sinadurak eta
gona formalean loratu zaizkidan zimurrak.
Bekainetako arkuaren koherentzia,
zintzilik eta zilar doinua
errepikatzen duten belarritakoen kadentziak.

Oro har, kanpo eitearen
oihartzun moteldua,
agiri ofizialetako argazki mortua,
zirkunstantzien arabera
segurtasun kameretan grabaturik
mantenduko den nire nortasuna.

Urrutian, ikusi baino lehen,
hegazti metalikoen barnean direnen aieneak
iritsi zaizkit entendimendura,
baina ia hogeituro ordaindu dut
taxiaren ate zuria itxi aurretik
eta arriskuaren aurrean, bakarrik,
igartzen ditut orain nire takoidun zapatak.

V

Bezperako iluntzean
autobus geltoki despertsonalizatuan
errendizio banderaren mugimendua
aitzakitzat hartu nuen.

Eta esnatzerakoan, adio gabeko gaua
seinalatzen duten oihal txatalak
batu ditut bilduma osotzeko intentzioarekin.

Linboaren magaletan naiz
albumaren karratuetan diren leihoetatik
begiztatu dut
ea munduaren lorratzak
hiri pasaia bukolikoa osotzeko gai direnetz.

Pobreziaren aberaztasunak,
baina gainezka diren
zakarrontzi estrategikoen edukiak
isurika izan ditut itxaropen bakarrak.

Kartografia ahaztuetan
meridiano eta paraleloen latitudeak
arakatuko ditut hodeien arteko espazioetan
hauek ere itxurazkoa direla jakin arren.

Heroiaren eitea osotzeko
–edo sikiera errutina infinituaren barnean–
argazki exotikoak errebelatuko ditut
beste batzuen asmoetan
epifaniak errebelatzen diren moduan.

VI

Eta bagoaz zoru agortutik gora
haririk gabeko kometak bagina legez
edo kontzientzia handirik gabe
jaurti diren hitz iraingarrien antzera.

Lokarriak tenkatu zaizkit barnetik
hauek ere berunezko beste aingura batzuk
begien aurrean flotatzen ari diren
beste akordu batzuen tematikeriak.

Trena hartzen ohi dut
bihar-etzi bueltan itzultzeko;
atzo adioa askatu nuen
gaurkoan agurra atxikitzeko.
Eta badakit, inoren laguntzarik gabe,
ihesaldi jardueretan
joan-etorrirako billeteak baino
ezin ditudala besterik erosi.

Heroiek, halaxe ziurtatu didate,
ez omen dute zalantzarik.
Haatik, eta itzuleraren zain,
bira berriak emango dizkiot
hatz artean daramadan billete xumeari.

AMONAREN EGUZKILOREA

Irratiarekin esnatu naiz. Aitatzok asteburu guztietan ipintzen du goiz-goizetik. Musika saio bat entzuten du, beti berdina. Eta nik uste dut nahita jartzen duela, ni esnatzeko.

Abestia gustuko ez dudanean, amorraturik esnatzen naiz. Gaurkoa halakoxea da, melodia itsusia du eta erritmo biziagia goizeko ordu hauetarako.

Muturtuta jaiki naiz. Sukaldera hurbildu eta beti bezala, aitatzok ikusi dut ipurdia mugitzen gosaria prestatzen zuen bitartean. Ez dakit zergatik errepikatzen duen erritual hori, ez al da ohartzen erridikuloa egiten duela? Lotsa pixka bat ematen dit aitatzok horrela ikusteak, baina oso barregarria da. Zein traketsa den dantzan!

-Egunon maitia, ondo egin al duzu lo?

Ez diot aitatzok ezer esan nahi, baina gaur ere otso beldurgarri horrekin amestu dut. Baiezkoa erantzun diot eta mahaian eseri naiz.

Amonaren etxea ez dago herrian bertan, mendi magalean dago. Bertatik herri guztia ikusten da, baita gure etxea ere! Aitatzok esaten dit, haundiagoa izatean oinez etorriko garela amonaren etxera. Baina oraindik txikia naizenez, kotxez etorri gara.

Amonak lorez beteta dauka etxea, lehiotan lihoak dauzka, atarian bi lorontzi haundi tulipa lorez gainezka, sukaldean kala zuri eder batzuk dauzka, egongelan jasminkak eta petuniak, eta balkoian kolore guztietako geranioak, krabelinak, hortentsiak... Etxe honek lorategia dirudi!

Baina, niri gustatzen zaidan lorea, lore bitxia da, amonak etxeko atean dauka zintzilikatuta. Eguzki-lorea deitzen da, eta amonak esaten du lore horrek gauza txar guztiak uxatzen dituela.

Etxearen atzealdean baso oparo bat dago. Behin amonak esan zidan eguzki lorea basoa zeharkatu eta gero dagoen belardi batean bildu zuela. Baina txikia naizenez, oraindik ezin dut bertara joan.

Bisitan etortzen garen aldiro bezala, amonak ureztaontzia eman dit. Esan dit loreak triste xamar esnatu direla eta ura behar dutela poztu, eder eta lirain egoteko.

Egongelako jasmink urdinak ureztatzen hasi naiz. Uste dut amonak ez duela ondo ikusten, zeren eta niri beti bezain eder eta osasuntsuak iruditu zaizkit loreak.

Bitartean, sukaldeko atea erdi irekita zegoela aitatzko entzun dut amonarekin hizketan. Esan dio gaur ere otsoarekin amestu dudala eta ohean bueltaka ibili naizela. Kontakatilu bat da! zergatik demontre kontatu behar izan dio amonari kakati bat naizela?

-Dagoeneko 7 hilabete pasatu dira helikoptero istripu ditxosozko hori gertatu zenetik, eta oraindik amesgaiztoak ditu egunero.

Amonak muxu eman dio aitatzori eta egongelan sartu da. Sofan eseri da eta bere magalean esertzeko keinua egin dit. Niretzako oparia duela esan dit, mahai gainean dagoen otarra hartu eta eguzki-lore bat atera du barrutik.

-Atzo mendi buelta bat egitera joan nintzen eta, ara! Begira zer aurkitu dudan. Zuretzako da maitia, lore honek gauza txar guztiak uxatzen ditu.

Bi oparirekin bueltatu naiz etxera, eguzki-lorearekin eta amonak ma-sailean emandako muxu goxoarekin.

Etxera iritsi gara, eta ezer baino lehen, eguzki-lorea etxeko atean ipini dugu. Aitatxok aulki bat jarri du nik zintzilika dezadan. Txikia naiz, eta oraindik ez naiz iristen. Gure etxea ez da amonarena bezain loretsua, baina lehen baino askoz ere politagoa dago orain.

Bazkaldu eta gero, goiz atera gara kalera. Gaur, erdi aroko azoka dago herrian. Arratsalde osoa pasa dugu kalean gora, kalean behera, postutxo eta denda guztiak miatu eta janari mota ezberdin guztiak probatuz. Gainera, buztinezko katilu bat egin dut, eskolako lagunekin topatu naiz eta joko arraro batzuetara josten ibili gara.

Konturatu naizenerako, etxera joateko garaia da. Aitatxori eskatu diot pixka bat gehiago gera naitekeen eta beti bezala, bekokia zimurtu eta gero, 5 minutuko epea eman dit jolasean jarraitzeko. Azkenean ordu erdi pasa eta gero joan gara etxera, baina aita pozik ikusi dut.

Oinez joan gara etxera, ez dago amonarena bezain urruti. Eguzkia beherantz doa, eta ilargia ikusi dugu beste aldetik ateratzen. Otsoarekin gogoratu naiz eta korapiloa sentitu dut sabelean, baina oso ondo disimulatu dut eta aitatxo ez da ezertaz ohartu.

Dutxa bero bat hartu eta gero oilasko goxoa afaldu dugu. Amonaren oilaskoa goxoagoa da, baina aitak esan dit geroz eta goxoagoa egiten duela. Niri ere hala iruditzen zait. Afaltzen bukatzerakoan hortzak garbitu ditugu.

Aitak musu eman dit, mantarekin goxo-goxo estali nau, eta amets politik opatu ondoren, argia itzali du. Gustatzen zaidan bezala, gelatik atera denean atea erdi irekita utzi du.

Ordu erdi pasa da eta ezin dut lorik egin, bueltaka ibili naiz ohean lasaitu ezinik. Ez dut onartu nahi baina beldurra ematen dit lo hartzeak. Aitatxok zerbait igarri du, gelan sartu eta nire ondoan eseri da.

-Zer duzu maitia? Ezin duzu lorik egin?

Urduri jarri naiz, zeren eta ez nion ezer esan nahi aitatxori. Esfortzu handia egin dut nire barrenak baretzeko. Baina ez dut lortu eta zotinka

onartu diot aitaxori otsoaren beldur naizela, eta ez dudala otsoak ni jatea nahi.

-Lasai maita, begira zer ekarri dudan. Honek beldur guztiak uxatuko dizkizu.

Eguzki-lorea eman dit eta bigarrenko muxu bat eman ondoren, atea erdi irekita utzirik joan da.

Begiak itxi eta baso batean aurkitu naiz. Ilun dago, haizearen uluak bazter guztiak astintzen ditu, hostoak airean barreiatuz. Ikaratu egin naiz, baina behera begiratu eta eguzki-lorea ikusi dut nire eskuetan.

Amonaren hitzekin akordatu naiz eta adorez bete zait barrena. Oin puntetatik hasi, belaunetatik jarraitu, sabeletik igaro eta buruko iletaraino sentitu dut ausardiaz beteriko kitzikara bat. Hazi ere egin naiz, aitaxoren garaiera lortu dudan arte. Sentimendu horri eutsi diot eta baso ilunean sartu naiz. Bai, otsoaren bila noa gaurkoan, ez dut gehiago izutzerik nahi.

Iluntasunean murgildu naiz, zuhaitz adaxkak *krax-krax* egiten dute oinekin zapaltzen ditudanean. Haizeak mototsa astintzen dit alde bate-tik bestera. Baina basoan aurrera jarraitu dut.

Argi izpi bat ikusi dut zuhaitz ilunen artetik nigana hedatzen. Pentsatu dut otsoa han egongo dela. Gaur ez nau izutuko otsoak, gaur ez. Eguzki-lorea esku artean estutu eta ausardiaz beterik argirantz abiatu naiz. Pauso bat bestearen atzetik eta beste pauso bat aurrekoaren ondoren.

Azkenean, basoaren barrenean, zuhaitzez inguraturiko egurrezko etxetxo bat ikusi dut. Pentsatu dut otsoaren etxea izango dela eta hurbildu egin naiz. Bat-batean leihoetatik ihes egiten zuen argia itzali egin da, eta ilunpetan geratu naiz. Atera hurbildu eta hiru kolpetxo eman dizkiot *kax-kax-kax*. Ez du inork erantzun. Berriro jo dut atea eta oraingoan ere ez du inork erantzun.

Leihora hurbildu naiz. Bai, orain handia naiz eta ondo iristen naiz begiratzera. Begia leihoko kristalean itsatsi dut eta orduantxe ikusi dut

otsoa kanporantz begira, niri begira. Urduri zirudien zeren eta ikusi nauenean, korrika batean sukaldeko mahai azpian ezkutatu da.

-No-no-nor zara zu? Utz nazazu ba-bakean! Joan nire etxetik arren!

Otsoa beldurrez ikaratuta dago, nola liteke?

-A-a-alde hemendik!

Otso gaixoa hain ikaratuta ikusi dut zeina atsekabetu egin naizen. Ez dakit zergatik, baina norbaiten antza hartu diot otso gixajoari.

-Lasai otso, ez dizut ezer egingo, nolakoa zinen, zein itsura zenuen jakin nahi nuen, besterik ez. Lasaitu zaitez.

Otsoa ordea nahiko mesfidatia da, eta kosta egin zaio niri sinistea. Azkenean leihora hurbildu da eta aitortu nau beldurrez ikaratuta dagoela.

-Basoa oso iluna da eta oso arriskutsua, piztia asko daude bertan. Hemen nagoela ohartzen badira akabatu egingo naute.

Otso gaixoa, nik uste nuen izaki beldurgarri bat zela, eta koldar gizajo bat besterik ez da. Pena handia eman dit.

-Begira otso, ikusten al duzu lore hau? Lore hau eguzki-lorea da eta oso lore berezia da. Lore hau etxeko atean jartzen baduzu, gauza txar guztiak uxatuko ditu, baita basoko piztia guztiak ere. Tori, nik jada ez dut eguzki-lorearen beharrik. Oparitu egingo dizut.

Otsoari lasaitu ederra nabaritu zaio aurpegian. Eguzki lorea atean zintzilikatzen lagundu diot. Oraingoan ordea ez dut inolako aulkiren beharrik izan. Handia naiz.

Abesti batek esnatu nau. Gaurko abestia gustatu egin zait, melodia oso polita zuen eta erritmo lasaia.



2024



SATARKA

1. SARIA

Rakel Pardo Perez

DEIADARRAREN ANTOLOGIA BAT

Iragana da orainaren eta geroaren deiarra

Kuttune

l. Hezetasuna

Ahotsa eta hotsa,
ahotaraka edaten den izena,
iturriaren hoditeria zabalkunde
- ala itxiera - .

Nekez iragaten da uraren gardentasuna
ilun den zulo horretan,
esanahiak ihes agiten dio
proiekzio batean dabilen gramofonoari,

ez al dio inork soinurik aurkitu?

Entzuteko behar ornen da ere
abstrakzioa:
hitzaren hezetasuna,
barrunbeen bustitzea.

II. Munduak zalantza bati erantzuten dio

Askotarikoak dira hotsak ahots bakarrean.
Askotarikoak hitzak fonema soilean.
Ugariak intziriak begirada iheskor batean.

Hotsaren mugagabetasunak
muzin egiten dio gaurko hertsadurari.
Gorputzetik adierazlera.
Materiak, harremanek, zantzuek ere
badute esanahiaren hizpiderik
-hala erranen luke Lacanek - ,
Nola eman edukia soinuari
hustutako ahotsen mugarrietan?

Nor mintza daiteke mintzoaz?

Zein gerizetan ote dago
lengoaiak ezkututzen duena?

III. Paretan goroldioa

Lubaki bat inkontzientean.
Edo lubakian inkontzientea.

Oin-puntetan hurbildu zara
ezjakintasun osoko elementura,
harri bati ostiko eman eta
tabula rasa bat sinatu duzu, jakin gabe.
Amildegian ez da sostengurik ikusten.

Euskarria
 behatzen duenaren begirada da.

Nola bete edukirik gabeko edukia?

IV. Zildaia

Ez gaitu hotsak mendean hartzen,
isiltasunak eta haren mugek baizik.

Herioa ez da bizitzaren ifrentzua,
bizialdiaren zentzu-emaile baizik.

Irastortzak aipatzen duen “De(n) huts”,
ezerezetik datorren lengoaia, izena,
izen datzetik salbu geratzen dena,
esanezina, soinuaren mendoitza,
izatea,
esatearen zildaiak askatzen duena.

V. Oztopoa

Ahotsaren arrastoa lazgarria da,
joatea joatean
joango baita oraindik badena,
oihartzunaren azken egoitza - bizilekua - ,
eta ondoren, zer?

Eta aurretik?

Ahots-korden dardarari segika
esku birekin seinalatu dut soinuaren
norabidea, begiak erdi itxita,
u rrutiratzen
soma dezaket.

Ez al da hotsa,
ahotsaren oztopo bakarra?

Nekez mam itzen da bat heiagoran.

Ahots bat,
iragankortasunaren ausentziatik sortua.



SATARKA / Hondarribia

2. SARIA

Maria Ainhoa Aranburu Puente

KUKUAREN KANTOREA

*Kukuaren kantorea “Kukuak kantatzen du lau kolpe aldiko:
kuku-kuku... kuku-kuku”*

I

Hiria hotz, goiz-alba beltz
seiak jada iratzarri
jaiki jantzi komunera
gorputza lo, sena esna
beste gelan txikitxo
beregana zoaz zuzen
besoetan hartzerako
dantzan biak jira-biran
luze gabe titia eman
tarte batez, bat hartuta
ama-alabak zeru mugan
argitu du: sei t’erdiak
“mugi zaitez” zure artean
trago batez kafe hutsa
zintzurretik pasaraziz
sukaldean zaude zutik
beste egun bat leiho ertzean

II

Haur txikia aukitxoan
bil-bil egin, bapo-bapo
kalerako prest zu ere
negua da euria ari
hortxe dator autobusa
goizeroko bide bera
helmugara iritsita
kilometro bat korrika
oinez ume-karraioan
azkenean lortu duzu
etxetik hain aparteko
hiribarruko auzoan
oraindik ZU den ninia
erauzi eta uztea
debaldeko zerbitzuan
edukiontzi baino ez den
haurtzaindegi arrotzean

III

Berriz ere autobusa
kale plaza hiribide
bat bi hiru lau bost sei zazpi...
azkenurren geltokian
zurea ez bezalako
auzune bat, dena txalet
arnas estu, bare minez
maldan gora tarrapatan
zurearen antzik ez dun

etxe on bat aurrez aurre
txirrina jo eta bertan
zu ez lako andre batek
atearen bestaldean
lehor ta hotz, hitzez urri
egun ona opa dizu
bero beharrean, horma
ez irri, ez keinu, ez deus

IV

Zu etorri zain, esperoan
kalerako amorratzen
horren luzaz egon denak
bildu ditu eta badoa
denak berekin hartuta:
larruzko jaka marroia,
sakelako smarphona,
Jaguar baten irudia
daraman autoko giltza,
eta poltsan, kirten luze
teniseko erraketa,
gero "aio, iluntzean
itzuliko naiz etxera"
bota dizu harro haizez
presa baleuka bezala
zure mina zein ote den
usaindu ere egin nahi ez-ta

V

Eskailerak banan-bana
kostata igo dituzu
saloiaren beste aldeko
logelako ateraino
eta bertan, isil-isilik,
zurea ez bezalako
azal zuridun umea
sehaskan goxo datzana
besoetan hartu eta
berez hain bestelako
zure amaren hizkuntzan
hortxe hasi zatzaizkio
kantu ta hitz, muxu ta hots
tristura itogarrian
eztarria korapilo:

***“nini, matte, bai pottolo
kuku-kuku in duxu lo?”***



BORDARI

1. SARIA

Imanol Sorondo Baltasar

GARBITZAILEA

Itzulingurutan ez ibiltzearren, laburtuko dut esanez garbiketa sektorean aritu izan naizela beti. Gogoan dut, jakina, nire lehen garbiketa. Baina ordurako lardaskatzen ibilia nintzen, aspaldi, garbiketa tresna eta teknikekin. Ongi zihoakidan garbiketari, utzi eta joan behar izan arte.

Dirurik gabe ia. Herrialderik aberatsenera. Lanera. Lan erraz batera.

Konplexuagoa zen Bergenera -eskalak tarteko- baina, Bilbotik Oslora, larunbatero zegoen hegaldia. Telemark hor nonbaiten zegoen, erdibidean ez bazen ere, tartean. Jakina izango zen, ez niretzat bederen, Telemark ez zela telebista marka Norvegiar bat.

Orduan ez zitzaidan astakeria iruditu, ez zela marka, alegia, Telemark hura, Norvegiako tokia baizik. Engainagarriak izan daitezke hitzak, ez da haien errua, suposatzen dut. Ez hitzen errua ez eta Norvegiarrena ere. Tokiari izena jarriko zioten telebistak asmatu baino lehen, suposatzen dut. Edo telegrafoa eta telefonoa asmatu baino lehen. Tele - mark. Zentzuzkoa iruditu zitzaidan, hala ere, telebista marka bat izatea. Oraindik dirudit.

Ez nuen geografia askorik ikasi eskolan, ez eta hura utzita ere, egia esan. Ez dut uste eskolan Telemark ikasten denik. Ikusteko tokia izan arren. Ez DBHn, ez nik behintzat. Gero, ez dakit. Hezkuntza sisteman ikasitakoak eskolako jolastokian ikasi nituen nik, batez ere. Jolastokian

bai, baina hesiaren kanpoan zeudenengandik. Utz dezagun eskola garaia, momentuz bederen.

Ez nuke inoiz pentsatu izango Euskal Herritik kanpora lanera joan behar izango nintzatekeenik, migratu behar izango nukeenik, hitz batean. Ez ditut migranteak oso gogoko. Kanpokoak. Euren hizkuntza eta jazerekin. Urduritzen nau ez ulertzeak. Adi jarrarazi. Nik lana banuen Euskal Herrian, ez jarraia. Kontraktu gabekoa, baina egonkorra. Aldizkako langile finkoa nintzela esango dut, laburtzeko, erabat zehatza izan ez arren.

Utz dezagun nire garai hartako lan egoera, momentuz bederen.

Amaitu zen, bada. Lana. Eta hasi zen, langabezia.

Ongi prestatzen nintzen lanetarako. Huts egitea saihesteko moduan. Hala uste nuen behintzat.

Lanik gabe geratu nintzen, akats larri baten ondorioz. Nire lanean, larria da akats oro.

Lanik gabe geratutakoan, langabezian geratzen zarela jakina izango zen, ez niretzat ordea.

Umetatik aritua nintzela lanean ohartu nintzen, lanik gabe geratu nintzenean, ordea, ikasi eta bizi izan nuen zer den langabezia. Lan gabezia.

Jausiz gero, zaila da gora itzultzea eta zaila behean ibiltzea ere. Zaila.

Lan handitan ezaguna. Nire sektorean. Ezagunegia lan txikietan aritzeko. Ostrazismora zigortuta. Nire sektorean.

Norvegiatik eskaini zidaten lana orduan. Norvegian lan bat eskaini zidaten, zehatzago esanda. Lan erraza. Erraz samarra niretzat, Euskal Herrian. Lana, Norvegian. Norvegia ez da Euskal Herria. NO ez da EH.

Euria egiten du NON, EHn bezala. Oso berdea da NO, EHren antzera. Garestia da NO, EH den moduan.

Baino gehiago. Dena da gehiago, NON. Norvegian.

Oso berdea zegoen NO ni joan nintzenean. Abuztuaren amaiera. Oso hilabete polita, EHn. Oso egokia, langabezian ez bazaude.

Mapa erosita ere, ez nintzen ohartu Telemark ez dela herri edo hiri jakin bat. Oslotik Telemarkera, Donostiatik Tuterara bezalatsu.

Baino gehiago. Norvegian dena delako gehiago.

Zaila da, izan ere, Norvegia kilometrotan neurtzea. Zaila, engainagarria eta alferrikakoa.

Norvegia ordutan neurtzen da, koroatan, metro kubikoetan.

Hegazkinez, akaso, lerro zuzenean balihoaz. Baina hegazkinak, uste nuenaren kontra, ez doaz lerro zuzenean. Ez eta barkuak ere. Arku harriarriak marraztuta doaz, antza. Airetan, uretan.

Berdin zaizkit, orohar, hegazkinak. Barkuak, ordea, ez ditut gustuko.

Eta NON barkuak daude nonnahi, EHn bezala. Baina barruan. Norvegia barruan. EH barruan ez dago kasik barkurik. Nik uste. Dauden gehienak, txikiak. Nik ez nekien urez betetako horrenbeste zulo zituenik Norvegiak. Zuloetan, barku txikiak, handiak eta izugarriak daude, zuloak urez beteta daudelako Norvegian. Ur piloa. Barku piloa.

Agian, Norvegia ikasiko genuen eskolan, ezin ukatu, baina ez dakit. Europako mapa mutua koloreztatu eta hiriburuak ikasi. Urez beteta dagoela. Baliteke. Baina ez omen zuen nire arreta jaso. Nire jakinmina. Ez zuen jaso. Gehiago gustatuko zitzaidakeen Suedia. SE. Ez dakit zergatik. Marka ezagunak dituelako Suediak, agian. Telemark ez da marka bat. Ez dago Suedian. Ez dago SEn.

Nolanahi ere, gertatutakoa berdin gertutuko zitzaidakeen Suedian, akaso. Behintzat Goteborg eta Malmoe ezagunak egiten zitzaizkidan. Ez Telemark.

Bergenetik joatea erabaki nuen. Eskalekin, derrigor.

Ez ditut larunbatak gogoko, jende gehiegi. Ez ditut hiriburuak gogoko, jende gehiegi.

Oslori buruz ez dakit ezer, ez bainintzen heldu.

Ez naiz hiri askotan izan, inoiz ez oporretan. Oporrik ez dut egin izan. Nire sektorean ez dago. Soilik lana, edo langabezia. Aldizkako langile

finkoa izanik, nolabait esateko. Egondako hirietan ikusi dut jendea za-borrontzietan arakatzen. Salbuespenik gabe. Estazioen inguruan, no-rabaitera bailjoaz, inora joan gabe. Beti abiatzeko. Hori da, niretzat, langabezia. Gero jabetu nintzen, hori izan litekeela niretzat, aukera erreala, langabezian.

Horregatik abiatu nintzen Telemarkerantz. Non eta zer zen jakin ga-be. Langabeziari ihesi.

Bergen. Aireportu txiki eta lasaia espero nuen, joan-etorri urriekin. Bergen. Nor doa Bilbotik Bergenera, pentsatu nuen, eskalekin gainera. Zertara.

Bai, harrapatu duzu, honez gero: jende dezente doa abuztu amaieran. Turistak. Moila inguruko etxola handi itxurako biltegiak ikustera. Bilte-gi izandakoak, hobeto esanda. Dendak dira orain.

Bergenetik Telemarkera, Tuteratik Santanderrera beste.

Baino gehiago. Areago, oraindik, Norvegian dena delako gehiago, ferryrik hartu ezean bereziki.

Ferryak noiznahi hartzen dira Norvegian, ia nahi gabe. Bihurgune ba-ten bueltan, deskuiduan, edo zuzen-zuzenean. Atasko txiki bat, txaleko errelektantedun langilea, arkua, barkua. Eta ferryan zaude. Atzera egi-terik ez. Akats larriekin gertatu ohi den bezala, ferryekin ere. Atzetik baituzu, berehala, kamioiaren edo akatsaren mamu astuna aurrerantz bultzaka.

Gidatzea dut gustuko eta ez naiz oso peaje zalea. Antzeman liteke. Ez naiz oso autopista zalea, ondorioz. Natura ikusgarriaz gain, Norve-gia zoragarria da horretan. Ez baitago gidatzen oztopo egingo dizun ordainlekurik. Ez ditut irteerarik gabeko tokiak gustuko. Ferryak. Ber-tan zaudela, ferryan, ez duzu ospa egiteko aukera askorik. Agintzen du, ferryak. Saiatzea, alferrik. Ezingo nuke ferryetan lanik egin. Ezingo nuke ferryetan nire lana ongi egin. Nire sektorean aurrera begira joan behar da, atzera so egin gabe, nahastu gabe. Ezin dira etorkizuna eta iragana nahastu. Denborak lerro bakarra du, ferryetan ez bezala. Atik Bra eta Btik Ara. Berdinak direlako zia edo boga. Ferrytan. Bi punturen

artean mugitzen baitira, etengabe. Iragana eta etorkizuna eternitatean lotuz. Amesgaiztoetako matematika-ariketa bezala. Zirkularra. Soluziorik gabea. Eroa. Sukartsua. Elkarri agur esaten diote ferryek gurutzatzean, hala iruditzen zait niri. Ferry berri berriak, berdin berdinak. Txopa eta branka, igualak. Bata bestearen ispilu. Elkarren ondoan gauean, auskalo, albo alboarekin errutinaz igurtziz, egunean zehar batera eta bestera, bakoitza berera. Bikote monotono, fiordo hotzetan isilik. Ferryetatik ezin da nahi denean atera. Ferryetatik ezin izaten da norberak nahi nuenean atera, irrikan egonda ere. Ez nik ez eta beste inork ere. Norvegiatik ezin aterako naiz, nik nahi dudanean. Langa ireki arte, nolabait esateko.

Utz dezagun nire egoera administratiboa, momentuz bederen.

Barkuekin legez, ez naiz oso banku-txartel zalea. Nahiago dut eskudirua. Nahiago dut cash.

Norvegian desagertzeaz dago. Eskudirua. Muzin egiten diote Norvegiarrek, gazteek bereziki. Zikina delakoan-edo. Jakizu. Asko dute, bertuala. Eskudirua gogoko ez balute bezala jokutzen dute, ordea. Nik oso dut gogoko, eskudirua. Bertan duzu, zalantzarik gabe. Duzunean. Zengabagarria eta testuraduna. Ez nuen dirurik eta Norvegiara joan nintzen, bila. Buelta galanta.

Koroa, euroa, dolarra. Dibisa-trukearen garrantzia. Koroa mordoa, bai. Eta erraza, lana. Antza.

Unitateen garrantzia. Fisika-kimika eta ni. Espero zitekeenez, hutsaren hurrengo harremana.

Kilometroak, miliak. Eskalak. Ez Bergenerako eskala, tamainarena baizik.

Kimikatik nengoke hurbilen, akaso. Nire sektorearen azpisektorea. Baina ez da niretzat. Kimikaren azpisektorea. Horretan ez nebilke eroso. Mantsoegia da prozesua.

Nahiago dut prozedura fisikoa, mekanikoa.

Di-da. Mugimendu zehatz eta azkarrak. Erdibideen agoniarik gabe.

Agonia kimikorik gabe. Agoniarik gabe orohar, ahal bada. Ez da ona, negoziarako. Akats larria da agonia mekanikoa. Beste akats guztiak bezala, agonia. Ongi eginez gero, garbiagoa, jasangarriagoa, negozioia.

Norvegiarako, neurri neurrikoa. Utz dezagun nire jarduera-sektorea, momentuz bederen.

Norvegiako neurriak, berriro.

Norvegiarrek ez bait dituzte arauak urratzen. Neurriaren konzientzia miresgarria dute.

Halakoa muga, halakoa abiadura. Hala araua, nola jokabidea. Eta kitto.

Zaila da errepidean aurreratzea. Norvegian. Estuak baitira, errei bakarrekook, orohar.

Ezaugarri interesgarri gehiago dituzte. Atsedenguneak ezezik, fruta-saltoki etxolatxoak ere badaude, bazterretan. Aranek salgai. Gereziak. Kiloa, horrenbeste kr. Paper batean idatzita.

Zaindaririk gabe.

Fruituak poltsetan, plastikozko ontzitxoetan. Terrinetan. Supermerkatuan bezala, baina bide-ertzean. Kaxa bat diruarekin, hortxe. Hartu fruta, kontuak egin, dirua kutxan utzi, bueltak hartu eta ospa. Zaindaririk gabe.

Pagotxa iruditzen hasi zitzaizkidan, ferryetako aztoramendua eta abiadura mugak ahazteko moduan ia-ia, Norvegiako errepideak, atsedenguneak eta zaindu gabeko fruta-saltoki etxolak bazterretan.

Norvegian edozein txokotan igaro daiteke gaua. Bazenekielan suposatzten dut. Kotxean, kanping dendan. Nik banekien, esan zidatelako, joan aurretik. Ongi zetorkidalako. Peajerik ez egotea bezala. Baina ferryak daude eta eskudiru gutxi. Norvegia ez da uste bezain perfektua.

Fruta erosteko eskudirua behar da, bide-ertzeko zaindugabeko saltokitxoetan.

Erosteko bai. Besterik gabe eramateko, ordea, ez da eskudirurik behar. Zaindaririk ez dagoelako. Lapurretarik ez badago, zertarako zaindaria? Logikaz betea.

Horra nire paradoxa.

Eskudirua behar nuen transakzio bakanetakoan, nik, eskudirua dudala maite, ez nuen erabili. Dirua maite dudalako. Kontzeptua, eta taktua.

Gereziak musutruk, ahabiak. Zaindaririk ez. Ez nituen oso gogoko izan, Norvegiako gereziok. Bai ordea ahabiak. Delikatuak. Hatz mamiak gorritu egiten zaizkizu ahabiekin. Eskuak odoleztatu antzera. Norwegian. Lan erraza.

Filmaren batean entzunda neukan ahabi marmelada, akaso. Ahabiak terrinatan, Norwegian. Ikusten nituen lehenak. Zaindaririk gabeko lehenak, ere. Usain askorik ez dute Norwegian, ahabiek. Zelai batzuk josita daude, ahabiz.

Goroldio eta liken alfonbrak dira, Norvegiako zelaiak. Lodi-lodiak. Miniaturazko basoak dirudite lurrean belaunikatu eta begiak lurrera hurbilduz gero. Ez nuke nire laneko labana bertan hondoratuko, inolaz ere. Begirunea sortzen zidan negu bat bestearen atzetik jasandako eta mantso hazitako geruza zahar lodi horrek.

Errepide bazterrean makurtuta. Lurrari so. Lan erraz baterako bidean.

Ahoa eta eskuak gorritzatuta, lanaren arestian, ahabi zukuz.

Iritsi nintzen azkenean, Telemarkera. Ezleku batean tinkatutako Telemark zioen seinale batera.

Ilargira heldutako lehenen antzera sentitu nintzen Telemark hura irakurtzean. Handik zebilen bigarrena nintzen, gutxienez. Txartela jarriz zuena, lehena.

Telemark ez da leku jakin bat. Orduantxe ikasi izan nuen, eskualdea dela.

Euskal Herriaren antza du. Pinuak. Urkiak. Mendiak. Ura.

Baino gehiago.

Hala, Telemark ez da toki konkretu bat. Aurrera jarraitu nuen, gelditu gabe. Zertarako gelditu ezleku den leku hartan.

Ez baitago kalerik, plazarik, bere udaletxearekin. Eskualde bat delako. Sakabanatutako etxola eta skiestation askorekin. Ikusi orduko ikara sortu zidaten zurezko eliza beltzekin. Lore gorritz apaindutako zimitorioak. Norvegian. Ikusten nituen lehenak, ez beste inon.

Bikingoekin zerikusia omen dute egurrezko eliza txiki, beltz, zirraragarri horiek. Alkaterna usain sendoa dute. Alkaternaz belztuta, usteldu ez daitezten. Ia mila urteko elizak. Egurrezkoak. Usaintsuak.

Egurrezko etxe gorri, urdin edo berdez zipriztindutako kalerik gabeko herrisketan.

Etxola itxura dute Norvegiako errepedeatatik ikusi nituen etxe gehienek. Egurrezko hormak. Arbelezko teilatuak, edo ondulatuak edo belarrez estalitakoak.

Egurrezko hormak, ia beti. Etxola itxurako etxeak, ia beti.

Ura izateaz gain, zura da Norvegia. Pinuak, izeiak, urkiak. Asko. Ura, zura.

Ez dira beltzak, eliza guztiak. Egurrezkoak izan daitezke, asko. Gehienak apika. Baina beltzak, gutxi batzuk soilik dira. Ospetsuenak beltzak izan arren. Turistek bisitatzen dituztenak. Ni lanera joan nintzen, lan erraz batera. Ni ez nintzen turismo egitera joan. Eta ikusitako eliza beltz usaintsu bakanek beldur apurra sortu zidaten. Ez nintzen gartzeko asmotan joan. Gerta liteke Norvegiatik ezin atera izana, nahi denean. Eliza horietatik dirudi, ezin izango duzula atera. Ez nintzatekeen barruan sartu izango, behar beharrezkoa izan ez balitz. Oso ilunak eta beldurgarriak iruditu daitezke.

Zaila izaten ari da, Norvegiatik irtetea. Niretzat bederen, bada..

Sartzeko ala irteteko pasaportetik behar ez den bezala, koroak behar dira denetarako, Norvegian. Kr-ak, Norvegian. Errepide bazterrean gaua egiteko salbu, ez koroarik ez baimenik. Lege berezia dago, aintzinakoa, hala baimentzen duena. Ikus dezakezun polizia gutxia zuri arretarik eman gabe igaroko da, itxuraz behintzat. Auto batean edozein bide bazterrean lotan ikusiz gero, gau izan ala egun.

Lege berezia. Jakinmina nuen, Norvegiarrei ezin gauza handirik galde-tu, baina. Ingelesez ezinobe dihardute, antza. Nik ez. Gogoan dut eskolako ingelesa. Bai, bagenuen ingelesa, eskolan. Ez nire interesekoa, ezta ere. Gaitzerdi, dena dela, egin behar nuen lanerako, ingelesaren premia handirik ez, ez eta norvegierarena ere. Lan erraza. Kr asko. Kr-ak.

Lan erraza , ohituta nengoenerako. Ingelesik ez. Hitz egin beharrik ere ez, gauzak ondo bidean.

Ingelesa behar izan balitz ez litzateke jada erraza izango, ez niretzat.

Eskolako hesiaz bestaldekoekin aritzeko ere, ingelesaren beharrik ez, jolasgaraian zein bestela, nahikoa gaztelera, euskara ere soberan, egia esan. Hori izan zen nire eskola. Hesiaren bestaldea, diot. Etxetik nintzen euskalduna, nekez bestela. Norvegian, ezer gutxirako euskara, nik dakidala. Euskarari ez, baina, Norvegian, garrantzia handia ematen zaio eskolari, abuztuaren amaieran jada, eskolara doaz umeak. Eskolatik ere ezin da atera, nahi denean, ihes eginez baino.

Hitz gutxikoak eta aberatsak, umeak eta helduak. Ez dira beti hala izan, aberatsak. Pobreak ziren lehen, dirutan. Hitz gutxiko arrantzale zailduak, hitz gutxiko abeltzain sendoak. Euren zelai lodien paretsu. Suposatzen dut. Elur-orein, izokin, bakailao. Bai, ez, ez dakit. Hitz gutxikoak. Eta kitto. Petrolioia dute orain. Hitz gutxi eta zehatzekin topatua, seguruen.

Ordainetan, trebeak omen dira eleberri beltzetan, nobelagileek erabiliko dituzte gainerakoei soberan geratutako hitzak. Eleberri, eliza eta aberastu zituen petrolio beltzak. Ez gorriak. Hatz mamiak eta ahoa aha-biak lurretik bildu berritan jan ondoren bezala.

Zubi, tunel eta ferry berriak, berri berriak.

Tunel batzuk uraren azpitik igarotzen dira. Itzelak dira Norvegiako tunelak.

Bizitzaren zati bat iraun dezakezu Norvegiako tuneletan, zati esanguratsua. Eta ferryetan.

Itsasoan topatu zuten petrolioia eta aberastu egin ziren, arestian esan dut. Berrito diot, azpimarratu nahi dudalako.

Harrigarria edo garrantzitsua iruditzen zaidana azpimarratzea dut gogoko.

Petrolioia salduz egin omen dira aberatsak. Auto elektrikoek erabile-
ra sustatzen du gobernuak. Auto arrunta alokatu nuen, barruan lo egi-
teko adinako luzea, baina arrunta. Ez elektrikoa.

Beraiek petrolioia saltzen dute. Norvegiarrak ekologikoak eta mo-
dernoak dira. Gutxi kutsatzen saiatzen dira. Akaso horregatik dira hitz
gutzikoak. Garbiak direla esan daiteke, baita ere. Ni garbiketa egitera
etorria nintzen, lan erraza. Askorik ez zikintzea espero nuen. Eta garbi
irtetea, jakina. Garbiketa egitea erraza omen zen Norvegian.

Izan ere, uste onekoak dira. Autobusetan tiketa daukazun plantak
egin ditzakezu, txoferrak onespen keinua, eta barrura. Trenetan ere,
berdin. Ez dago tornurik, ez da tiketik balioztatu behar. Ez duzu zain-
tzailerik, ez gaizkilerik, begibistan. Ikusi arte. Primerakoa, nire sekto-
rerako.

Tiketik gabe zoazela zaintzailea badator, hitz gutxiko arazo zehatza
duzu Norvegian. Garbia.

Harriduraz begiratuko zaitu jendeak. Isilik. Gazteek eta helduek, ez
soilik adinekoek.

Harriduraz eta auzolotsaz. Gupidaz, akaso. Eliza eta petrolio beltzak
gogoan. Agian, nobeletako lumpena etorriko zaie gogora. Kontzeptua.
Errepideko saltokietan frutak hartu eta kutxan dirurik uzteke hanka
egindako hura zarela pentsatzeko eskarmenturik ere ez, inondik ino-
ra kutxatik dirua hartu duena. Norvegian ez dakite zer den ustelkeria.
Praktikan. Ez dute nire garbiketa sektorea ezagutzen. Tira, badakite,
eskolan adi zeudenetakoak badira. Ezagutuko dute hitzaren esanahia.
Ez dakite, ordea, ustelkeriaren adibiderik jartzen. Nik, Norvegiara eto-
rri aurretik, tunel barruko errotondak edo ferry baten bidez baino ja-
rraitzen ez duten errepideak adibidetzat jarriko ez nituzkeen bezala.
Nahiz eta jakin zer den tunela, errotonda edota, apur bat nekezago ba-
da ere, ferry kontzeptua. Ez guztia nahastuta. Ez adibide konkretuekin.
Ez, etorri aurretik.

Badakit zer den ustelkeria. Praktikan. Nire sektorearen albo-sekto-rea. Beste alderantz begiratzen duten zaindariak. Haien beldurraren, axolagabekeriaren, lukurreriaren bizkar egiten dugu garbiketan lan. Ez zaindari guztiek, jakina. Hala balitz, nire hankasartzeak ez zukeen eragin larririk izango. Nigan. Izan zuen. Euren lana egiten duten zaindariak ere badaudelako.

Norvegian ez dago horrenbeste zaindari. Ez begibistan bederen. Ez zirudien.

Hutsik zirudien Norvegiak abuztuaren amaieran, guztiak Bergenen baileuden, edo Oslon.

Tartean ez dirudi ia inor dagoenik. Autoetan izan ezik. Euritsua da, Norvegia, abuztu amaieran.

Euren kotxeetan doaz hara eta hona. Bergenetik Oslora eta alderantziz, nonbait. Izan ere, herrietan nekez aurkituko duzu inor. Supermerkatuetan ez bada.

Norvegiako supermerkatuetan ez dago zaindaririk, kasik. Kutxazaina hara eta hona dabil, bestelako zereginetan, zaintzea bere kontua izango ez balitz bezala. Harrituta dirudi, zaindaririk gabeko kutxatik txartelaz beharrear, beretik eskudiruz ordaintzera igarotzen zarenean. Ni igarro nintzenean, edo txanponak eskuan, litxarreriak erostera joandako ume pare. Beste inor gutxi, nik bezala, kaxan kax-kax, hartatu dezaten. Cash-cash egiteko, nik gogoko dudan bezala.

Txartela darabilte gainerakoek. Usainik eta ukiturik gabeko dirua, di-da. Eta badoaz euren kotxe edo bizikleta elektrikoetan. Oslora, Bergenera. Edo etxola itxurako euren etxe berdintsuetara. Hala ez bada, ez dakit nora. Hain garbiak baitira Norvegiarrak, ez dutela arrastorik laga. Antza.

Errepidean ere aske ibil zaitezke, atzera eta aurrera, Oslorantz, Bergenerantz, peaje-langarik gabe. Soilik ferryyetan dira langak nabari. Behar baino arinago mugitu eta uretara eror ez zaitezzen. Zure segurtasunerako. Sakonak baitira putzuak. Hotza ura.

Badakit, ez erori nintzelako. Langak errespetatzen baintuen, ezinbestean. Ura hotza dagoela dakit, ukitu nuelako. Ukitu gabe ere hotza dagoela sumatzen da, egia esan. Erreketako ura, lakuetakoa, fiordoetakoa, urjauzietakoa. Ur hotza. Ur hotsa.

Fiordoak ez dira lakuak. Baina ia-ia. Fiordoak ez dira itsaso irekia. Baina itsasoa dira. Lurrez ia erabat inguratuta. Ia lakuak, beraz. Zaila da batetik bestera bereiztea, lakutik fiordora, alegia. Ondo begiratuz, atzeko mendien islada, ahal da. Ohitura behar, ordea, trebezia. Ez zidan denborarik eman. Lan errazak ditut gogoko, ez zailak. Akaso bueltan.

Lakuak ixten dira, fiordoak ez. Irakurri behar izan dut. Susmoa nuen, ez ziurtasuna. Haietakoren bat inguratzen saiatzera tematu nintzelako, alferrik. Eta beti agertzen zelako, ezinbestean, tunela, zubia edo ferry berri berria, bere langa eta guzti. Izan ere, arretaz begiratuta, langaz beteta dago Norvegia.

Langak daude, ferryetan bezala, tunel-ahotan ere, errepide bazterretan, zubietan. Beharrezkoak omen dira, jendeak minik har ez dezan, neguan lainotutako, elurtutako edo uholdetutako tokietara sarbidea galerazteko.

Uraren hiru egoerak ongi ikasiak dauzkate Norwegian, ustelkeria bezala, kontzeptuz; ustelkeria ez bezala, eguneroko praktikan. Fiordo xuxurlatzaile lainotuak, laku isil izoztuak, zarata gorgarriko urjauziak. Ur adituak dira Norvegiarrak. Ur handitua izan daitekeelako Norvegia.

Nik, bederen, ez nekien. Orain badakit. Eta kontatzen ari naiz, ez dakienarentzat. Jakin dezan. Euskal Herrian langabezian egon eta lan erraz batera Norvegiara hots egin diotenarentzat. Edozein sektoretarako baliozkoa delakoan. Nirean bereziki.

Berdin dio ingelesa, autopistak edo eskudirua gogoko izan ala ez. Gustu kontua da, zaletasuna edo aurkakoa. Urarena berriz, inportantea dela uste dut, eta ikusten ez diren arren, langak daudela jakin dadila. Eta seguruna zaindari ugari, gordeta. Abuztu amaierako eguzkia bezala.

Berezia da eguzkia Norwegian. Hor dago, langar atzean, abuztuko goizean goizetik. Hori ere ez nekien, oso laburrak direla gauak udaran, laburregiak nire sektorean eroso lan egiteko.

Laburregiak, errepideko atsedenekuetan lo egiteko. Izan ere, behala egunargitu eta loa galarazten baitizu ezkutuko eguzkiaren argitasun goiztiar horrek.

Komunak daude. Ur beroa. Diru beharrik ez. Atsedenguneetan. Langarik edo zaindaririk ez. Egunsentian garbiketa egiten dutenak soilik. Nire sektorean bezala. Eguna argitu aurretik, garbiketa, alegia. Lan erraza. Eta hurrengora joan. Norvegia eroso da oharkabean zeharkatzeko. Nire sektorean, abantaila. Turistak dabilta euren gainezkatutako kotxeetan, furgonetetan. Bide bazterretako atsedenguneetan, gaez. Errepideetan egunez. Bergenetik Oslorantz. Ala alderantziz. Ez naiz turista, lanera etorri bainintzen. Bergenetik Oslorantz, baina ez Osloraino. Ez behintzat Telemarken lana egin baino lehen. Gauzak bere hurrenkeran. Bilbo, eskala, Bergen, Telemark eta gero gerokoak. Oslo. Batek daki. Ez nintzen heldu.

Laburregiak dira Norvegiako gauak, nire sektorean aritzeko. Luzeegiak egunak.

Hauxe izan zen nire azken akatsa, larria, ezinbestean, Norvegiako gauen iraupena ez menperatzea. Ilunpetan egin baitaiteke hobekien hanka, garbiketarik hoberenak amaituta. AMAIERA



BORDARI

2. SARIA

Oscar Azkona Garcia

JON ALDERRAIA

Isila zen gizona, hura arrunt garbi zegoen, benetan zaila baitzen bere ezpainen artetik irtenda hiruzpalau hitz baino gehiago errenkadan entzutea, eta are zailagoa zen bere ahotsez iraganaren gaineko azalpenak aditzea. Horrenbestez, deus gutxi zekiten herrixkako bizilagunek hari edo haren jatorriari buruz, eta are gutxiago Ekuadorreko Errepublikako zoko hutsal hartaraino eramanak zuten arrazoiei buruz.

Izan ere, bat-batean agertua zen izaki zurbil estrainio hura, bost bat hilabete lehenago, Ozeano Bareak bustitako herritxo baketsuan. Txakur argal gosetien zaunka artean sartu zen herrian, bizkar-zorro berde handiaz zamatuta eta errepide hautsezatuaren eskumako bazterretik maldan behera oinez, izerdi patsetan, alderrai baldar baten itxura negargarri harekin, gorputz luzanga eta zinez mehea zuela, gosete latzak nozitutakoek soilik eduki dezaketenaren gisakoa. Kamiseta laranja kolorgea, praka motz gris urratuak, galtzerdi lohiak eta kirol oinetako beltz zulatuak zituen jantzita, zaindu gabeko bizar luze gaztainkara agerian eta buruko kalparrak lastozko kapela ziztrin baten azpian gordetzen zituela.

Herrian tankera nekatuarekin sartu eta berehala trafikorik gabeko kale baten erdian gelditu, betaurreko ilunak kenduta begi ñarrotuez ingurumaria aztertu, eta eraikin baten itzalpean, jesarrita zeuden egurrezko banku luze batetik bisaia harrituaz begiratzen zioten bospasei

adineko gizonezkoei jaramonik egiteke, denda txiki batean sartu zen. Han, barrukoei diosala egin, hozkailutik hartutako sei garagardo pototo hotz, tabako paketea eta patata frijitu zorroa erosi, eta salmahaian ordaindutakoan irten eta hondartzarantz jo zuen artez, hango palmondo sail baten gerizpean esertzera, erositakoa sabeleratu bitartean uhin apartsuei nahiz askotariko hegaztiei so atsedean hartzeko, kostaldeko haize kirriak bero sapa arintzen ziola.

Pare bat ordu eman zuen han, bakarrik eta patxada ederrean, jaten, edaten eta erretzen, arean gogoeta egiten ere, itsaso urdin neurrigabeari begira. Alabaina, Manabí probintziako txoko hartako herritarrak gerturatsen hasi zitzaizkion pixkanaka, adeitsu eta jakin-minez, ume ausart irriberak aurrena eta heldu uzkurragoak hurrena, elikagaia, edaria eta solasa eskaintzera. Jasotako itaunei desgogara erantzunez gizaseme azal-zuri eguzkiak erretakoak ahoskatu zituen berba apurren arabera, Jon zuen ponte izena, Europa kontinente urrunean jaioa eta hazitakoa zen, eta alde batetik bestera zebilen Ameriketara zehar.

Eta egia zen, bai, herrixka hartako auzotar jakinguratsuei hainbeste xehetasunik eman ez bazien ere, zeren eta arrantza portuaren inguruan antolatuta zegoen itsasertzeko udalerrirantz euritsu eta heze bat zuen sorleku. Kaian arrantza-ontzi gorriak, berdeak eta urdinak egoten ziren ainguratuta, beharrez aritzen ez zirenean, bai eta potin txikerrak ere, denek harrotasunez zutela karelean idatzitako izena ikusgai, eta herrigunea kale aldapatsu estuek egituratzen zuten. Hango gizakiak behialako balea arrantzale trebeekin ondorengoak ziren, zenbait mende lehenago arbasoek munduko itsaso zabaletan barna nabigatu baitzuten piztia erraldoiak ehizatzeke xedez, ziurrenik antzinako vikingo iparraldeko herri oldarkorren nabigazio bideei segika, eta kontatzen denez, baleatzarrak kalituta eskuratutako gantzaz argiztatu ziren Europako herrialdeetako karririk eta berotu etxeak. Halaber, esaten denez, hainbeste itsasontzi eraiki eta uretaratu zituzten baleen xerka abiatzeko, ezen aldirietako nahiz urrutiagoko baso abartsuak soildu behar izan zituzten nahitazeko lehengai zuten zura erdiesteko, sagastiak errespetatuz betiere, sagardoa derrigor eraman behar baitzuten itsas kanpaina luzeetan eskorbuto deritzon gaixotasunari aurre egiteko.

Haatik, odolez kondaira zaharrek aipatzen zituzten behialako marinel kementsu haien leinukoa bazen ere, aita, aitite eta birraitite behintzat itsastar izanak baitzituen, Jonek ez zekien igeri egiten eta ontzi-gainean zorabiatzen zen, hortaz uretaratzeko ideia hutsak atzeraka eginarazten zion, lautada urdina begien parean edukitzea lasaigarria bazitzaion ere. Horregatik, ludian zehar helmuga zehatzik gabe, noraezean eta aske zebilen berrogeita hiru urteko gizonezkoa lehorretik mugitzen zen beti, Ozeano Atlantiko hedatsua gurutzatu eta herrixka hartaraino iristeko nola egin ote zuen misterioa zaigun arren.

Baina adierazi bezala, hainbeste argipenik ez zien eman gizaseme arrotzak itsasertzeko herritxoan bizi ziren lurraren koloreko lagunei, eta orobat ez zien jakinarazi zer zela-eta utziak zituen Europa aberatseko abaroa eta balizko bizimolde eroso badaezpadako erbesterantz partitzeko, gosea, egarria eta pobrezia pairatzera, aipatu ez zien legez seme-alabarik, emazterik edo bestelako seniderik al zuen zain. Horrenbestez, nahiz eta galderak bata bestearen ostean jaulki, informazio egarria asetzeke geratu ziren hango auzotar berritsuak.

Jatorrizko amerikarren eitea zuten haietako batzuek lengoaia berezi bat zerabilten haien artean mintzatzean, kitxuaren aldaera bat agian, gizon zuriari zuzentzean gaztelaniari heltzen bazioten ere. Kanpotarri aditzera eman ziotenez, herri hura barne hartzen zuen probintziaren Manabí izenak hango eskualdeak antzina populatu zituen tribu baten izendapenari egiten zion erreferentzia. Ildo beretik, probintziaren barruan, herrixka Puerto Lopez kantoian zegoela jakinarazi zioten, eta kantoia ospetsua zela kostaldetik hurbil aise ikus zitezkeen balea eskergeren kopuru handiagatik. Halabehar txundigarria alafede, otuko zitzai Jon hari ziur aski, bere buruari galdegingo ziola barne sen ezkulturen batek gidatua ote zuen aspaldiko baleazaleen oinordekoa zena, alimaleko itsas egaztunen gaur egungo atsedenleku bareraino.

Bestalde, nabarmentzekoa da Jon izeneko gizonak idazle amateurtzat zuela bere burua, hots, laket zuela paperezko orri zuriak bolaluma urdinez edo gorritz zirriborratzea, hitzak bata bestearekin kateatzu ganorazko esaldiak edo bertsoak osatzen jolasteko, nahiz eta jarduera

haren ondorioz batere sonarik edo dirutzarik irabaziko ez zuen sekula. Hortakotz zeramatzan beti motxilaren barruan kaiera bat eta boligrafo pare bat, bizpahiru liburu kuttunekin eta arropa zikinarekin nahastuta, edozein unetan bizkar-zorrotik erauzi eta garuneko burutazioak orrietan islatu ahal izateko.

Izkiriatzeko zaletasun hari esker bizibidea ateratzen zuen gizakumeak nola edo hala, horrela esan baliteke, oinarrizko premiak nahiko kostata estaliz eta erabateko txirotasunean biziz halere, jakina baita ia ezinezkoa dela hogeita batgarren mendeko sasoi ilunotan idazletzaren kontura duintasunez bizirautea. Horrela bada, nahiz eta ama hizkuntza beste bat izan, hartan aritua zen gaztarotik eskribitzen eta literatur lehiaketaren batean gailendua zen, baita zer edo zer argitaratu ere, bere iritziz ongi samar moldatzen zen gatzelaniaz ere, eta Ameriketan leku batetik bestera zebilenetik mintzaira horretan eraikitzen zituen narrazio laburrak eta olerkiak, marra baten gaineko “Jon” soil batez sinatzen zituenak, gehienbat janaren eta behar zituen gauzen truke opatzen zituenak. Dena den, errepide eta bidezidorretan ibildaun higitze hartan garai txarrak ere nozituak zituen noski, beharrian bolada ankerrak, eta espaloiren batean jesarrita eskale jarreran paratua zen sarritan, aurretik pasatzen ziren oinezkoei esku ahurra erakutsiz amoina eske.

Atzerritarrak kanpin dendarik edo bestelako babeslekurik ez zuenez, herrixkako herritar lagunkoiek erabiltzen ez zen etxola kalamustra bat eskaini zioten aterpe xume bat bederen ukan zezan han egon bitartean, hareatzatik hur eta herrigunetik zertxobait aparte, antza denez atsegina begitandu baitzitzaien atzerri urrunetik ailegatutako izaki xeblebre hura. Hormak eta zorua egur oholez, eta sabaia latorriz zegoen eginda etxola, bazuen zer konpondu eta zer txukundu, altzarie zegoekenez lau hankaren gaineko kamaina estua, plastikozko mahaia eta aulkia, eta gauza gutxi gehiago apailatu zizkioten, baina aski izan zitzaion arrotz bitxi hari, eta hantxe ezarri zuen denboraldi zehaztugabe baterako habia.

Jon herriko gizon zailduekin batera ozeano sakoneko olatu oldar-korren artera menturatzen ez bazen ere, beldur handia baitzion itsasoaren itzelezko indarrari, lantzean behin lehorreko lanetan laguntzen

zuen, hala nola txalupak margotzen edo eraberritzen, sare apurtuak josten, ala arrainak garbitzen, ordainetan harrapatutakoaren zati bat jasoz. Bestalde, oso noizbehinka familia baten gonbidapena onartzen zuen afaltzera joateko, eta rona edo garagardoak oparo egonez gero goizaldera arte geratuko zen ausaz, salbuespena eginez kalaka etengabean jarduteko xendretako pasadizoak aletzen edo filosofatzen, ala inork entelegatzen ez zion hizkuntzaz bakarriketan, etxe baten barnean edo lekorean piztutako suaren baranoan, ala besterik gabe isilik iraungo zuen sugarren dantza atergabeari sorgor beha, mozkorturik.

Alabaina, tartean behin bere baitara biltzen zen bakardadearekin ohi-tutako gizakume muker hura, beharbada iraganeko atsekabe mingarriren baten oroitzapenak hartaratuta. Horrelakoetan egunak ematen zituen apopilo zuen etxolaren barruan sartuta ezertarako ere irten gabe, triste eta hasperenka, gehienbat hausnarrean, liburuak irakurtzen eta koadernoan idazten pasatzen zuela denbora, betiere tabakoa erretzeaz eta zurrutean aritzeaz gain. Aberriko hizkuntza zaharrean osatutako oharrak izkiriariak zituen akaso, barne bulkadaren bati edo herrimindari men eginda, ala gaztelaniatzko perpausak nahiz neurtitzak taxutuko zituen bestela, herriko biztanleei opaltzekoak ziren idazlanen kasuan.

Handik suspertuta eta aldarte hobeaz jalgi eta gero saltoki baterantz joko zuen normalean, fruta, ogia edo jateko beste zerbait erostera, eta ordaintzeko eskuizkriburen bat eskainiko zion saltzaileari apika, patriketan dolarrik edo bestelako diru motarik ez bazeukan, ala mandaturen bat egiteko prestasuna agertuko zion. Osterantzean, herritxoaren erdialdeko enparantza nagusian eseriko zen, lurrean zuhaitz baten itzalpean, purtzileriak saltzen zituzten lagun berritsuen aldamenean, eskuz izkiriariak orriak zoruan ikusgai ipinita, igarotzen zen jendeari soseguz begira, eta hurreratzen zitzaionari ipuin bat edo poema bat opatuko zion txanpon batzuen truke, ordainetan jatekoa edo produkturen bat ere ametituz, eta leitzen ez zekienari zer edo zer ozen irakurtzeko eskainiko zion bere burua.

Dena den, ingurune hartako bero tropikalaren ondorioz, Jonek ez zuen janzki frankoren beharrik, kalean egoteko nahikoak izanik kamiseta arina, bainujantzia edo galtza motzak, eta txinalak, burua eguzki kiskalgarritik babesteko bisera edo kapelu batez gain. Zentzu berean,

bizilekutzat zuen txabola doan laga zioten, argindarrik eta ur edangarrik gabekoa izanik ez zekarkion inolako gasturik, eta janariari dago-kionez arrantzaleek arrain anoa ematen zioten maiz, horrenbestez diru premia larririk ez zuen.

Halako batean, gizona etxolaren aitzinean bakarrik eserita, zigarroa-ri zupadak eman bitartean uhin bisdunen astinaldiei soraio so zegoela, literaturazale sutsua eta haren idazkien ohiko eroslea zen Carolina eskolako maistra alaia etorri zitzaion, soineko luze more arin bat jantzita. Agurtu eta, ustekabean, opari berezi bat egin nahi ziola adierazi zion Joni, jada erabiltzen ez zen Olivetti markako idazmakina zahar bat hain justu, egoera on samarrean eta baliatzeko prest ei zegoena, orri zuriak zituzten bi paketerekin batera. Horrela bada, izugarri poztu zen kanpotar txunditua, naski, aurrerantzean makinaz era dotorean atondu ahal izango baitzituen bere testuak, bolalumaz egin ordez ordura arte bezala.

Tenore hartatik hiru egunera Carolina lirainaren etxeko zurezko atea-
ren aurrean azaldu zen Jon ezustean, eta kask-kask eginda neskak ire-
ki zionean hogeit bat orrialdeko hitz lauzko idazlan bat eskuratu zion,
mekanografiatutako testu aratzean eta gomaz lotuta. Harentzat beren-
beregiz izkiriatua zuela ziurtatu zion gizonak, jasotako bezuzagatik eske-
rrak emateko, eta urduri trazaz, ez zuen gelditu nahi izan etxekoak es-
kainitako ezer jateko edo edateko, gurago izan zuen segituan ospa egin.
Europarra aldendutakoan mahai baten gainean pausatu zuen orri sorta
neska baldituak, beste mementoren batean irakurtzeko asmo tinkoaz.

Iluntzean, tarte libre bat eduki zuenean orri sorta ikusminez hartu,
flexo baten argitan jesarrita leitzeari grinaz ekin, eta zur eta lur geratu
zen Carolina andereñoa, orrialdeetako lerro txukunetan behera egiten
zuen heinean bere bizitzaren gaineko istorioa topatu baitzuen irarrita,
hirugarren pertsona kontaktuta, haurtzarotik hasi eta Jonen etxolan
azalduta idazmakina oparitu zion istantero arte hain zuzen. Horrela
bada, guztiz ahaztuak zituen umezaroko gertaerak eta nerabegaroko
jazoerak, zazpi bat urteko neskatoa izanik adiskide baten konpainian
oihan trinko batean galduta eman zuen gau ikaragarria adibidez, kau-
situ zituen ongi jositako lerroalde haietan barna. Era berean, gurasoen
behialako etxetzar dotorean zuten artzain-txakur alemana, txikitan

ikasi zuen ikastetxe katolikoan nahiz auzuneko karriketan lagunen aldamenean agitutako pasadizoak eta autu-mautuak deskribatzen zituzten pasarteak idoro zituen, probintziako Portoviejo hiriburuan fortunatutakoak denak.

Berebat, koskortu ahala burututako ikasketa garaiak aurkitu zituen orrialdeetan inprimatuta, nola irakaskuntza arloan modu profesionalen jarduteko gurariagatik unibertsitatean izena eman eta lehen hezkuntzako irakasle bilakatzeko gogoz estudiatu zuen. Gerora, egindako hamaika azterketatan emaitza bikainak erdietsita eta elkarrizketa-probak gaindituta errientsa lanpostua lortu, eta itsas bazterreko herrixka urrun hartara joateko proposamena aurkeztu zioten, bertako eskola txikian klaseak eman zitzaizkien. Abagune zoragarri hura probestuz, eskaintzari baietza eman eta harantz abiatu zen zalantza izpirik gabe, bizimolde ezezagun eta kitzikagarri berri bati oratzeko gogoz, abentura egarriz alegia, gibelean utziz betiko bi urtez senargai izandako Eduardo Maldonado mutil diruduna, ondasun materialei zegokionez etorkizun naro baten agintzaria zena baina izaera zurrun eta aspergarria zuena.

Arrantzaleen herritxoan bizitakoak ediren zituen jarraian, nola hara iritsi eta lasterrera samurra izan zitzaion hango bizimodu patxadatsura egokitzea, zelan egin zuen hango herritar gizabidetsuen eta batez ere ikasle bihurrien ezagutza, adin ezberdinetakoak ikasgela berean pila-tzen zirela, haietako anitzen ahoetan lengoia berri bat atzemanaz, pixkanaka bereganatzeko irrika piztu ziona. Ipuinaren azken paragrafoetan herrira arribatua zen gizonezko narrasaren deskribapena zegoen, neska idazmakina haren aterpera eraman zuen unean amaitzeko.

Irakurketa bukatutakoan arras estonatuta gelditu zen Carolina andereñoa, araz, teoriarik ezinezkoa baitzen munduaz bestaldeko lurralde asagotetik heldutako gizon arrotzak haren bizitzaren berri hain modu xehean jakitea. Hura zela medio, bere heziketa katolikoa eta prestakuntza arrazionala gorabehera, aztikeria zantzuak sumatu uste izan zituen neska kontakizun misterioitsuaren atzean, edo iruzur gaitzoren bat bestela.

Ildo beretik, hurrengo egunetan herriko beste hainbat laguni buruz ere izkiriatu zuen Jonek, bakoitzari haren ordura arteko bizi istorioaren gaineko testigantza inprimatua helaraziz. Horren eraginez, xuxur-

laka eta ahapeka aritzen hasi ziren hango gizon-emakume zurtuak, eta susmo txarra barreiatzen joan zen testu haiekiko ez ezik baita haien autorearekiko ere. Horrela bada, esan liteke izua bizkor sakabanatu zela herrixkako kale mehar eta etxe apalen artean, biztanleek mesfidantzaz erreparatzen ziotela gizon zuriari lehen ez bezala, gero eta nabariago, baten batek deabruarekin berarekin itun ilunak eginda zeuzkala ebazteraino, osterantzean ez baitzuen denen gainean hainbeste daturik edukiko, eta xaman batengana ere jo zuten batzuek aholku eske.

Aitzitik tupustean, abenduaren hastapeneko egunsenti lanbrotsu batean jaiki, palmondo baten oinean maskuria libratzera atera, eta makarrak kentzeko astirik ere hartu gabe alde aurretik prestatuak zituen puska apurrak azkar batu, bizkar-zorro muskerrean gorde, eta maileguan hartutako etxola abandonatuta oinez partitu zen herrixkatik Jon sorkari isila, ailegatu zen errepide hautsezatu beraren bazterretik maldan gora oraingoan, inor ohartarazi barik edo inori agur esan gabe, ongietorria egina zioten txakur makalak artean lo zeudela. Horrela bada, kamiseta eta praka motz garbiak soinean, kirol oinetako distiratsuak oinetan, eta oihalezko bisera gorri bat kaskarrean zuela, alderrai ibiltzeari lotu zitzaion ostera ere, auskalo hango herritarren kezka eta gorroto ernamuinak barrundatu eta horren eraginez hartu ote zuen ihes egiteko erabaki irmoa.

Horrela zioen gauaren erdian esnatutakoan paseatzera irteteko aztura zuen adineko gizonezko batek behinik behin, argi eta garbi begietsi zuela atzerritar tximatsua agudo itzuri joaten, aldatsa igozten errepideari jarraiki, eguzkiaren aurreneko errainu laranja artean zerua koloreztatzen hasi gabeak zirela. Alta, andrazko zahar ozpin batek ezetza jaulkiko zuen errime, esanez atzerritarra urratsak itsaso barrenerantz egiten begiztatua zuela aurreko gauean, astiro murgildu zela ur ubeletan zeharo desagertzeko eta berriro handik ez ateratzeko, itota hilko zela ezbairik gabe, gorpua inon agertu ez bazen ere.

Hori bai, era askotako aburuak eta eztabaida antzuak alde batera lagata, agerikoa zena zen gizaseme arrotza herritik aienatua zela, eta halaber Carolina maistra gazteak oparitutako idazmakina zaharraren arrastorik ez zegoela inon.

2025





SATARKA

1. SARIA

Amaia Sarasola Auzmendi

IZATEAK

Izatea

Izena duen guztia omen da.

Izendatzen dugu dena;

dena eta ez dena.

Izendatzen ditugu

ezereza, ezlekua, ezdukatasuna

eta ezina.

Gure izatearen osotasuna omen da

garen eta ez garen guztia.

Bideratzen gaituzte izatera

garena eta ez garena,

azkenean ezerez bilaka gaitezen.

Muinak ditugu hitzez aipatzen
muinoak ditugun arren ikusten.
Uste nahi izaten dugu badela zerbait
eta noizbehinka geratzen dira izenak handi, izanak txiki;
eskuragai dauzkagu nahi adina hizki
izendatzeko izan ginena
izena emateko noizbait izango garenari
bilakatzeko hizki bakoitza handi.

Garen eta ez garen guztia
izatera bideratzen gaituzte
azkenean ezerez bilaka gaitezen.

Izena duen guztia omen da
izana.

Ezereza

Ezereza zerbait omen da.
Hutsean, ezer ere ez;
izatean, ezgai.
Ezgaitasunek bideratzen naute
saiakeretara.

Ezlekua

Izana naiz;
noizbait
izan naiz
muin eta muinoen arteko ezlekuren batean,

non denborak hartzen duen dena,
gonbidatzen zaituen jolasera...
gaitasunak eta ahalak ezbaian jarri
eta saiatzera.

Ezedukitasuna

Saiakeren botila hutsik dago,
ez du edukirik, oraingo.
Edukiera omen da
kapazitatea, ahalmena
gaitasuna.
Edukierarik gabe
nola saia naiteke?

Ezina

Gai izatea
ez da beti ahal izatea.
Muinean gelditzen naiz
minak barrenak hartzen dizkidanean.
Orbantzeko beti da goizegi,
gailentzeko beranduegi.
Ezintasun gailen hau
ahalean.


Izena, izana, ezina

Ezgaitasunek bideratzen naute
saiakeretara,
muinaren eta muinoaren arteko bidean

gaitasuna eta ahalmena azaleratzera
orbantzeko beti goizegi den arren.

Naizen eta ez naizen guzti horren
edukiz beteko dut botila
saiakerak egiteko inoiz ez baita berandu.
Saihestuko dut sentitzea erruz
ezintasun gailen hura
ahalean dudanetan.

Gailendu nahi izaten dugu
saiakerarik gabe.
Garen eta ez garen guztia izateak
gonbidatzen gaitu jolasera,
ezinei ahalak jartzera,
azkenean ezerez bilaka gaitzen.
Saiakerak ditu
ezinak ahal bihurtzen
direnak eta ez direnak izendatzen
ez-ak baikortasunaren hizkuntzara itzultzen.
Saiakerak du
izana izendatzen,
izenak txiki eta izanak handi bihurtzen,
ezina ahal bilakatzen.



SATARKA / Hondarribia
HONDARRIBIA SARIA
Josu Salegi Garate

BIDASOAREN AGURREKOAK

I Elkarrizketa

Hil dun, hil zunan.
Hutsunea ez dun
hitzekin beteko.
Hirekin ibiliko dun hutsunea,
batetik bestera, beti hor.
Hustuko haiz,
baina ez dun beteko.
 Ez, ez zagok hutsunea
 betetzeko hitzik.
Ezta mendiarenak ere?
Mendiak esanda agian?
 Ez, mendiak ez dik hitzik.
 Zuhaitzek bai,
 hostoek jarduten ditek,

haizeak esandakoa errepikatuz,
edo euri kolpeen bidez.
Errekak hitz egiten dik,
ugari gainera.

Eta ibaiak?

Bai, ibaiak bai.

Orduan ibaiak hitz egin dezala.

Hitzek ez ditek beteko ordea,
kantuak piztuko dik barruan.
Kantua bihotzekoa,
apala,
bihotzarena izan ohi duan lez.

Gehiena doinua dun ezta?

Agurrekoa, joan dela esateko.

Ibaia joan dun

eta ez dun berdina joango

edo itzuliko.

Beste ibai bat dun hori.

Nola kantatuko din ibaiak?

Bertsoen bidez.

Ikusten dizkiat jada,

han zeudek biak.

Has dadila orduan eta gero...

abestuko din.

Agurtuko duk.

Piztuko zien barrukoa.

Ibaiak, bie.

II Agurrekoak

Ondarraitzeko Dunbarrietan
kaiorearen jirabira,
eguzki printzek ur azalean
mugimenduan distira.
Neskatila bat eta amona
bakarrik ageri dira,
harkaitz batean eseri eta
zerumugari begira...
Begiekin zerbait esango zuten
ezpainak izan balira.

Doinu ederrak entzuten ditu
neskatxaren belarriak,
Txinguditikan haize leunak
murmurioz ekarriak;
Bidasoaren bertsoak dira,
agurrerako jarriak.
Amets batean bildu ostean
begitxo maitagarriak,
hitz hauexekin abesten dio
ibaiaren eztarriak:

Xorroxineko ur jauzietan
hasi zen nire pausoa,
umetatikan laztandu ditut
zelaia eta basoa,
nafar lurretan pasa ostean
ia bizitza osoa,

Hendaia, Irun, Hondarribia,
azkenean itsasoa...
Ama Kantauri zabal zabalik,
hemen nauzu Bidasoa.

Hari txikia nintzenetikan
aldapan behera hasi,
bailara hauek landu nituen,
beraien ondoan hazi.
Gelditzerikan ez daukat eta
aurrerantz behar dut bizi,
munduak hola sortu ninduen,
holaxe nuen ikasi;
gozoa hemen hilko da eta
bilakatuko da gazi.

Jaizkibel eta Aiako Harri,
Larrun testigu zu zera,
elkarri asko eman diogu,
elkar ondo zaindu gera.
Errai horiek ezagun ditut
gailurretik magalera...
Burdin eta haitz etor zaitezte
hemen nirekin batera,
mendi zati bat iritsiko da
ozeano urdinera!

Itsasoratu baino lehenago

etor zaitez bidaiari,
festa eder bat egin dezagun,
zain daukat eta Kantauri.
“Jaizubin eta Plaiaundin ziren
ospakizunak ugari,
mundu osotik hegazti denak
agertu ziren kantari.”
Hemen nauzute guztientzako
janari eta edari!

Ama maitea esan zadazu
noiz izango dut aukera?
Berriro ere joan nahi nuke
Gorostapolo aldera.
Ur garden haiek izan nituen
garaietan bizitzera,
amuarraín ta izokinekin
Endarlatsan jolastera...
Laino eder bat osatu eta
berriz hasiko al gera?

Agur kantua nahikoa izan da
neskatxoa hunkitzeko,
barruan zuen samintasuna
bere hortan sentitzeko:

Amona maite itsaso hontan
zu eta ni bainatzeko,
nire ondoan izan nahi zaitut

biok sarri etortzeko.
Aukerarikan ba ote dago
amonatxo ez hiltzeko?
Olatu hotsak entzuten dira
galderaren hondarreen,
ubarroi beltza sartu berri da
ur azpira indarreen.
Bilobatxoa kulunkatzen du
goxo-goxo bularreen,
hil zen alaba irudikatuz
oroitzapen xamurrean...
Ibaia mantso ezkutatu da
begi itxien aurrean.



BORDARI

1. SARIA

Maitane Arizti Ugarteburu

INORK EZ NAZALA HORRELA IKUSI, JAINKOARREN

*“Dena deskonposatzen eta eraldatzen da,
baita ni deitzen dudan hori ere”.*

Clarice Lispector, *A paixão segundo G.H.*

Ispiluak nirea ez dirudien aurpegi bat itzuli ote didan goizaldean. Arrakalak ditut ohiko zimurren ordez, orbain irekiak, irentsi nahi nautenak barrutik. Masailezurren azpian orban marroixkak ageri dira, kartoi hezearen kolorekoak, tindatuak bezala. Begien inguruko azal mehea edozein unetan haize hotzarekin hauts bihurtzeko prest dago. Azala desegiten hasi ote zaidan gorputzeko zenbait txokotan, paper bustia. Izututa haztatzen dut begitarte hanpatua, poroetan gora iragazten zait arimaren hezetasun berdexka, negartu gabe geratutako malkoak beharbada, ur geldia, ur galdua.

Ez dago zalantzarik: usteltzen ari naiz. Azalpean hazten den onddo bat da Denbora, inbaditzaile isil bat, gerlari ekina, nonahiko hezurak bigundu arte asetzen ez dena. Ezin da denbora sentitu; ezin da denbora geldiarazi.

Aurpegiaren hondamendia estaltzen saiatzen naiz, trauskil, premiaz, makillatzen naiz, harik eta sortu berri dudan maskara egia bihurtzen denera arte, soslaiz errekonozitzera irits naitekeen egia bat.

Kalera irteten naiz behaztopaka, ozpin-usaina darion gabardina zahar bat soinean (beharbada niri darit usain mingotsa). Kapela batek lehen kopeta zen gorputz-atala estaltzen dit. Inork ez nau ikusten. Jendeak jada ez dio ezeri begirutzen. Presaka dabilta, entzungailuak dituzte, begiak pantailetan iltzatuta. Une ezin hobea da munstrokeria funtzionala izateko, egia osoa esateko.

Supermerkaturaino iristen naiz eta nire urratsek arrasto umela uzten dute atzean, muki fina, kolorgea. Garbitzaileak ere ez dira ohartzen. Gurpil okerrak dituen orgatxo bat tarrasean daraman emakume batekin gurutzatzen naiz. Hark bai begirutzen nau. Betondoa zimurtzen du. Airearen usnatzen du. Nire formetan badago ulertu ezin duen zerbait. Baina ez du ezer esaten. Bihotzez eskertzen diot isiltasuna irribarre trauskil batekin, espero izatekoa zena baino hortzoi gehiago agerian utziz.

Eta, orduan, fruta tropikalen artean ikusi dut: papaia erdi ustel bat. Azala eroria du, hondoratuta dago aldamen batean, birika kolapsatu bat dirudi. Gainazal bigun horren azpian lokatz gozo bat hautematen da, mamia azido eta azukre nahasia, kolore gorrixka bere baitara kiribildua, gorputz baten barneko bizitza-hondarrak. Zauri ireki baten samurtasuna du, eta amaiera ziurrek haiekin ekarri ohi duten bakea. Eskuetan hartzen dut. Usaindu egiten dut. Eta negargura sartzen zait.

“Ahizpa”, pentsatzen dut.

Fruta ustelaren usainak neurea ekartzen dit gogora. Ez lehen nuen usaina, baizik eta oraingoa. Gozotasun hartzitua, haragi etsia. Une batez, samurtasunez begirutzen diot frutari. Gero jeloskor sentitzen naiz. Frutak eta loreek badute zorte bat nik ez dudana: horretarako jaiok dira, inork ez du espero iraun dezaten. Beren bizitzaren laburtasuna ospatu egiten da. Jendeak usteltasuna barkatu egiten die, saihestezina dela dakielako. Nik, alabaina, itxurak egin behar ditut artean. Zahartzearen antzerkia egitea egokitu zait, eta ez azken ekitaldia, baizik eta entsegu gogaikarriki amaigabe hau.

Tanta lodi bat irristatzen zait ezker belarrian behera eta mandarina baten gainean isurtzen da. Disimuluz garbitzen dut kleenex batekin eta zapia desegin egiten da substantzia ukitu ahala. Barre egiten dut ahapeka. Inor ez da ohartzen. Arte efimeroa naiz, likidoa.

Kutzara hurbiltzen naiz. Kutzazainak (ia nerabea, inguratzen duen guztiarekin nabarmen kokoteraino) begirada altxatu gabe eskaneatzen du papaia. Eskua dardarka dut. Ez ahaleginarengatik, baizik eta hatz-koskorretako azalaren zati bat orgatxoaren heldulekuari itsatsita geratu zaiolako. Arretaz erretiratzen dut eskua. Bihotza taupaka dut, bestelako soinu batekin ordea, zuntz zahar batek hautsi aurretik egiten duen kraska isila burrunbatzen da gorputz-barrunbeetan barna, aldiro-aldiro; birikek egur bustiaren arnasa erreplikatzan dute. Inork ez du ezer esaten. Inork ez du begiratzen. Inork ez du ikusten. Ikaragarri maite dut mundu hau.

- Poltsarik? - galdetu dit kutzazain arimagabeak.

- Ez, eskerrik asko. Neu bizkorrago desegino nintzateke.

Ez dit erantzuten. Ez du entzuten. Ez du ulertzen. Edo ez galdetzea erabakitzen du. Are hobeto biontzako.

Supermerkatutik irteten naizenean, esku artean dut papaia, erlikia bat. Eguzkia nire azal zeharrargian islatzen da eta agerian geratzen dira zenbait zerrenda berdekara, ihesbide bila dabiltzan sustraiak. Zahar-tzearen mapa bat naiz, hain zuzen ere. Arin sentitzen naiz. Beharbada pisua galtzen ari naizelako, bizkor. Beharbada jada ez daramadalako bizkar gainean koherentzia-inperatiboaren burugabekeriarik.

Ettxera itzultzen ari naizela, ematen dudan urrats bakoitzarekin zerbait askatzen zait. Ezker belauneko azal puska bat. Masail pixka bat. Ziurtasun guzti-guztiak, salbuespenik gabe. Haizeak eramaten ditu azken horiek, inork bilduko ez dituen hostoak bezala. Eta ez zait inporta. Badirudi bizirik nagoela. Badirudi iragate betebete nagoela. Badirudi bere gaubeilan barre egiteko gai den izaki bihurtu naizela.

Eta, gainera, baldin eta gaurkoan etxera iristekoa banaiz, papaia izango dut afaltzeko.



BORDARI

2. SARIA

Leire Sarasola Auzmendi

BAZKALOSTEKO KAFEAK

Astelehena berriro. Udaberriko lehen eguzki-izpiek gogor jotzen dute errepideko asfalto beltzaren kontra. Auto baten barruan noa, gidatzen. Etenik gabeko marra dut eskuinean eta ezkerrean marra etenek banatzen dituzte etenik ez dutela diruditen bi bideak. Goizetan kilometro infinitudun dirudien autobidea alde batera utzi, bidegurutzean bolantea ezkerretara mugitu eta begien itxi-ireki batean bertan naiz, lantokian. Sartu naiz harrera gunera nekez eman ditudan bi pausoei esker. Igo ditut pertsianak, zango luzekoa den arren egunik ospelenean txiki sentitzen denaren goibeltasunez.

Pare bat minutu beranduago iritsi da Unai. “Egun on” single batez agurtu gara, ezer esan nahi ez duenaren, baina bi hitz horiekin jada asko esaten duenaren soiltasunez. “Egun on” horrek berarekin baitakar “hiru eta erdietan atseden gelan?” mutu bat eta lau begien arteko kohesioak iltzatuta uzten du -beti ezin esan badaiteke, ia beti-, “bai” irmo bat isiltasunean.

Hirurak izan bitartean tartekatu ditut ordenagailuko lanak, amaitzen ez dela dirudien eginbeharren zerrenda idatzita daraman agendari begiradak, eta pare bat dei. Idazkera azkarrek probokatutako teklatu hotsek, lan egunetan plazera bihurtzen diren bukatutako zereginei egindako zirrimarrek eta bezero batzuekin izandako amaigabeko ziruditen elkarrizketek eman dizkiote goizari orduak betetzeko nahikoa motibo.

Erlojuaren orratzek hirurak eta bi markatzen zituzten une berean iritsi naiz jantokira. Ahal bezain azkarren irentsi ditut lekale eta txipiroiak eta hiru eta erdiak pasatxo zirenean ireki dut atsedean gelako atea. Bertan zegoen Unai, nire zain. “Barkatu, lanez gainezka ibili naiz, eta bukaerarako zertxobait berandutu zait”, esan diot. “Lasai”, erantzun dit. Eta jarraian, “kafea nahi?” galdetu dit. Oraindik arnasestuka “bai, azukrerik gabe, mesedez”, erantzun diot.

Parez pare eseri gara. Isilune luze baten ondoren, “beti hartzen duzu azukrerik gabe?” galdetu dit. Nik baietz erantzun diot, jarraian egingo zidan galdera espero gabe. Orduan berak, “benetan gustatzen zaizulako ala ohituragatik?”. Galdera horrek ezinbestean marraztu du irribarre arin bat nire bisaian. “Hasieran osasunagatik. Gero ohituragatik. Orain... ez dakit” erantzun diot. Hari irentsi ezinezkoa egiten zaiola esan dit ondoren, eta ez naiz harritu.

Lehenengo hurrupak beti ematen du min. Astelehenak bezalakoa da, isilune luzeak bezalakoa, esaten ez diren hitzak bezalakoa... Baina beti ohitzen da norbera. Eta bukaerarako, bilatu ere egiten da. Azken hurrupa beti da mingotsena, baina baita gehien gogoratzen dena ere.

“Nahitaez ohitzen zara” esan diot. Jarraian isilunea. Pentsakor gelditu da bera eta segundo batzuk beranduago, “denera?” egin dit galde. Denbora behar izan dut erantzuteko. Azkenean, ahots leun batekin, “ia denera” erantzun diot.

Hasieran ez dit ezer esan. Nik, ordea, jakin dut Unairi ama etorri zaiola gogora. Aste bat soilik igaro da. Eta noski, oraindik ez da ohitu. Une batez zalantza

egin dut ea denboraren joanak aldatzen ote duen doluarekiko dugun postura. Ohartu naiz, irteerarik gabeko bidaia dela galerarena. Atletismo pista bat bezalakoa. Etenik gabeko marrak, etenik gabeko bidean, etengabe desbideratzea galarazten. Seinalea entzun orduko, arnasestuka, estu, irteten dira korrikalariak, hasierako marra horretatik ihesi, berriro zapaldu nahiko ez balute bezala. Baina ihesean zabiltzanean, gero eta azkarrago ahaztu nahi izan, orduan eta lehenago iristen da norbera marra berdinerara. Amildegi berdinerara.

Arrosa ihar bat da galera. Joaten zaio kolore bizia lehendabizi, eta kolorea joandakoan alde egiten dute petaloek ere, baina arantzek bertan irauten dute. Horregatik diot ohitzen zarela ia denera, ia hori kentzea ezinezko egiten zaidalako sentitzen dudan sastada bakoitzean.

Niri amona etorri zait gogora. Bera izan zen kafea horrela edaten erakutsi zidana, azukrerik gabe. Gozatzea mingainari gezurra esatea zela zihoen, eta orduan ez nion sinistu. Orain, ordea, egia aurkitu dut amonaren hitzetan. Azukrea bota ohi diogu kafeari, hura gozoago egin nahian edo. Kafeak irensten du ondoren azukre guztia, denboraren joanak aspaldiko ametsak bezala, kontzientziak inozentzia irensten duen moduan. Ohartu naiz esperantza dela ezerk irensten ez duen hori, inoiz disolbatzen ez den hori, nahiz eta tarteka diluitzen den.

Unairekin hitz egiten igaro ditut ondorengo minutuak. Batzuetan bazkalosteko kafe bat nahikoa izaten da parean duzunarekin elkarrizketa hasteko, mingain lodiz ahoskatu ezin daitezkeen hitzak elkarrizketa gai bihurtzeko, haria orratzaren zulo mehean sartzeko. Behin hasita, dena delako errazago. Behin orratza zulo mehean

sartuta, mugimendu berdina errepikatu behar delako, behin eta berri. Behin hitz bat esanda, erraz josi daitezkeelako datozenak ere. Baina hain da zaila lehenengoa esatea...

Isilune eta hutsune artean pentsatutako hitzak soilik zaizkit ateratzen, oraindik korapiloa askatu ezinik dagoen eztarritik. Hitz solteak, hutsalak,..."Kontuz!" esaten diot, jada eskua lapiko berotan sartu duen haurrari. Kontsolatzeko, behintzat, balioko balute... pentsatzen dut maiz. Dena den, ezer ere ez zerbait badela sinistu nahi dut. Soiltasunean aurki daitezkeen sotiltasunaz fio naiz.

Sarri iruditu izan zait badagoela zerbait bazkalosteko kafeetan, azukrerik gabekoetan, bizitza bera handitasunik gabe bizitzeari gogorazten didana. Hasieran zaila da, kosta egiten da, mingotsa da, bizitza bera bezala; baina bukaerarako benetako zaporea uzten du ahosabaian, egiazkoa, gezurrik bat ere gabea, betiko gogoratzen den horietakoa.

Begietara begiratu diogu elkarr, kafearen beroa eskuetan. Jarraian

hurrupa bat, eta beste bat. Biok partekatzen genuen min bera, baina ez leku berdinetik. Biok kafea, baina ez katilu berdinetik. Badirudi galera geroz eta gertuago egon, orduan eta zabalagoa dela katilua, orduan eta handiagoa edukiera. Eta altxatzean pisatzen du gehien. Iraganeko haus-tsak harrotzean, nostalgiak orainean leku bat aurkitzean.

Lasaitasuna da bazkalosteko kafea, ezin geldituzko errutina honetan. Barealdia, ekaitzaren ostean. Arnasgunea, kutsadurak dena hartzen duen hiriaren

erdigunean. Elkarrizketa jarraitua, mezu hutsalek sare oso bat elika-tzen duten garaian. Berotasun doi bat -gozotasuna ez bada ere-, izoztu-tako munduan.

Laurak laurden gutxi. Ohartu gabe iragan dira minutuak elkarrizke-tak isiltasuna apurtu duen gela honetako lau hormen artean. Une batez zalantza egin dut ez ote dioten aulki hutsek eta kafez betetako bi katilu simple eusten dituen mahai soilak bide egin ahots korden astintzeari, kontatzeari. Ez ote duen kafearen mingotsak arazoa gozatu, euriak dena garbitu, edo orratzak, hariaren laguntzaz, zuloa zarratu.

“Bihar arte!” esan dit. Nik, ostera, badakit ez direla bi hitz soil. “Bihar arte!” horrek berarekin ekarriko du “bihar ordu berdinean?” mutu bat, eta era berean utziko du iltzatuta lau begien arteko kohesioak “bai” irmo bat isiltasunean. Kafea da funtsean elkartzearen aitzakia, astelehenetan esnatzearen grazia, isilune luzeak betetzeko modua, esaten ez diren hi-tzak pentsatzeko gotorlekua.

Tik-tak, tik-tak, dio hormaren goialdeko erlojuak, loreontziko arrosari laster ihartuko dela ohartarazi nahian edo. Tik-tak, tik-tak, dio horma-ren goialdeko erlojuak, inoiz amonaren egongelakoa entzun nuen in-tentsitate berdinarekin, dezibelio bat gora-behera. Tik-tak, tik-tak, dio hormaren goialdeko erlojuak, segundo orratzen etengabeko doinuan murgilduta. Denbora iraganen da, ezinbestean. Bihar berriz sentituko dut bazkalosteko kafearen beroa eskuetan.

